

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XXIII Zenbakia.

1993

Jorrailla-Ekainilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Euskera eta Antxiñako Europa.- Arrinda tar Anes	1
Arrinda"ri erantzun ariña.- Zubikarai tar A.	26
Euzkeraren e aztasunak eta zailtasunak.- U estarazu tar A.	30
Euskaltzaindiaren erabakiak.- Zatarain dar A.	33
Duan eta Duen.- Zatarain dar A.	35
Mungialdeko esakerak eta Ume kanta eta klopa zaarrak.- Asier Legarreta	38
Itxasoa.- Aita Onaindia	42
Euskal izenak Erdiaroko idazkeran.- Latiegi tar Bixente	53
Katxaba itzak eta euskerea.- Olazar tar Martin	59
Agur Txomin Aitari.- Malaxetxebarria tar J.	62
Txomin Jaka Kortajarena.- Zubikarai tar Augustin	63
On Txomin Jakakortajarena il zaigu.- Garmendia tar Tx. (Barruko azalean)	
Agur eta zorionak On Txomín.- Berrondo tar Pedro (Barruko azalean)	
Erriaren esaldí jatorrak.- Oñatibia tar Manu (Atzeko azalean)	



Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz

Zuzenbideak:
GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

ON TXOMIN JAKAKORTEJARENA IL ZAIGU

Martxoaren 25'an oeratzera goazela, teleponoaren txirriña entzun zan gure etxean. Ñor zan galdetu nuenean, "Berastegi'tik, Txomin apaiza il da Tolosa'ko Asunzion gaixotxean", erantzun zidan nere berri-emailleak. Arri eta zur gelditu nintzan; ez bainekien gaixo zabillenik ere. Baiña, larogeita sei urte ere bazeuzkan eta ezin arrituko gera ustegabeen izan dun gaixotasun eta eriotzarekin. Goza beza betiko atsedena.

On Txomin, Berastegi'ko semea; etzan ospe zalea, etzan ederbegira ibiltzea gustatzen zitzaiona. Orain dala urte batzuk, berastegitarrak omenaldi aundi bat eskeñi nai izan zioten, baiña On Txomin'ek ezetza gogor eman zien. Bere apaltasun eta ixiltasunean, arrigarritzko lanak eginda joan zaigu ordea.

Anai-arteko gerra zital artan gudarien kapillau ibilli ondoren, orduko aberzale asko bezela erbesteratu bearrean aurkitu zan. Berrogei urtetik gora igaro zituen Argentina'n (berak urte geiena igaro zituen Mones de Cason'en esango lukete zerbait), orain amairu urte etorri zan bere jaioterri maitera, baiña ez atsedentzera eta geldi egotera, arranek-ezik. Liburuak idatzi, umeairi txistua erakutsi, zer ez du egin gizon onek bere azken urtetan ere.

DIRU GUZTIA LIBURUGINTZAN GASTATU ZUN

Aide edo parienteak giñanez, artueman aundiak genitun; apaiz on baten eginkizunetatik aparte, Euskalerrria eta euskera zitun bere kezka, aurreratutako txanpon guztiak liburugintzan gastatu zituri, eta gero liburu oiek utsean banatzeko euskeraren onerako izango zirala pentsatuz. Or dauzkagu adibide bezela "Erlezaintza", "Bizitzan bi goiasmo", "Rh ezezkorra euskaldunetan" eta abar. Gaurko mundo usteldu ontan orrelako asko aurkitu ote genezazke?

Ziertu nago, Aita Santuak ez dula irakurriko "Bizitzari bi goiasmo" liburua; baina irakurriko balu, On Txomin Jakakortejarena Santu izendatuko luke. Astakeri aundi bat bota dela usteko du norbaitek, baiña irakurri dezala aitatu dedan liburu ori eta itzegingo degu.

Askorentzat bere pekatua, euskera garbiegia idazten zula izango da; ez da arritzeko, errezerkiaren mendean bizi gera-ta. Baiña, érderazko itzez deitzen diogun gauza askori euskeraz nola esan lezaioken, On Txomin'en liburutan ikasiko degu.


Martxoaren 27'ko arratsaldez ospatu zjran bere animaren aldeko illetak, bera bataiatu zan eliz ederrean, aldarea bete apaiz zala. Agur On Txomin. Egunandirarte.

TXOMIÑ GARMKÑDIA (EL DIARIO VASCO)

EUSKERAZAIÑTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



EUSKERA ETA ANTXIÑAKO EUROPA

EUSKALERRIA EUROPA'KO ERRIRIK ZAARRENA.

Gure artean egi ori ez da berria, baña kanpotik ori berori entzuteak badu bere grazia. Ona DEIA aldizkarian, Urriaren amarrean (1992), irakurri nuena: "El pueblo vasco es el más antiguo de Europa... afirmó ayer el destacado experto en genética Luca Cavalli Sforza". Italianoa da eta Genova'ko Bioteknologia Egoitzan esandako itzak dira.

Orren antzeko bat esanik dute Ana María Cobos eta Adolfo López de Muñiain (DEIA-Iraillak 3-1992) genetika arloan irakasle diranek. Ara emen euren itzak: "La evolución genética que hemos estudiado en los vascos no tiene nada que ver con las que hay en la Península (Ibérica)".

Guk ojek bagendekigun genetika gabe ere; baña, pozgarria da orrelakoak entzutea gaurkotasun aundienez. Gizakiaren asiera Afrika'n dagoela diote; Gizon Benetako Jakintsua, ordea, Cro-Magnon'eko leizean topa zuten ora; n 30.000 mila urtekoa. Uraxe da, izan ere, benetako Horno Sapiens-Sapiens, Prehistoriaren gau luzean, izugarritzko argi miresgarria zeru-sapaiean piztu zuena, margo eta marrazkiak leizeetako ormetan egin zituenean.

Eun baño koba-zulo geiago daude Europa'ko mendabal-ertzean edertasunez beteak. Oien artean Deba'ko Ekain, Aia'ko Altxerri, Kortezubi'ko Santimamiñe, Kantabria'ko Altamira eta Asturias'eko zenbait leze. Eki-aldera jotzen ba'degu, or arkituko degu Isturitz Benaparroa'n eta Pireneetako gallurretan beste zulo asko eta geiago oraindik andik gora, iparraldean, Garona eta Dordña ibai inguruan: Cro-Magnon, Madalein, Lascaux, Ruffignac eta beste orrelako leize famatuak.

Eta, auxe da azpimarratzekoa: Kultura orren ardatzean dagoela Euskalerrria, erdi-erdian. Or dago, or zegoelako iñora aldendu gabe, Kultura ori sortu zanetik: Cro-Magnon leize-zulotik gatoz zuzen-zuzenean. Gizaki arengandik

sortutakoak gera, geure bereistasunak aldean ditugula. Andik onera bere zerean irau duen azkaziarik, arrazarik, etniarik, erririk ez dago beste bat Europa osoan, euskalduna besterik.

Geu gera orduko Europa'ren sustraia edo sustratum deritzan zer ori. Jose Miguel Barandiaran susmoa artuta zegoen aspalditik eta bere susmo ori indartzera etorri ziran 1.974'garren urtean bi irakasle: bata Jean Bernard Sorbonakoa, Paris'en, eta bestea Jacques Ruffié, Toulouse'koa, gu euskaldunok Cro-Magno'netik zuzen zuzenean gatoztela diñoenak. Eta, egi orj gaurko euskaldunen odoletik sortarazi zuten.

Badakizute giza-odoletan A eta B zerki edo elementoak izaten dirala. Bate-re ez dutenek ere badira. Ortik sortzen dira lau odol-mota: O, A, B eta A+B, zerki oiek dituzten araberan. Ezer ez dutenak dira O, uts. Garbiena.

Beste zerki edo elemento bat ere izaten da giza-odoletan Rh: Macacus Rhesus tximiñoek dutena. Rhesus izenetik artu dute Rh ori. Elemento ori ez duen odola Rh-eza da; duena Rh+bai. Erderaz Rh- negativo, Rh+ positivo. Beraz, O eta Rh-eza da garbiena. Odol au Euskalerrian bezin ugaria ez da iñun Europa osoan: ugariena Zuberotan da.

Ortik atera dute gu gerala, Europa osoan, erririk zaarrena odolik garbiena geuk daukagulako. Gure mendietatik Ekiaruntz alderatzen geran neurrian ugaritzen dira B eta Rh+. Zazpi milla urte dira gaur eguneko euskal-etnia Cro-Magnon'etik bereizten asita zegoela, eta orain 5.000 urtera bereiztasun oiek, eginda zeuden. Orduko euskalduna eta gaurkoa berdiñak dira bereizketarik gabe. Ez da erri onetan etenik izan: berbera dirau ordutik onera.

Euskerari buruzko itzaldi batean zergaitik asi naizen orrelakoak esaten? Bost milla urteko gizaki ori euskalduna zalako eta izkera berezi baten jabe zalako. Berak erabili duen izkera ori, eusko-era, Europa'ko izkerarik zaarrena dalako; europeotatik sortutako izkera guztietatik bereizia; iñun senitartekorik ez duena; iñundik artu ez deguna. Erria bera bezin zaarra da bere izkera, bere eusko-era, bere euskera.

Erria Europa'ko sustrai eta sustratum ba'da, bere izkera ere izkera guztietako sustratum izango da. Fjilologia ikasten ari diranak, esandako ori begien aurrean eduki bearko dute beti, zalantza bat agertzen danean, beste arrazoirik ezean, euskeraren alde jokatzeko.

EUSKERAREN ARAZOAK.

Millaka urte auetan euskaldun-kaska-ezurrari bereiztasunak sortu zaizkio eta izkeran agertzen dan bere pentsa-moldeari ere bai. Izkera euskalduna Europan ezagutu ditugun mintzaira gustien aurrekoa dala esana daukagu; gaste-lera, berriz, latiniñaren kuma bat izanik, milla urte oraintxe bete ditu, jaiotzen asi zanetik.

España'ko mapari begiratu bat emanda gero, egia dirudi garbi-garbia. Moroak zeuden iparralderaino etorrita Peninsula osoan VIII'garren eunkian. Orduan latiña eta moroen izkera besterik ez zegoen moroen menpean. Katalunia'n katalana eta Galizia'n gallegoa. Katalunia'tik Galizia'ra euskera, latiña ez ba'zan.

Zazpireun urteko gerra luze bat sortu zan, Peninsula osoan, moroak emendik botatzeko egoalderuntz. Katalanek beera doaz eta bere izkera daramate Valencia'ko erreinora; gallegoak ere berdin egiten dute bere izkerakin Portugallean zear. Euskaldunek, berriz, latiñetik sortutako izkera berri bat daramate beeruntz. Orra or nun eta nolán jaio zan gaztelera. Katalunia eta Galizia'k beuren izkerakin doaz, euskaldunek berriz erderakin.

Baña, erdera ori euskalerara sortu zuten, euskal-izkuntzaren zenbait bereiztasunekin. Bata da izki-bokalen bereiztasuna: Bost ditu Euskerak: A E I O U. Eta bost oiek eman diskio gaztelarari latiñetik sortua izan arren eta latiñez beste bi geiago egon arren: AE OE. Latiñak zazpi ditu; baña, erderak bost, euskeraren bostak.

Euskerak, ordea, badu bere sena esanaldiak eratzeko orduan, gaztelarak gaur ez duena. "Egurra ebakitzen" esaten degu euskeraz ari geranean; erderaz, ordea "cortando leña". Alderantziz. Euskeraz, Egurra aurretik doa eta erderaz Leña atzetik. Gure Aita otoitza egitean "zeruan bezela lurrean ere" esaten degu; erderaz "así en la tierra como en el cielo". Alderantziz au ere. Erderaz, Lurra aurretik; euskeraz, Zerua aurretik.

Lenago ere esanda daukadan gertaera bat esango dizuet emen, erazo onen adierazgarri garbia dalako. Gerratean Gergori eta Pillipa'k, biak oso lodiak, bonbardeo arriskutzu batean ez zuten nai izan koba baterara igo eta berebillean gelditu ziran. Ortan daudela, etorri zitzaien miliziano erdaldun taldetxo bat:

Señoras, qué hacen ustedes aquí?

Eta Gergorik erantzun:

Este señora de hijo de auto, no poder ser andar.

Ez zioten ezertxo ere ulertu. Gerora neri Gergor'ik onela esaten zidan:

Aiek miliziano tontuak; nik garbiago esa ezin: Andre onen, este señora de, semearen, hijo de, automobilla, auto. Este señora de hijo de auto. Ez aldago klaru? Ba, ez eben ezer entenditzen.

Erderaz alderantziz esaten da: El auto es del hijo de esta señora. Gergorik itzak erdaldunak zebilzkian, baña euskeraz ari zan. Bere esanaldiaren sena euskaldun utsa zan. Amoroto'ko alaba zan, euskeraz azia eta ezia, eta erdera oso gutxi zekiena. Beste be;n nortasun agiria eskatu zioten:

Yo arriba la Churrera Gergori la Gorda, siete milicianos lavar, siete milicianos colgar en el balcón.

Itzak erdaldunak, esan-moldea euskalduna. Erderaz esan bearke leuke: Lavo a siete milicianos y cuelgo a siete milicianos. Eta ez: Siete miliciano lavar, siete milicianos colgar.

Eta auxe da gauza arrigarria: Asierako gaztelerak euskalsena zeraman begiran, gerora galdu ba'du ere. D. Manuel Lekuona'k badu gai oneri buruzko lan bat: "Euskerismos en el Castellano antiguo. (En el Fuego de Sepúlveda)". Sepúlveda erria Segovia'n dago; ez dago Euskalerrria'ren mugan, Gaztelania'n sartuta baizik. Eta onela dio Lekuona'k asieratik: "En el Castellano actual es constante que los Complementos vengan después del Verbo, y no lo precedan. Ahora bien, en el Castellano del Fuero de Sepúlveda se quebranta esta regla en tal forma y cantidad, que parece regular lo contrario... con una rara coincidencia con la Construcción vasca".

Ondoren Fuero orretan dauden adierazgarri batzuek ipintzen ditu:

"Madera tayando e llenna haciendo". Madera eta Leña atzetik bearke luteke: Tayando madera e haciendo llenna, gaur eguneko erderan; baña euskera-ren antzera "Zugaitzak ebakitzen eta egurra egiten" esaten du.

"Derecho defendiendo". Euskeraz bezala:

"Eskubideari eusten diola". Erderaz onela bear luke: Defendiendo derecho.

"Qui mal ficiere". (Qui ficiere mal, erderaz).

"Gaizki egiten duena", euskeraz.

"Qui casa apedreare". (Qui apedreare casa).

"Etxeari arrika ematen diona".

"Non pueda y facer casa, el dueño non queriendo".

"Ezin dezakeala an etxerik egin, jabeak nai ez duela".

Orrelako euskerakadak Sepulveda'ko Fueroan eun arkitu zitun D. Manuel Lekuona'ak eta or azaltzen ditu amabost orrialdetan, ondoren au atereaz: "El Euzkera ha sido un factor muy importante en la formacion de la Lengua Castellana". (IDAZ-LAÑ GUZTIAK. 8. Euskeralojia. Kardaberaz Bilduma 29. Tolosa 1.984. 188-204 orr.)

Euskal-sena bakarrik ez zion Euskerak Gastelerari eman, baita itz-mordo bat ere, guk erderaz darabilzkigunak euskaldunak direnik konturatzeke. Esate baterako: Zanahoria nola esaten da euskeraz? Zaña oria euskera utsa da.

Laister galdetuko digute, nola esaten da Zulo edo txabola euskeraz? Erderak artu ditu eurenak balira bezala. Baña, au ez da gaur eguneko Euskeraren arazorik larriena, larria izan arren.

Euskal-senari buruzkoa da gaurko Euskeraren benetako arazoa. Garai batean onela esan oi zuten: "El Euskera es una lengua que perdió la bolsa para ganar la vida". Gaur egun la Vida galduko du Bolsarik gorde gabe. Orain arte zenbait itz galduko zitun, baña ez danak, gero ikusiko degunez; eta euskal-sena gorde du. Egundo, berriz, sena galtzeko arrisku bizian dago; azal uts gelditzeko arriskuan, marraskilloak ilda gero gelditzen diran antzo.

Amoroto'ko Gergori'rena, alderantziz, gertatzen da. Ñaiko eta geiegi jende dabil Euskeraren inguruan buru erdaldunekin, kursillo batzuek eginda gero, Euskera erakusten eta beuren buruak maixukeriz agertzen. Amaren bularretik euskera ikasitakoak, berriz, buru-makur, lotsatuta bezala, kursillorik egin ez dutelako, Batua berri au ikasi ez dutelako, analfabetotzat artuta, Euskeraren arloan eskubide guztiak galdua, naiz-eta euskal-sena beuren agotik bizi-bizirik irten. A! Baña ez dakite euskararik, euskara batuarik, beuren burua euskaldun ba'dirau ere!

Maixukeria esan det eta ona emen ale bat muestrarako: Gure gerra ondoren, Franco'ren aginpean, iñork euskeraren alde jokatu ba'du, ori Iñaki Eizmendi "Basarri" izan da. Batasuna sortzen aritutako batzuek liburu bat argitaratu zuten EUSKAL ELERTI 69. Lur Editoriala 1.969. Donostia. Onela dio azken orrialdean:

"LUR... Beren autapen konseiluak Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitorja eta Ibon Sarasolarekin osaturik dagoenak euskal gaiztoko dialekto mordo;loetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-arazitzen du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskalerriaren etsaiak direla deklaritzen du. Are geiago negarreztatzen du batasun ori gonbatitzen dutenen portaera, bereiziki Eizmendi'tar Iñaki "Basarri" jaunarena, zeinak, Euskaltzaindiak Arantzatzun hartutako erabakiak onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren, bere hitzari ez dion eutsten. Seguru asko bere hitza eman zuelako batasun hura bere dialekto mordoiloan izanen zela us-tean". 547 orrialdean.

Orain ogeita lau urte argitaratuta daude itz oiek eta ori idatzi zutenean gazetxo batzuek besterik ez ziran.

Erdaldun jaiotako ume auek Basarri'ri erakutsi bear zein zan Euskera eta Euskalerriaren etsai! Beste euskaldun jator arrek esaten zuena: Once para ver hemos nacido y...!

Zenbait maixu berri batzuek, buru erdalduna izanik, erderazko senarekin idazten dute euskeraz eta, euskaldun utsa danak, ez die tutik entenditzen: Itzak euskaldunak dira, baña mintzoaren sena, erdalduna.

Urte auetan zenbat euskerazko iragarki ezer entenditzen ez diranak; ezkerak aldamenean erderaz datoztela, bestela jai dauka euskaldun irakurleak. Egia esan ez ditu iñortxok euskeraz irakurtzen eta orretarako berdin da zuzen edo oker idatzi. Ondo egiten saiatzen diranak ere badaude; baña, zabarkeria ere ugaria da. Euskal-sena ez da erreza izaten euskera jaiotzetik ikasi ez danean. Sepulveda'ko Fueroaren erderak orduan zeukan euskal-sena galduta dauka erderak eta orain Euskerari berari ari zaio galtzen erdera dala-ta. Franco'ren garaian idatzi nuena, betetzen ari zaigu gaur, ainbeste diru Euskararen alde zabaltzen ari dan une onetan. Ara zer njon:

"Euskerarengorde-lekumuiñean
sitsa sartu da arratsaldean...
Sitsak jango du euskal aria
erdalerra bihurturik Euskalerra.
Il-kanpajak joko ote digun
bildur naiz, bildur."

Erdal-sena da Euskeraren sitsa, eta Euskal-sena galtzen ba'du Euskereak, Euskera bera galduko da, erdera bihurtuko dalako. Erdaldunen buruentzat erre-zago izan dedin edo, Erromanizatu na; digute euskal mintzaira, eta, dabiltzan bidetik, bear ba'da, lortuko dute. Une aretan baj joko digula benetako il-kanpaiak.

Baserria izan da, gizaldietan zear, Euskeraren gorde-leku oparoa eta ikastola nagusia. Gaurko egunez baserri asko utsik eta zenbaitetan atserritarrak nagusi. Gelditzen diranetan, erdera ari da sartzen gelditzeke komunikabideetatik, euskal-senaren kaltean. Orduan esaten zan: Perdió la bolsa por salvar la vida. Orain, berriz: Perdió la vida sin salvar la bolsa, esan beariko dute, baserriaren babesa galduta, kale-umeek euskal-senari eraso egiten asita daudenean.

ARRI-AROA.

Bizia gorde zuan, euskal sena gorde zuan, bere zorroa era bat galdu gabe. Euskeraren zorro orretan badaude millaka urte dituzten makiñatxo bat itz. Itz eta berba oietan izkututzen da Euskalerrriaren kondaira; irakurtzen jakin bear.

Gure arbasoen kultura, marrazkien Kultura miresgarria, Arri-Aroa deritza, euren lanabesak, lanerako tresnak, arriz egiñak zirelako. Marrazki, margo eta xixilikatuak ormeetan, lanabesak, janari erreusak lurrean, oiek osatzen dute guretzako utzitako altxorra.

Gizonak erabilli zituen lenengo lanabesak egurra eta arri landugabeak ziran; baita ezur eta adarrak ere. Urteak aurrera doazela, arri oiek landu egin zitun aizkorak, aiztoak, aitzurrak, azkonak, zulakaitzak, maillu eta porrak ateratzeko. Baita karrakagailluak (raspadoreak) eta torno txikiak ezurak borobiltzeko (jostorrazak egiteko). Gaur egun gure lantegietan izan diran torno, fresadora, taladro eta bestelako lan-tresnak, oiek danak bazituzten emen Ermitiako leizean. Eskuz edo tximista-indarrez erabilli, lan-mota berdiña zan.

Arria zan gaia; orregaitik lanerako tresneria arriz egiten zuten. Aitatutako lanabes oiek (aizkora, aiztoa, aitzurra, azkona, zulakaitza) arriz egiñak ziran eta euskeraz d'ituzten itzak ere AITZA dute bere sustraian, Arria. Izenak ipiñi zituzten arriz edo aitez egiten ziranean, eta orduko itz oiek ez dira gaurdaño galdu, bitartean millaka urte pasa izan arren. Itzak diraute eta beuren esan-naia ere bai. Euskerak izen auek millaka urteetan gorde ditu beuren esan-naia aldatu gabe, naiz-eta gaia aspaldian aldatu. Gaur ez dira arriz egiten, galtzairuz, baizik. Alaz ere Ajtzezko izen zaarrek diraute.

Itzak or egon dira garraxika, guk ordea belarriak gogor eta entzuten ez beuren mintzoa. Oraindik-orain ikasi degu orduko lanabes aiek aitezekoak ziralara, aitzak;in egiñak. Gu argiak izan ba'giña, itzeetatik atera bear genduen egi ori. Arkeologiak egi ori illunpeetatik atera arte, ez gera ori asmatzeko aña izan. Eta garbiago euskerak esan ezin. Zenbat orrelakoak ote daude euskeraren alzoan gordeta, guk argira ateratzeko zail

Ñeri gertatutako bat esango dizuet. Itxaskabrak izaten dira gorri-illunak eta aitzetako arraiña da. Badira beste oien senide bat, askoz argjagoa, eta aitzetaik kanpo arrapatzen dana. Arrain onek Lekeitio'n, nere aurzaroon, Tierno-kabria izena zeukan. Urte batzuen ondoren, nik amabost urte nituela, euskaldunak bakallau-arrantzan asi ziran eta nere aita ere bai. Egun batez, bixigu bat erosteko asmoz, arrandegira agertu giñan aita eta biok. An zeuden itxura ederreko Tierno-kabra oiek eta onela esan zidan aitak:

– Kabra auek ugariak dira oso Terranovan.

Ori entzun nuen, baño belarri batetik sartu eta bestetik irten zidan. Urte geiagorot, D. Manuel Lekuona'rekin euskera ikasten ari giñala, onela esan zigun:

– Euskaldunok itz luzeak murriztu egiten dituguz.

Ñik pentzatu nuena: Bai, ortxen daukagu D. Jose Miguel Joxemjel bihurturik, Irun'go Santa Elena Xantalen eta Terranova Ternua. Orduantxe argitu zitzaidan argitxo bat kaska-ezurreko garunetan: Bai ba, Tierno-kabria Terranova'ko kabria izan, murriztuta. Lekittarrak berreun urtez Terranova'ra bidean ibilli ziran, kabra oiek ugari dauden arrantza-tokietan. Ondoren beste berreun urte andik agertu gabe, eta, bitarte orretan, Terranova izan zanik ere geiago gogoratu ez, 'memoria historikoa' zearo galduz. Ortxen egonda itza bera lekittarrei garraxika; baña, entzunik ez. Ez entzun eta ez ikusi, euskaldun guziei gertatu zaiguna arrizko lanabes eta arma zaarrekin.

NEOLITIKO EDO ARRI-LANDUAREN AROA.

Euskalduna eiztari eta arrapatzalle zan: Zeuden tokietatik artzen zituen bai animaliak eta baita lurraren emaitzak ere. Baña, orain bost milla urte, asita zegoen animaliak ezitzen: txakurra lenen, beia, auntza eta urdea ondoren, zaldia azkenen. Astoa egoaldetik sartu zan zeltiberoekin batera. Ariaren arazoa, beste arazo bat da. Ardia Euskalerrira ezita etorri zitzaigun, Ekialdetik etorri ere.

Eiztaria, eizearen billa dabil batetik bestera; artzai biurtzen danean, ordea, artaldearen ondoan bizi bear du: udaran mendigoienetan; neguan, berriz, naiz mendi-oiñen ibarretan, naiz itxas-ertzean. Eiztariaren ibillaldiak moztu egiten dira. Gerora, lurra lantzen asiko danean, orduan eta areago: Lurrak eta etxeak alkarrekin lotuta egon beariko dute. Gertakizun onek aldaketa aundiak ekarriko ditu gizakjarentzat: Aurrerantz etxea izango da gizonaren egoitza. Asierako zenbait mendi-txabol eta borda, etxe biurtuko dira; egurrezkoak lenengo, orma-etxeak geroago eta tella-etxeak azkenik.

Artzaintzak basoetako animaliak abere biurtu ditu. Larrabei, basautz eta basurdeak bei, auntz eta urde biurtu dira eta kortan aziko dituzte. Era orretara, gizonak ez du eizera joan bearrik, okelea jan nai duenean, naikoa du okel ori ikullutik artzea.

Baso-ardia falta zan gure mendietan eta D. Jose Miel Barandiaran'ek dionez, Eki-aldetik ekarri zuten, ezita gero. Beraz, andik etorri ba'zan, bere izena ere angoa izango da. Beia, auntza, urdea, zaldia bertan ezitakoak dira eta izenak ere bertakoak dira. Ekialdean ardia `arnia' izenakin ezagutzen zuten. Joan'en Ebangelioak dionez, Jesus'ek, piztu ondoren, Apostoluei ondartzan agertu zitzaientean, onela esan zion Pedro'ri: "Boske ta arnia mu": Zaindu nere ardiak. Griegoz Arnia, euskeraz Ardia. Badute alkarren itxura.

Bateren batek esan lezake, Arnia eta Ardia itzak, Europa'ko sustraietakoak izan litezkeala, euskerak griegotik artu bearrik izan gabe. Izan, izan litezke, jakin ez, ordea; baña, gaur guk ziur dakiguna auxe da: Ardirik ez zegoela Euskalerrian, eta Eki-aldean bai eta Eki-aldetik etorri zirala, ezita gero, gureraño. Beraz, andik etorri ba'ziran, euren izenekin etorriko ziran, ola gerta izan bait da beti gauza berri bat agertzen dan bakoitzeko.

Beste aldetik, berriz, ardiaren arra "aria" deritza eta latiñez ar ori Aries da eta Aries ori Griegoen Ares'etik datorrela dirudi. Ares eta Aries biak dira Ekialdekoak, aria eta ardiak etorri ziran lekukoak. Alaz ere, Ardi eta Ari itz auek, kanpotik etorritakoak izan arren, badituzte gure artean iru milla urtetik gora. Eta, zaarragoak dira Bei, Zezen, Urde, eta Zaldi izenak.

Aro onetakoa degu Aberatsa izena: Abere asko kortan zuena, uraxe zan aberatsa. Ordurarte ez zan "aberatsik", eiztari onak baizik. Eta, D. Jose Miel'ek dionez, auxe berau gertatzen da indoeuropeotarren izkeera guztietan ("El Hombre Primitivo en el País Vasco", Donostia, 1931, 66 orrialdean): Aberastasuna abere asko izatean dagoela, alegia.

Beraz, Abere, Aberatsa, Aberastasun bost milla urteko itzak dira. Gaur egun aberatsa esateko diruduna ere esaten degu eta diru itza bera ere "denario" itzatic dator, bi milla urtetik gora dituen latiñezko itzetik.

Zugaitzei buruz zer esan?

Orain emezortzi milla urte elur eta izotz aundiak zeuden gure Euskaleriko lurraldearen ingumarietan. Renoa Akitanian ugari zebillen eta Dordoñako Ruffig-

nac leize-zuloan mamut illedunak daude eun bajño geiago ormeetan marrazturik; eta rinozerontek ere ez dira falta, aiek ere illedunak. Eguraldia biguntzen joan zan neurrian alde egin zuten, emendik ifaralderuntz, reno, mamut eta rinozeronte illedunek. Tundra emen belardi eta baso biurtu zan millaka urteen poderioz eta amar milla urtetik bost millarako tarte orretan, gure baztar guztiak zugaitzez bete ziran: Urta eta aritza ziran, artearekin batera, ugarienak; ondoren zumarrak, astigarrak (tilos) eta agiñak (tejos).

Urraren atzetik agertu zan intxa-urta eta, aritza beeruntz doala, bere ordez, pagoa. Pagoak latiñ-itza dakar berekin, Fagus-fagotik bait dator. Pagoaren aurrekoak, ordea, bertako izenak dituzte arrezkeroz.

Renoak alde egin zigun ifar-aldera eta bere ordez oreiña agertu zitzaigun baso eta oianetan; malkorretan, berriz, basauntzak eta basurdeak; gaillurretan, larrabeak eta zaldiak bakoitza bere izenakin.

Ñeolitikoaren ezaugarriak auek ziran: Arrj-landua, abereen eziketa, nekazaritza eta buztjngintza. Ñekazaritzako erabiltzen dan aitz-urta tresna zaarra da, benetan: Urraren antzeko aitz.

Ñekazari arteko izen bat badegu euskeraz, "artoa" deritzana. Gaur egun artoa deia erabiltzen da maiza eta maiz-opilla esateko. Artoa, majza, Ameriketatik orain lareun urte ekarrirako alea da, maiz izenarekin agertu zana Euskalerrira. Izen orren arrastoak diraute gure artean oraindik maiza-lastoa, maiz-gona, maiz-opil euskal itzak erabiltzen diskutugunean. Maiz itzari buruz onela dio JORGE LUIS ARRIOLA idazleak bere "El libro de las Geonimias de Guatemala". Diccionario Etimológico. Ministerio de Educación. Editor José de Pineda Ibarra. Guatemala. 1.973. 133 orrialdean: "MAIZ... se originó de la voz haitiana MAHIZ... El vocablo se generalizó entre los españoles". Andik etorri zan eta, uste degu, bere jatorrizko Majz itzakin etorri zala.

Zer gertatu ote da Maiza Arto biurtzeko?

Badirudi Ameriketako maiza agertu baño lenago, bazala gure errian ogimotaren bat artoa izenekin. Arta-txiki edo izkirj-beltzekin (mijo) egindako ogia jaten ornen zuten gure aurrekoek Erromatar historiagilleek diotenez. Ura ere arloa. Maiza etorri danean, maiza ogi biurtzean, lengo ogiaren izena erantsi diote. Orra bi ogi, bi arto; berria obea, eta maizak zaarragoa zan arta-txikja baztertu du gure nekazaritzatik. Maizak arto-txikia aztu erazi eta ordañetan arto-izena beretzat artu.

Beraz, Artoa izena maizaren etorrera baño zaarragoa da gure artean. Izan ere bada grekotarren izkerean "artos" itza, ogia esan nai duena. Bear ba'da Artos ori artuko zuten arta-txikiakin egindako ogia izendatzeko. Dana dala, arto izena maiza da eta maizakin egindako ogia. Oraindik ere ikusten degu ogi ori errietako azoketan. Ñere aurtzarroan, 1.920..., bazan Lekeitio'n arto-laba bat eta egunero joaten nintzan, eguerdi-eguerdian, zati bero-bero bat eroatera gero indiarren urdaiakin jateko.

Bada Euskalerrian bertso bat (ez dakit Xenpelar'ena ez ote dan) onela dio-na:

Jainkoak nai ba'du eta
dirurikan ba' du
artoari utzita
ogia jango gu.

Gaur egun ogia itza gariakin egindakoa da; baña, garia beti izan da eskas. Gure aurrekoek burniaren truke ekarri oi zuten estranjeriatik; itxasoz ekarri ere. Gutxi eta galezia. Artoa, berriz, bertakoa zan, Ameriketatik ekarri ezkeroz, eta soroak bete zeuden. Geiago eta merkeago garia baño. Orregaitik dio bersolariak: Dirurikan ba'du(gu), artoari utzita, ogia jango gu. Gure arbasoek ez zuten garirik ezagutzen. Europatik etorritako erriek ekarri zuten gurera garia; baña, bertakoek ez zuten ezagutzen. Ipui zaarrak dionez, San Martin Txikik Jentillei arrapatu zien garia. Garia eta ogi zuria Jentillena zan, erri aberats batena. Gurea ez zan orrenbesteko maillara igo eta arta-txikiakin eta ezkurrekin egindako artoakin konformatu bear.

Griego-iztegian amairu itz topa ditut Artos iztetik datoztenak eta amairuak ogiarekin lotuta daude: Ogia egitea, ogia egiteko unea, ogia egitenduna, ogia saltzen duna (bi itz arra edo eme), ogia jatea (iru aditz), ogi jatuna eta ogi-saskia...

Griegotik artutako beste itz bat ere badala dirudi: Anoaia itza. Mendira, arratsaldea ematera, joaten giñañean onela esanten giñun amari: Ama, anoaia prestatu. Anoaia mendira eramaten dan janaria da eta griegoz Anoeon jantokia da. Alkarren arteko zer ikusirik badutela dirudi.

METAL-AROA.

Euskaldunek Arrilandu-Arotik Metal-Atoa bi milla urteen buruan, pasa ziran. Bost milla urte inguruan agertu zan Arrilandu-Aroa eta bi milla urte beranduago, orain iru milla urte dirala, Eneolitiko edo Kalkolitiko deritzan Metal-Aroa.

Aurretik esan bear degu metal-gaiak bi direla berez agertzen djrenak izakian: Bata da urrea eta bestea, zidarra. Bi metal auek dira aurrenen agertzen diranak kultura guztietan. Gerora sortzen dira kobre edo tupikia eta estañoa. Kobre eta estaino itzak Ñatur Zientziak deritzan "Jakin Hiztegiak salleko (1.976) lenengo aletik artu ditut. Baña, goazen D. José Miel'en eskutik aurrera itz auek aztertzeraz.

Lenengo ta bat, auxe azpimarratu degu: Urrea eta Zidarra edo Zillarraz, direla lenen agertzen diranak eta zaarrenak. Bi itz oiek Metal-Aro aurretikoak dira. Gerora, orain 3.000 urte, agertu zan kobrea eta gure maixuak dionez, kobreak euskeraz badu bere izena: Urraida, urrearen aidekoa dalako. Ala da izan ere. Biak, urrea eta urraida, naasten dira urre gutxiago erabiltzeko urrezko gauzak egiten.

Berdin gertatzen da Zidarra eta estañoarekin: Onek aren antza du, orregaitik bere euskerazko deia Zirraida da, Zidarraren aidekoa dalako.

Orrela emen lau itz euskaldunak dauzkagu begien aurrean: Urrea eta Urraida, Zidarra eta Zirraida. Urraida eta Zirraida (Kobre ta estaño) agertu ziran unean, bazeuden gure artean Urrea eta Zidarra, eta bi metal berri aukeratu aien senitarteko egin zituzten. Gertakizun ori itzeetatik ateratzen degun egia da: Peru izena Perurena baño lenagokoa dan bezala, Urrea Urraida baño len sortu zan. Badirudi Urraida eta Zirraida emengo bertakoak dirala, izen euskaldunak ipiñi bait zizkioten. Orrelako bi itz jator aldamenara utzita, Kobre eta Estaino artzen ditu Natur Zientziak deritzan iztegiak. Eta, orren ondoren atera diran Zientzia Hiztegiak, orrelakoak ugari baño ugariago artu dituzte gure gaurko egun auetan, Euskera bei emankorra gertatu danean. Zenbat eta geiago, aintbat eta okerrago.

Esate baterako, kobre eta estaino utzita, beste itz bat artuko det eredutzak: Eje erderazko itza ("Porque no engraso los ejes, me llaman abandonao, si a mí me gusta que suenen, pa qué los quiero engrasao"). Atagualpa Yupanki'rena). EZEI Histegia badaude beste geiago, goian aitatu deguna baño. Oietako batean Eje dator erderaz eta Ejea euskeraz. Ain errez eta ain gaizki. ("Batista Bazterretxe, mutiko pijua, nere gurdi-ardatza, nere gurdi-ardatza ostuta dijoa..." Euskal-abesti zaarra). Orrelako itz jatorra errian eduki eta Ejea aukeratu ko degu, ba?

Brontze Aroa dator ondoren.

Emen ez dago izen euskaldun bereizirik; bear ba'da, kanpotik etorrita dalako, eta bere izenakin etorri ere. Brontzea urraida eta zirraida elkaturik ateratzen da. Brontzea ez zuten euskaldunek ezagutzen indoeuropeoak guregana etorri arte; eurak bait ziran egintza orretan maixu. Urraida eta zirraida alkarrekin urturik, sortzen da brontzea. Metal berria gazteago, izena zer esanik ez.

Euskal istorian zazpi urraidazko lanabesak arkitzen dira eta sastakai edo puñal bat. Baita aizkora egiteko arrizko moldea ere. Brontzekorik, Mondrago'en arkitutako aizkora bat, indoeuropeen antzekoa.

Burnia eta galtzairua.

Burnia eta galtzairua lantzen zelta erria izan zan maixu (Hallstatt garaikoak) eta aiengandik ikasi genduen gure mendi erpiñetako gazteluetan bizi izan ziren garaian. San Martin Txiki'k arrapatu omen zien Jentillei, burnia gozatzeko (templea emateko) xistema. Gure artean bizi izan zan Indoeuropear-zelta erria, erromatar gudariek gurean agertu aurretik, galdu zan. Burni eta galtzairu itzek ordukoak bear dute izan.

Burniari buruzko erderaz erabiltzen diran euskal izenak aukeratu dira: Agoa (goa) eta Totxo (tocho). Agoa da labetik ateratzen zan alde bakoitzeko burnia eta totxo, agoaren erdia da. Bi itz aukeratu, geroago ikusiko degun bezala, gutxienez bi milla urte ba dituzte gurekin.

ERROMATARRAK ETA EUSKERA

Lendik ere esanda daukagu, gauza berriak beuren izenekin onartzen zirala eta erromatarrek gauza berri asko ekarri zituzten gurera euren izen berriekin batera.

Gure artean ibilli ziran nai zuten bezala. Ifarraldean bazuten, eurok egindako Burdeos'tik Orreaga'ra zetorren bide zabala eta andik Pamplona'ra. Bide onek Iruña'tik mendabalera jotzen zuan Sakana'ra, eta Sakana'tik Araba'n zear Pankorbo'ra.

Beste bidea luze auek erdian artzen zituzten bai Araba eta bai Ñaparroa. Gipuzkoa eta Bizkaia'ra itxasotik agertu ziran: Burdeos-Bayona-Irun eta emendik, Bilbo'raiñoko kostalde guztira. Oiartzun'go zillar- meatzak nai zituzten eta Bilbo'ko burni-meatzak. Bidasoa, Pasaia, Donosti, Getari, Deba, Artibai, Lea, Gernika-Forua'ko kaiek barkuen gau-babesak ziran, ez bait ziran egunez besterik itxasoz ibiltzen. Auek dira erromatarren kostaldeko jbillerak. Barrutik ere ibilli ziran, Ataun'en eta Zegama'n beuren arrastoak topa dituzte beintzat, Ñaparro eta Araba'ko bidetik Gipuzkoa'ra sartuak. Bizkaia'n ere badaude ArabaTik etorriak. Oso gutxi.

Gure artzai-kultura naiko mugatua eta murrizta zan: Pirenee mendietatik neguan ifar-aldera joan oi ziran artzaiek Akitanian zear Garona ibaiaren inguruan; eta egoaldera, berriz, Teruel'eko ingumarietara: Ebro eta Burdeos ziran gure artzai-kulturaren muga guztiak. Erromarena, ordea, Mediterrane-itxasoaren inguru guztian zabaltzen zan: Afrika, Asia eta Europa'n zear bide zabal ederrak urratu ondoren.

Mundu guztiko kulturen emaitzak batetik bestera zabaldu zituzten erromatarrek. Aberastasun aien aurrean zunxituta gelditu ziran gure artzai euskaldunak. Bazeukaten zer ikusi eta zer kopiatu; kopiatzen oso abillak izan bait gera beti euskaldunok, eta ez eibartarrak bakarrik.

Rodney Gallop, 1930 urtearen inguruan idatzia eta Madrid'en bigarren aldiz, 1955'ean argitaratutako LOS VASCOS liburuan, 233 orrialdean, onela dio:

"¿Dónde radica la fascinación de los Vascos? Tal vez Camille Julian haya facilitado la mejor respuesta a esta pregunta:

Cada época desaparecida -escribe- parece haber legado a la civilización vasca por lo menos una costumbre imposible de desarraigar.

Para los que se acercan a ellos sin prejuicios son los Vascos, infinitamente preciosos... como un museo viviente de la historia humana, donde puede uno estudiar todo lo que ha quedado de una Europa más antigua, desaparecida de todas partes, mas demorándose aún en este tranquilo rincón de los Pirineos".

Auxe gertatu da erromatarren kulturakin ere: Aren zenbait zerki edo elemento gure artean diraute oraindik orduan zituzten izenekin.

Porrua ez genduen ezagutzen erromatarrak etorri arte eta or daukagu eurak erabiltzen zuten izenakin: Porrum latinez, Porru euskeraz, Puerro erderaz.

Berdin gertatzen dan eurak ekarri ziguten Kipulakin: Cepulla (Kepula irakurtzen zuten latinez), Kipula euskeraz eta Cebolla erderaz. Kipularen I orreri buruz auxe esan bear degu: Euskeraz E askotan I biurtzen degula. Esate baterako or dauzkagu izenak Ennecus> Eñecus> lñeco> Iñigo. Danak dira batetik sortuak. (Ikus Euskerazaintza aldizkaria, XXI, Urrilla-Gabonilla, 8'garren orrialdean, Latiegi'tar Bixente'ren lana). Cepullaren C ori K gogorra zan erromatarren garaian; gerora aldatu dute erdaldunek Ce eta italiarrek Chi aoskatuz; baña, euskaldunek orduan artutako ots gogorrakin jarraitu dute, eurak entzundako otsakin.

Porru eta kipula orra or bi gauza erromatarrek ekarritakoak euren izenekin. Gaurko egunez porru eta kipularik gabe, zer egingo ote luteke gure sukaldariek? Porru eta kipulakin batera datoz Piperra (Piper latinez, pimiento erderaz), Baba (Faba, haba), Babarruna (Baba erromatarra), Piku (Ficum, higo), Kereiza (Cerasum-Kerasum, cereza), Gaztaña (Castanea, castaña), Olioia (Oleum, aceite), Mertxika (Persica, melocotón), Sekale (Secale, centeno), Marrubi (Marrubium, Fresa silvestre)...

Gorpua eta Gorputza latinezko Corpus da; baña, Soin eta Soiñeko, oiek euskaldunak dira.

Animalien artean Zaldi eta Asto ez dira latina; baña Zamari bai (Sagmarium, animal que llave albarda para carga) eta ortik dator Zama itza. Txorien artean Antzar (Anser, ganso) eta Aate (Anas, Anatis, Anate, pato)...

Aragi Aariki-tik etorri lezake, aari-okela jaten zuten artzaien garaikoa, txerriki eta idiki esaten dan antzera. Gero daukagu Lukainka (Lucanica, longaniza) eta abar.

Sukaldeko ontzietara ba'goaz, or daukagu Sartagi (Sartago, sartén), Kati-llu (Catillum, platillo o escudilla; esanaia aldatu diogu), Galdara (Caldaria, caldera), Lapiko (Lapis, puchero), Kollare (Coclearium, cuchara), Maindire (Mantile, mantel), Maida (Magis-magidis, artesa); baña sukaldeko arazoak euskeraz diraute: Egosi, erre, irakin. Berdin zuku, gatz, ardo, sagardo, esne, ur, ogi, opil, ore, oremaia, gazta, gaztanbera, ezti, erle, erlauntz, abaraska eta abar.

Jantzietan zerki berriak agertzen dira: Praka (Braca, pantalones), Sakela (Saccelum-a Sakel-la, bolsillo), Mainka-Mainkutsik (Manica, manga), Kapela (Capillus, cabello), Mantar (Mantum, mantillo), Kaltza-kaltzerdi (Calceus, zapato), Matase .(Mataxa, hilo), Goru (Colus, rueca), Titare (Digitale, dedal),

Liñu-liñuazi (Linum, lino), Istupa (Stuppa, estopa), Lixuba (Lixivium, lejía)...

Ardoa eta sagardoa egitean bi itz dauzkagu bereziak: Tolare (Torculare, prensa) eta Kupela (Cupa-cupel-la, tonel-tonelito) txikiak izango ziran asieran kupelak, baña gaur galantak ikusten dituguz sagardotegietan. Errementariernean ona: Ingude (Incudis, yunque), Mallua (Malleum, martillo), Aingura (Ancora, ancla), Katea (Catena, cadena), Errota (Rota, rueda)...

Etzegintzan orra batzuek: Gaztelu (Castel-lum, castillo), Dorre-Torre (Turris, torre), Gela (Cella, cuarto), Tella (Tegula, teja), Tellatu (Tegulatum, tejado). Baña, erromatarren etorrera aurretik gure artean zeudenak, aiek diraute oraindik baikoitza bere izen jatorrakin: Su, sukalde, sutauts, laatza, ikatz, egur, zuzi, gar, txingar, txinar...

Erromatarren etxeak ez zuten gure txabol eta bizitzen antzik ere. Etzegintzan, beste kultura-gaietan bezala, gorengoan malletan ebiltzen erromatarrek; gu, berriz, mendietako borda eta aitz-zuloetatik irten eziñik. Ez da ba arritzekoa, kultura-agerpen oiekin batera, itz berriak agertzea Euskalerrian. Baña, beti ere, itz oieri gure ikutua ematen diegu, batez ere, itzen luzeroa murrizten eta mozten: Tegula-tella, Tegulatum-tellatu, Torculare-tolare, Digitale-titare. Orrelakoak, etenik gabe, egin izan dituzte euskaldunek. Deba'n dituguz bi basarri, ermitak izandakoak, Doniane eta Santixo: Domine loane-Donjane, Sancte Iacob-Santixo. Eta, Gipuzkoako buru dan Donosti, Domine Sebastiane da. Orixe bai dala benetako murrizketa.

Kultura-agerpen berriek ekintza berriak sort-arazten zituzten, etzegintzan bezala, arrobi-lanetan, ermentaritzan, arosteigintzan, buztzingintzan (terra sigillata hispanica eta subgallica), mosaikogintzan, margolaritzan eta abar. Soñekoak egiteko gai berriekin moda berriak. Tresneria ere berdin. Ñekazaritzan traman-culu berriekin fruitu berriak... Dana zan berri. Bideak zer esanik ez: lengo bide-txur eta gurdi-bideak zabaldu zituzten sustraietatik berriztuz: zabal, sendo, zuzen, malkarrak legunduz, mendiak jertziz eta ibarretan zubiak jasoz...

Etxe berriak, erri berriak, bide berriak, zubi berriak eta millaka urteetan eiztari eta artzai zan Euskalerrria begiak zabal-zabal kultura agerpenezko ekaitz arreri begira. Ekaitzak Araba eta Ñaparroa'ko Ego-alde osoa jo zuan; eta Bizkai eta Gipuzkoa'an Ifarraldeko itxas-ertzak. Erromatarrek ikutu bakarrik egin zuten Bizkai-Gipuzkoa'ko biotza; baña, alaz ere, beuren kulturaren aztarnak topatzen dituguz aizkeneko mendi-baztarretan ere.

Orrek agertzen digu euskalduna ez dala iñorekin ar-emanik ez duen basati bat izan. Artzai izanik, beuren artaldeekin, orduan orain bezala, udara mendian igarotzen ba'zuan, neguan beste urrutiko tokietara alde egiten zuen, beste erri batzuen kulturaren jabe bere burua egiñik. Besteen kultur-agerpenak jasoz dituguz, baña geure kutsua emanez. Txapela ez zuen euskaldunak asma; alaz ere "boina vasca", "beret basque" deritza mundu zabalean. Berdin gertatzen da pelotarekin ere, bere sortzea Euskalerrian ez izan da ere, "pelota vasca" deritza toki guztietan.

Erromatarrek agertu-aurreko itzak ere badira gure artera zelta eta indoeuropeotarren garaian etorriak. Odei da oietakoa bat: Odeia goi-lañoa da eta euskaldun jainko-txiki bat ere bai; berak eta Aate'k, Mari'ren agindupean, lan egiten dute; badu Odei onek indoeuropeotar Odheien antza, eta ez gutxi, ura ere jainko, baña ez txikia, aundia baizik, erromatar Jupiter'en maillakoa.

Aymaric Picaud, Santiago'rako bidea egin zuen moje frantziar batek, idatzi zituan bide artako xeetasun eta zertzelada guztiak XII'garren eunkian, eta arrek dionez, euskaldunak Jaïnkoarj Urtzi deitzen ornen zioten. Urtzi, Ortz eta Ost gauza berdiñak dira eta Zeru urdiña esan nai du itz orrek berez; baña badu zer ikusirik ere tximjsta eta trumoiekin. Trumoiari Ostots, Ostroi, Ortzantz, Ozmin eta orren antzeko beste izenak ere (J.M. Barandiaran El Hombre Primitivo en el País Vasco, Zabalkundea Sorta. Itxaropena. Donostia, 1931, 86 orrialdean) esaten zaizkio. Tximistari, berriz, Oñaztar, Oñaztarri, Ozpiñarri... Aizkeneko itz auetan Thor eta Jupiter'en susmoa nabari da. Itzak euskaldunak dira; esanaia, ordea, Europarra; eurak egon bait ziran, gizaldjetan zear, gure mendi-ga;llurretan euskaldunak menperatzen eta eurak izaki gure ipuiñetako Jentillak.

Latjñetik artutako itzen bitartez auxe ikusten degu: Zintzo eutsi diola euskaldunak orduko mintzairari. Eta latiñetik artutako itzak ain garbi irauten ba'dute gaurdaño, euskaldun berba ziranak ere berdin iraungo zuten. Gaurko izkera, orduko mintzaira da eta gaurko itzak, orduko berbak. Euskerak eutsi dio bereari eta kanpotik artutakoari. Ikusiko degu gaurko egunez guk beste orrenbeste egite al degun.

Tiberio Sempronio Grako'ren garaian, 179 urte Jesus jaio aurretik, erromatarren gizarte-arteko burrukan sartuta zebiltzen euskaldunek. Orduan eraiki zuan Enperadoreak Gracurris (Grakoren-urja) Ebro-ertzean, euskaldunen lurraldean. Andik eun urteetara berriro burruka, Sertorio eta Pompeyo erromatar buruzagjen artean, eta berriro euskaldunek burrukan, Sertorio'ren alde. Ori dala-ta, Pompeyo irabazleak, Calagurrj's (Calahorra) erre zuan.

Sertorio orrek berak, Oska (Huesca) urian, ikastola bat jaso zuan Pjrenetako buruzagi euskaldunen semeentzat, ez euskera irakasteko, latiña baizik. Beraz, orduko Vascones euskaldunek latjña ikasita zeuden. Izan ere, derrigorrez ikasi bear; bestela analfabeto utsak bezala agertzen ziran adminiztrazioaren aurrean. Era guztietako agintariekin itz egiteko, euskerak ez zuen ezertarako balio. Euskaldunek ikasitako zenbait latiñezko itz eta berbak oso zaarrak ziran.

Euskeraren aurkako latiñaren erasoak 500 urtetik gora iraun zuan erromatarren eskutj'k, eta, auek alde egitean, beste orren beste bai Iberia'ko errien bitetik. Baña, ona gauza bitxi bat: Erromatarrek ekarritako jainko nagusien aldarak Liédena inguruan aurkitzen dira, San Martin de Unx alde batetik dala eta Sofuentes, bestetik. Tarte orretan daude. Onak adierazten digu naiko erromatizatuak izango zirela baztar oiek. Alaz ere, or tarte orretan, euskerak gutxie-

nez XVI'garren gizaldirarte iraun zuan bizirik. Latiñezko itzak gañean zitula, ori bai; baña, euskera.

LATIÑA ETA TOKIEN TOKIKO IZENAK.

Ainbeste urte gurekin biziaren poderioz, euren latin-kutsua utzi zieten Euskalerriko erri-izenek erromatarrek. Gai oneri buruz badu Julio Caro Baroja jaunak "Materiales para una Historia de la Lengua Vasca en su Relación con la Latina" deritzan liburua.

Lenengo orrietan euskeraren egoera argitzen digu: 1.587'tik 1.778'ra bitartean, berreun urteen buruan, ez zan Napparroa'n euskerarik batere atzeratu. Estella eta Tafalla ziran egoaldeko mugak. Estella'n eta Panplona'n euskera zan erriaren mintzaira. Geroragoko atzerakadak azaltzen dizkigu Caro Baroja'k ondorengo orrialdeetan. Berak dionez, Erdi-Aroan euskerak irauten zuan oraindik Vascones, Várdulos eta Caristios izandako erri-aldeetan; baita Autrigones-erriaren zati batean ere. Badirudi izen oiek euskaldunei ipiñi zieten denboran bazirala iru euskera gutxienez eta ori euskeraren antxiñakotasunaren adiezgarri bat da.

Gero Caro latin-izen deituraz ari zaigu luze eta zabal, zergatik eta nola aldatzen diran. Ondoren, etengabeko abiadan, erririk-erri joango zaigu euren izenen akaberak argitzen eta zeintzuk diran latifetik etorriak adierazten. Latiñezko AÑUS'etik ornen datozte AIÑ eta AÑ erri-izenen amaierak. Antonius'tik AntoniAÑUS sortzen ornen da, Peru'tik Perurena bezala. AntoniAÑUS'en AÑUS orretatik ornen datozte euskerazko AIÑ eta An, euskerazko erri izenen amaierak. Napparroa'n asko daude, Araban ere bai. Gipuzkoa'n erri auek: Andoain, Beasain, BeliarraIn, Orendain eta Zerain. Euskal idazle batzuek esan zioten AIÑ euskerazko GAIÑ'dik zetorrela... Ori ezagutu arren, berak bere temari eusten dio oietako erri asko ordekan daudelako.

Errien izenak zein giza-izenetik sortzen diran ere aitatzen du. Ona emen errien izenetik ateratzen dituen giza-izenak:

Latifetik: Asterius, Aureus, Auricus, Barbatus, Emeterius, Eusebius, Evaristus, Luperius, Macer, Marcellus, Marcus, Marius, Paternus, Sinesius, Urbicus, Valerius, Veranius.

Akitani eta Frantzi'tik: Guerin, Centulo, eta Sembus.

Iberia'tik: Orixo eta Equesius.

Euskalerritik: Anderquina, Belasco, Belaxa, García, Laquide, Muño, Sancho, Uridía, Zorraquino, Zuria eta Zurito.

Izen auek ez dira danak latifetik etorriak, baña erri berrien izenak sortzeko jokaera, ori latifetarena da. Ortik edo, ondoren au ateratzen du: Erri-izen oiek erromatarren garaikoak direla, batzuek beintzat.

Aurrerago IÑ, AÑO, AÑA, OÑO, OÑA eta AÑIA atzizkiak aitatzen ditu. Guztiak dira latiñetik sortuak. IÑ eta AÑO ez direla AIÑ atzizkiaren aldaketa bat besterik; AÑO aldatzen dala AUÑ egiteko: Atano>Ataun, Etxano>Etxaun, Elkano>Elkaun... Oien antzekoak esaten ditu AÑGO, IZ, EZ eta OZ atzizkieri buruz ere. Ñaiko korapillo badago tartean emen askatzen asteko. Eta, beste gabe goazen aurrera.

ERROMATARRAK AKITANIA'N.

Erroma uri bakar bat zan, besterik gabe. Barruko indarrak Latio deritzan bere inguruan zabaldu zitun eta andik sortu zan Latin-izkera, Latio'ren mintzaira. Italia osoan zear bere erroak luzatu zitun Mediterraneo itxasertzetik aurrera.

Oietako lerro bat zan Via Aurelia, Erroma'tik Tarragona'raiño luzatzen zana. Ara eldu orduko, lerro bat ateratzen zuen Ñarbona'tik Tolosa'ra eta emendik Burdeos'era. Bide onetatik sartu zan Erroma Akitania'ko Euskalerrian. Besoak zitun lerro onek egoalderuntz bat baño geiago, Tarragona'tik zetozen bideekin elkartzen ziranak, Pirenee-mendietan zear.

Orduko Euskalerra luze eta zabala, ertz guztietatik zegoen bidez lotuta; orrela, sarrera-mota guztietako atekak irikita zeuden. Andik aurrera edozein sartu zeikean bide oietatik; orregaitik jaso zituzten erromatarrek mendi-muiñoetan 'oppida' izenezko gaztelu sail bat. Bide-gurutzeak baziran bat baño geiago bide-lerro oietan; guk, ordea, bat izango degu begien aurrean: Legdunum Convenarum, gaur eguneko St. Bertrand de Comminges.

Estrabon eta Cesar historiagille erromatarrek ez digute euskeraren berririk zuzenean eman, baña bai zearka. Auxe esaten digute: Pirinee-inguruko erriek mintzaira berezi bat zutela, inguruko errien mintzairatik apartekoa. Mintzaira ori euskera zan. Ez erromatarren garaian bakarrik, baita gerora ere aiek aldendu ezkeroz. "Aran" deritzan aranak eta bestealdetik dauden Ribagorza eta Pallares (Lerida) Pirenee'ko aranak X'garren eunkian, euskera utzi eta katalana artu ornen zuten zuzen-zuzenean erderarik gabe.

"Valle de Aran" orren Pirenee-mendiko gaillurrean sortzen da Burdeos'en amaitzen dan Garona ibaia. Bien bitartean mako aundi bat egiten du Frantzia'n zear ibaiak, eta mako orren barruan dago Ñovempopulania, Gazkuña eta Guyena izenak izan dituen Akitania.

Erromatarrek bazuten jainkoei eta ildakoei arlosa eta aldarak jasotzeko oiterra. Euskalerra osoan daude: Bizkaia eta G; puzkoan gutxi, Araba eta Ñaparroan asko; baña, bitxienak Akitania'ko Pirenee-mendietan daude. Auetakoak batzuek Erroma'ko jainkoei eskeiñita daude, beste batzuek jainko euskaldunei; badira ere bie naastean eskeiñitakoak ere. Arlosa eta aldara oietan daude idatzirik aurkitzen diran euskal-itzik zaarrenak.

Amar milla urtetik gorako gure arbasoen testigantza koba-zulo eta bertako marrazkiek egiten dute. Orain bost milla urte, berriz, gure aurrekoen illobiak diran txikuarriek. Orduko bizitza erakusten digute; baña, testigantza oiek mintzairik gabeak dira. Erromatarren illarriek, ordea, bi milla urte inguruko euskerazko itzak dituzte. Oiek dira gure aurrekoen bizitza argitzen diguten arkeologi-aztarnak.

Arlosa oietara urreratu aurretik bi gauzatxo argitu bear ditut: Itz euskaldunak izan arren, langilleak latin-erara idatzi ditula eta, ori dala-ta, soiñu aldaketak egiten ditula izkiak bere tokitik aldatuz. Bigarren argitu bearrezko gauza auxe da: Euskaldunen buruetan izan dirala, eta badirala oraindik, zenbait siniskeri sorgiñei buruz, Mari buruz eta Mari'ren mendeko diran eta lur-azpiko eremuetan bizi diran animalia itxurazko sorgin eta jaiko-txikieiri buruz.

Ona zer esan zion D. Jose Miguel Barandian'eri, 90 urteko agure euskaldun batek, 1.943'garren urtean:

"Gizonak badu lur bat bertan bizitzeko eta bertan iltzeko. Baña, andik aruntz ez du ez aalmenik, ez aalik. Odeiak gizonen baimenik gabe dabilta gañetik. Lur-azpiko eremuetan, berriz, deabruak dira nagusi. Deabruak lur-gañera ateratzen dira animaliez jantzita eta animalia gisan. Bei-gorri, zaldi-xuri, zerri-xuri, aari ta suger...". Beigorri, Zaldixuri, Zerrigorri, Aari, Aker, Asto eta abar dira animalia itxuran dabilzan sorgin eta deabruak euskaldun zaarren buruetan. Ona batzuek:

Beigorritxo: Kobeetan bizi diren Mari eta sorgin-deabruen ipuiak badira Euskalerrian: Irari baserriko alabea bei-gorri baten itxura zuen sorgiñak eraman omen zuen bere aitz-zulora. An ikusten ornen dute txerri-gorri baten ondoan. Beste neska bat joan ornen zan Aizgorri'ra eta "bei-gorritxo" bat ikusi ornen zuen, onek neskea arrapatu eta indarrez bere leizera eraman.

Aari: Mari agertzen da Aketegi'ko aitz-zuloan aari baten gañean...

Aker: Akelarretako jauna bera da eta berak gordetzen ditu baserrietako iku;lluak gaitz guztietatik...

Asto: Bizkarrean gurutzea darama eta bidaietan lagun segurua da...

Abel, Abere, Abelgorri: Abel berez ganadua esan nai du eta Abelgorri, ganadu gorria; baña gaurko egunean zezen, idi, beiak, irizkoak abelgorri deritzate, naiz eta gorriak ez izan. Baña, gure mendietako zezen eta beiak gorriak izan dira beti. "Saka"k ere gorriak izan ditu orain urte gutxirarte, Debara Sanroketan ekarritako zezenekin naastu dituen arte. Abere itza ere, Zubero aldean zezen eta beien deitura da, beste gañontzeko Euskalerrian, berriz, zaldiena.

Animalien izenak eta siniskeriak gureraño eldu dira eta izen eta siniskeri oiek daude Pireneetako arlosetan idatzirik. Oiek ziran erromatarren garaiko euskaldunen jainkoak. Gure aurrekoek jainko biurtu zituzten animalien euskerazko itzak dira.

Onela dio Jose Miguel Barandiaran'ek bere "Mitología Vasca" liburuan, 81'garren orrialdean:

"En la mitología vasca tienen particular importancia diversos 'genios' que adoptan figuras de animales, principalmente de caballo, de toro rojo (zezengorri), de vaquilla roja (beigorri), de carnero (aari), de oveja, de macho cabrío... Habitan generalmente en antros y su función se limita a ser guardianes de tales sitios... No permiten que algunas personas penetren en su habitación. En algunos casos secuestran a jóvenes que han sido objeto de alguna maldición y las retienen como cautivas en su morada subterránea".

"En la 'época romana' debía de estar tan extendida como hoy esta mitología subterránea de nuestro país, pues hemos hallado en las cuevas de Isturitz, de Santimamiñe, de Sagastigorri, de Covairada 'monedas romanas' que, de acuerdo con la costumbre de aquel tiempo, habían sido lanzadas a tales lugares para lograr la protección de los genios cavernarios".

Euskal mitologian diraute oraindik animalia itxurazko deabru edo jainkoak; prehistoriako leize-orreetan badira jainko-deabru animalia oien irudiak; baita diru erromatarrek ere animalia oieri eskeñiak eta azkenik, animalia izenezko jainko-deabru oien arlosak. Auek sakabanatuta daude Euskalerriko mendietan; batez ere Pirenee-bizkarrean zear. Gaurko mitologia, prehistoriako irudiak, erromatarren diruak eta arlosak, danak batera agertze onek euren arteko lotura argitzen digu. Eta, euskaldunen buruetan ibilli dirala histori osoan. Gureak dira eta gureak izan dira beti.

Aztikeri eta sorginkeri ugari dago, eta egonda, euskaldunen buruetan. Aelio Lampidio idazle erromatarrek, Alexandro Severo enperadorearen bizitza idaztean, onela dio: "Aztikerietan oso zan zale eta trebea, Euskaldunen aztiak garrantzeko añaakoa". ("ut et Vascones augures vicerit". Vita A. Severii, 27.3). Izena izan degu eta izana ere bai. Orren adiezgarri dira gure mendietan dauden jainkoen arloak eta aldarak.

LUGDUNUM CONVENARUM EDO CIVITAS CONVENARUM.

Izen oiekin ezagutzen zuten erromatarrek gaurko St. Bertrand de Comminges errixka. Garona ibaiaren alboko muño batean dago. Badu garai bateko katedrala eta arri-esi galantak ere inguru guztian. Or bildu zitun Pompeio'k Pireneetatik getxi-arazi zitun Sertorio'ren alde joka zuten euskaldunak. Gerrateetan izaten diran 'campos de concentración' oietakoen antzekoa zan Lugdunum Convenarum.

Ortik gora dago Valle de Aran deritzan ballara eta Lixon'ena ere bai. Garona ibaiaren sorrera Pirenee-gallurrean dago. Andik gertu Adur ibaiarena. Bata bestetik ez aiañ urruti. Ingumari oietan daude jainko-euskaldunei eskeñitako arlosarik geienak.

JAINKO-TXIKI EDO DEABRU EUSKALDUNAK:

Euskeraz daude, baña latinezko erara. Arlosak eta aldarak arri-landuez egiñak daude eta jainkoeri eskeiñiak. Emaiegun asiera.

ARIXO DEO, Aritxo Jainkoari eskeiñia. Adur ibaiaren iturburuan dago. Ingu-ru artan dago beste bat:

MARTI ARIXONi, Marte Aritxo onari. Arlosa onetan Aritxo-on euskalduna Marte erromatarrek alkartzen da. Marte gerraren jaiko biurtu zan; orren aurretik narotasun edo ugaritasunaren jainkoa zan, Aritxo bezala. Orregaitik alkartu zituzten.

ASTO ILLUÑO DEO, Asto Illuna jainkoari. Arjtxoren arlosatik gertu. Asto Illuna erdaldun batentzako (erromatar batentzako) castaña oscuro bezela da; orregaitik argiñak ILLUNO ipiñi du eta ez ILLUNA.

BAICORRIXO DEO, Beigorritxo jainkoari. Garona ibaiaren iturburuan. Andik beera daude beste batzuek; izena aldatzen doaz beerago eta ainbat geiago. Ona izen oiek: Baigoriso, Baiorixo, Baigorisco, Baigorrix, Buaicorrix, Buaiorix... Añbeste arlosa alkarrengandik ez ain urrutian, zera agertzen digute, Bei gorriak zuen garrantzia. BEi itza BAI aldatu da, E A biurturik. Au gertatzen da euskeraz bi itz alkartzen diranean; Maite + Kunde = Maitakunde, "al formar palabras por sufijación o por unión de dos vocablos...". (Nicolás Ormaetxea "Orixe" y Martín de Oyarzabal, "El Lenguaje Vasco", Impreso en Gráficas Izarra: San Sebastián, 1.963. 11' garren orrialdean).

AHER BELSTE DEO, Aker Beltza jainkoari. Bagneres de Luchon inguruan dago. H erromatarrek K aoskatzen zuten; eta Beltse idaztean argiña naastu eginda, S tokitik aldaturik.

ABELIOÑi DEO, Abel On jainkoari. Abel berdin izan litzake zezen et bei; edo-ta Azkuek dionez auntz eta ardi. Baita ganadua, besterik gabe. Abel eta Bei jainkoek alkarrekin zer ikusirik ba ote dute? Izatekotan auxe: Beigorritxo izango litzake gaiztoa eta Abel ona bere izenak dionez. Gure ipuietan ikusi izan degu Beigorritxo deabrua edo Mari gaizkillea neskak arrapatu eta bere kobara preso eramaten. Jainko oneri eskeiñitako arlosa eta aldarak badira gutxienez bost. Oietako bat Sabinus Barhosis'ek eskeintzen du: Sabino Barkoxe'ren semeak. Barkoxe erria bada Ifaraldeko Euskalerrian.

ABERRI DEO. Abel (gorri) jainkoari. Adur ibaiaren iturburuan Arixo eta Asto Illuno topa dituguz; Garona'ren iturburuan, berriz, Baicorrixo eta Aher Belste; beerago Abel, bost aldiz gutxienez, eta Aberri, Baña, Abelgorri bein ere ez, naiz eta gaurko egunez itz ori erabilli aotan eten-gabe. Badirudi Aberri Abelgorri dala.

ERGE DEO, Ergi jainkoari. Idixko edo idi gazteari esan oi zaio Ergi. Ergi itxuran agertzen dan jainkoari.

IDIATE DEO, Idiate jainkoari. Idi badakigu zer dan. Ate edo Athe itzak badu esan berezi bat: Talde. Ar-talde esaten degun antzera esaten da Idi-ate: Idj-taldearen jainkoari.

ELE DEO. Ele da Ganadu taldea: Ganadu-taldearen jainkoari. Garibay idazleak "Milia Lasturko", euskal bertsoak dakarzki eta bertan onela diote: "Aitajaunak erejsten dau elia, amandreak apainketan obia". Erderara onela itzultzen ditu: "Su padre baxaba gran hato de ganado para sus funerarjas". Arlosako ELE itza aitatzen du Garibay'ek 1.500 urte beranduago.

EDELATi DEO, Zaldi-taldea jainkoari. Emen agertzen dira aurreko bien itzak: El(e) eta AT(e), biak alkarrekin eta esan nai berdiñakin: Taldea. Baña, aurretik Ed(e) du: Ed-El-At. Zaldiari agoan ipintzen zaion burnia da Ede. Ededun ezitako zaldiari esan oi zaio, basatjak ez djranei.

BAESERTE DEO, Basaurde jainkoari. Arrisko aldara batean dago eta aldamentean basurde bat du korrika; beraz, Baeserte izena Basurde'ren aldaketa da. Ez dago mendian, beeko ordekan baizik, St. Bertrand de Comminges'en alboan, Gourdan erriaren Basert auzoan. Ñarotasun eta ugaritasunaren irudia da basurdea. Abereak kuma asko izateak badu bere garrantzia, aberastasuna abera asko izatean bait zegoen. Harbelex Harsa'ren semeak eskeñita dago.

BOCCO HARAUSOÑi, Haraus On jainkoari. Eraus itza, H'rik gabe, urdearra da Zuberoa'n. Urde edo txerri-arrak (verrac) euskeraz itz asko ditu: Apot, aketz, ordots, errautx eta eraus. Zuberoa'n bada beste arlosa bat Haraus-gorrika'rj eskeñia. BOCCO itzak zer dion ez dakit; baña, griegoeran Bokos itzala da, eta artzai arazoekin zer ikusia dute beste Boko ori daramaten itzak. Badirudi Eraus ori ezitako txerria dala. Goragoko arlosan Basurdea izan da itz-bide eta ura ezigabeko abera basatia da; Haraus-on au, berriz, etxeko ikulluan bizi dan Txerri-ona. Gure artean esaten da txerriak dana duela ona. Basurdea eta Txerrja, biak dira narotasun eta ugaritasunaren irudiak. Bien jainkoei eskeintzen zaizkie arlosa eta aldara auek.

ERDIT eta ERDITSE jaikoeri. Abera guztien erditze ona lortzea da artzai, itzai eta unai danen arazoan elburua. Erditzea zaintzen duen jainkoa gurtu bear orretarako. Arlosa auek Toulouse ingurukoak dira, goiko gallurretatik ibarrera jexiak.

LEHEREÑÑO DEO, Lekera On jainkoari. Amalau aldiz aitatzen da gai au; batzuetan, bakarrik, bost aldiz Marte'rekin batera. Bat dago Marte'ri berari eskeñia. Gustiak daude toki berean: Ardiegia deritzan erri bateko eleizean Bax eta Toulouse'ko bidean Pirene'tatik naiko alde. Zer jaiko ote da Lekera On au? Mugika-iztegian Lekera da 'goma de pegar' eta Lekeda itzakin bat egiten duna. Lekeda, berriz, zera da: 'liga, goma de cazar, pez, gluten eta viscosidad'. Zer ikusirik ote du animalien erne-aziakin? Marte eta Aritxo alkarrekin ikusi izan ditugu arlosa auetan; Marte narotasun eta ugaritasunaren jainkoa zan, gerraren jainkoa baño lenago. Aritxo eta Marte antzekoak ziran. Lekera On au Marte'rekin lotuta agertzen da; beraz, erne-aziakjn, narotasun eta ugaritasunakin alkartzea ez litzake ain aldrebesa izango.

ILLARGIA ETA ARLOSAK.

Illargiak beti izan du abegi ona antxiñako errien artean eta gure artean ere bai, bera bait zan gaueko argia. Badaude berari eskeiñitako arlosa eta aldarak. Bagneres de Luchon'en, orain berreun urte, lurra arrotu ziran arkeologi ikerketak egiteko eta arlosa sail bat topa zuten. Aien artean zeuden illargiari buruzko auek:

ILIXOÑi DEO eta LIXIOÑi DEO, Illargitxo-Ona jainkoarj. Iru zati ezagunak daude itz oietan: IL (il-argia) (i) XO (txo) OÑ: Il-i-Txo On = Illargitxo On. Bagneres de Luchon, Bagneres de Lixon da. Bertako bañu-etxe famatuan BAL-ÑEUM LIXOÑEÑSE ipintzen du latinez bigarren aldarak dion bezala; baña, bada an diskoteka bat 'lixon' izenakin. Auek asmatu dute benetako erriaren izena. Gaueko argi-zuziari maitezko Illargitxo On 'Il-i-txo On' izenakin deitzen zioten bertako euskaldunek.

ILLUÑO DEO, Illunaren jainkoari. Asto Illuno ikusi degu aurrerago Asto Illuna esan bearrean; emen gauza berdiña gertatzen da: Ori idatzi zuen argiñari Illuna Deo ipintzeak miñ ematen zion belarrian; obeto, Illuno Deo. Jainko au illargiaren illun-aldikoa zan, zero iskututzen danean.

ILLUMBERRI DEO, Illun Berriaren jainkoari. Illunetik berriro sortzen illargia ikusten zanean, orduantxe lasaitzen ziran illunetan zeudenen biotzak.

GOAZEÑ ORAIÑ ILLARGITIK MENDIETARA.

GARR(i) DEO, Mendi-gallurraren jainkoarj. Aurreko arlosen inguruan, baño Garona ibaiean beerago. Gar ori mendi gallurra da. Ortik datoz Gar-mendia, Gar-ate, Gara-mendi, Gar-ai, Gar-aiko etxea, Etxea-gar-ate... Gar-ona ere bai; ibaiak artu du mendiaren izena. Gar-ona da ur asko dagoelako. Guía Michelin frantziarrak dionez, zazpi errekatxo daude goi artan eta guztiak dira Garona. Beraz, Gar-ona tokiaren izena da berez eta andik beera datozten urak gelditu dira deitura orrekin. Luchon'eko ibarretik irtetea, antxen dago Marignac erria eta bertan aitz zorrotz bat Pic du Gar izenakin.

CARRi, Garriri. Arlosetan C eta G askotan naasten dira: ez dakizu bat ala bestea dan. Argiñak ondo idatzi ez zuelako edo-ta gerora G'ri beko mako gastatu zaiolako. Dana dala, Carr au beste Garr aren inguruan dago, eta jainko berdiña dala argi dago.

MOÑTIBUS, SILVAÑO ET DIANA: Leku berean euskerazko Gar, latinezko Montes biurtu da; Montes Ñimidi, Mendi-baso oparoak eta baso oietan Silvanus da Basajaunaren irudia. Andik gertu daude SEX ARBORI DEO eta FAGO DEO arlosak: Sei Arbolei eta Pago jainkoei. Latiniak euskerea menperatzen.

MEÑDIETAÑ OLA-GIZOÑEK LAÑEAÑ.

AGEIO DEO /PAGAÑI FERRARIEÑSES, Agearen ja;inakoari baserriko olagizonek. `Jainko eta baserriko olagizonek' latiñez daude. Age euskeraz. Age, aga eta agai euskeraz bi esanai ditu: Alde batetik arbolen fruituak jasotzeko erabiltzen dan aga luzea, eta bestetik oletan erabiltzen dan porra edo matxinoa. Olagizonen eskeintza da eta emen porra edo matxinoa da Age ori.

ALAR, Alar jainkoari. Gauregun Alar itz au ez da bera soilki erabiltzen; baña, bai beste bateri lotuta: Alar-be (Alar gabe) basati, ezigabeko animalia, esan nai du; Alar-azle artzai da eta Alar-azi, artzaintza egin. Artzaintza ez da esigabeko abereekin egiten eta artzaia ez da basatjen zaindaria, ezitakoena baizik. Beraz Alar animalien ezitza da. Galdutako itza, arlosetan bizirik dirauena. Alar-jainkoa bearrezkoa zan, eizea utzita, animalia ezitik bizi zan erri artzai batean.

ALARDOSTO DEO, Alar-totso jainkoari. T izkia, konsonante gogor baten ondoren D biurtzen da: Alardosto Alartosto da. S ori, berriz, Aher Belsten ikusi genduen antzera, bere tokitik alde eginda dago: Alartosto, Alartotso da. Totso itzak euskeraz Agoa baten erdia esan nai du. Burnia egiteko labeetan burnimeatzari ikatza naasten zaio su egiteko. Ortik ateratzen dan burnia Agoa da eta Totso, Agoa baten erdia. Euskerazko itzak dira, naiz eta gero erderak beretzako artu, Goa eta Tocho esanaz. An;maliak ezitzen diran antzera emen burnia ezi da, orregaitik darama aurretik Alar itza. Olagizonek jainko bat bear zuten labeetatik bear bezalako burnia atera aal izateko. Orain bi milla urteko euskera bitxia.

LAKAE DEAE, Laka jainkosari. Laka itzak bi gauza esan nai ditu: aldebatetik, gurutze (grurutze-bide) eta bestetik uraren zurrubilloa. Laka jainko-emeari eskeiñiak, bi aldara ezagutzen dituguz errekak alkartzen eta gurutzaten diran tokietan. Beraz, euskerazko laka' itzaren esan-naia ondo betetzen da bi arlosa auetan. Bietako aldara bat `Consecrani'ek jasota dago. Ñor ziran Consecrani oiek? Arlosa guzti auen zerrenda egin zutenak onela diote: "Se designan con el nombre Consecrani o Consecranei, los miembros de asociaciones constituidas con algún "fin religioso, bajo la invocación de una divinidad cuyo santuario ellos sirven". Laka jainkosak ba'zitun, Consecrani oietakoak, baita elizatxoa ere bai, Garona ibaiara dijoazen bi errekatxo alkartzen diran tokian.

ERROMA-PANTEOIKO JAINKOAK.

Euskaldun izeneko jainko auen artean badaude beste batzuek ere erromatarrek ekarriak. Oien artean Jupiter, Marte, Mitra, Mater Magna, Sol Invicto, Apolo, Minerva, Tutela, Ñinfae, Dei Manes, Hercules eta abar.

Mitra (Sol Invictus Mitra) Ekialdetik (Oriente) ekarria zan Erroma'ra eta gudariek zabaldu zuten jainko onen jaiera. Leize-barrenean zituen bere irudiak, aldara gañetan, zezena iltzen. Berak ekartzen zuen egunsentia eta illuna menperatzen, eguzkia argitzeko. Mitra euskaldun onen irudia Pireneetako leize

baten atakan topa zuten, lurpean, itxasotik gora 1.288 metrotara dagoen St-Lary-Sulan auzoan. Leize onek ura dario eta kobearen gañean elizatzko bat dauka ondorengo kristauek eraikia. Urakin eta eguzkiakin alkatuta zegoen Mitra jainkoa, eta bi oiek, eguzkia eta ura, ondotxo egokitzen ziran artzai aien buruekin. Soli Invicto Deo oneri jasotako aldarak ba ziran beste bi, Ñaparroa'n, bata San Martin de Unx'en eta bestea Orreagan. Abenduaren 25'an ospatzen zuten erromatarrek `Ñatalis Solis Invicti', Eguzki Garaillearen Jaiot-eguna. Gerora, Elizak egun ori aukeratuko zuen Jesus'en Jaiotza ospatzeko.

Beste orretariko jainkoak badira Ñaparroa'n: Jupiter, Deus Maximus Peremusta, Marte Invictus, Magna Mater, Ñinfae, Dei Manes... Oien artean euskaldun-antzekoak ere bai: Losa (Lotsa) bi aldiz, Selatsa iru aldiz, Atta eta Lacubegi. Ubegi jturnaren sorburua da, eta Laku, arrizko aska. Uxue'ko ermita zaararren azpiko-aldean iturri bat dago eta, oraindik ere, toki arreri Lakobegi esaten diote Uxue'n.

Araba'ko jainko erromatarrak auek dira: Matres Useae, Lares Viales, Tutela, Ñinfae, Dei Manes... Bizkaia'ko Forua'n Ivlilia; batzuek esaten dute itz au euskalduna dala eta ibillitik datorrela. Orduan, jainko au Lares Viales izango litzake euskeraz esana. Lapurdj'n bada Genius Pagi (Pagoaren jainkoa); latinezko Fago, Pago bihurturik. Zuberoan, Aterratze'ko Soroluze auzoan, ba da jainko euskaldun bat Kerauscorrixka izenekoa. Esanda daukagu Keraus txerri-arra dala.

GIZAKIEN EUSKAL-IZENAK.

Pirenee mendietako arlosetan izen auek arkitzen dituguz: Osson Priami Filius, Otso-on Priamoren semea; Harbelex Harsi Filius, Arbel-leize Artza'ren semea; Andere Andereseni, Andere Anderes'ena; Andus, Andosso (Andotxo), Andoxus (Andotxo), Andei Deae (jainkosa Andiari); Illumberritxo Anderetxo; Cison (Gizon); Lexj Deo (Lezearen jainkoari). Eta beste erdi-purdiko itz auek: Xuban, Ulbelteso, Usece, Tullonio... Araba'n berriro Tullonio, Usarna, Helice Helasse, Liucma, Baelisto, Sandao Vimumburu. Eta auekin batera onelako au: Rodano servo Atilii filius, Tichia uxor Illuna socra (Rodano'ri... TTikia emaztea, Illuna amagiarreba). Gipuzkoa'n ez dago ezer au besterik: Oiartzun'go Adrea-riaga'ren arlosan Aebeltesonis (Akerbeltzeon'aren?) itza.

Izen-lerrokada auek amaitzeko gauza bitxi bat aitatu det eta auxe da: Larogeta amar urte Kristo jaio aurretik Turma Salluitana osatzen zuten gudari zaldunei goratzarre egiten die Ascoli'ko dokumentu batek. Gudari aien artean bederatzi Egea de los Caballeros deritzan erri euskaldunekoak ziran. Aietako baten izena Elandus Enneges zan: Elando Eñego'rena. Orra Iñigo'ren lenengo deiturak: Ennecus (Eñekus), Enneges (Eñego'rena), !ñeco, Iñigo. Izan ere Loiola'koaren izenak, Euskalerrri'ko edozein gauzak bezala, sustraiak eta erroak izaten ditu luze.

AMAITZEKO.

Euskalerriako kondairak millaka urte asko ditu bere aurretik. Baita bere mintzairak ere. Millaka urte askoko itzak topa dituguz aitzia sustrai dutenak, abereak sustrai dutenak, metalak sustrai dutenak. Beuroen zaartzaroa itzetan bertan arkitu degu; itzak eurak daramate zaartzaroaren ikurra. Beste itz guztiak, geroragoko ikurrik ez daramatenak, aiek orduko mintzairarenak dira,

Erromatarren garaian berba asko irabazi zitun euskereak kultura gai berriak asko izan ziralako eta bateren bat galdu ere bai. Latiñetik jaso dituguz ale batzuek muestrarako. Beste batzuek arlosetan billatu izan dituguz. Oiek gaurkoen antza berdin-berdiña dute. Gizaldietan zear, euskaldunen mintzaira dan euskereak, berbak gorde ditu millaka urteen buruan aldakuntzarik gabe; bere sena gorde du aldakuntzarik gabe; baita erderari eman ere, bai itzak eta bai sena. Erderak euskeraren sena galdu zuan, erdera uts bihurturik eta orain euskerari berak erantziko dio erdal kutsua.

Orain arte euskereak bere bizia gorde du, eta poltxa galdu duela esaten digute; baña, millaka urteetan itzak ondo gordetzen ere, ikusi degu. Gaurko euskeraren arazoa, bizia eta poltxa, biak batera galtzeko arriskua da. Erne, euskaldunok!

ARRIÑDA'TAR AÑES

(Euskerazaintza Akademira'ko sarrera-itzaldia. Deban, maiatzak 15. 1993)

ESAERA ZARRAK

Etorriko da Maiatza, jango doguna lebatza.

Maiatzak erdia negua.

Maiatzeko beroa, urteko balioa.

Urkoaren maitasuna, erriaren osasuna.

Ur meietan galtzen dana, ur andietan itto.

Urrezko giltzak ate guziak ideki.


Udaberriko legortea, urte guztiko gosetea.

Ugariari, dirua ta osasuna kantari.

Pakerik ez ba da, ez lanik, ez lotsarik.

Langille txarrak, atxur onik ez.

Guzurra ta errena laster jausten dira.



ARRINDA'RI ERANTZUN ARIÑA

Anes Arrinda'k, Euskerazaintza, Euskeraren Erri Akademiako oitura eta legea beteaz, sarrerako itzaldia deitzen daneko erantzule, edo maxiatzaille edo kritikari aukeratu nindunean, konturatu nitzan zeregin barria eta larria zala nireztat ori.

Arrinda urandiko txirlatan ibiliko zala igarri neban; berez, odolez, jatortasunez dagokiolako ori, eta ni izerdi likiñetan aulduta eta galduta bearko nitzala, tatarrez eta larri ibili be, ezin jarraituta.

Izan be berez datorkio gizonari bere zera, edo bere kera.

Arrinda'k sortzetik daki "Terra marique potens Lekeitio" lako armarri eta esaren barri.

Bere aita Urandietako kapitan izan zan.

Or gauzak.

Ñire aldetik ez dakit zaar, agure edo adiñeko naizen. Ba dirudi batzuk bildurtu egiten dirala ezaupide orretara eldu edo ta autoriza ori egiterakotan.

Gaur errezago edo atsegiñako artu eta iruntsiten da "esperientzidun" gizona deitzea, bizitzan asko ikusi eta ikasia. Onek arrotasun pixka bat norberegatzen dau eta bizibideko zeregin asko leundu. Eta landu.

Ñi gaur emen, Deba'n, etxean lez nago. Zegaitik etxean? "Lastur" ballera Deba ez al da? Garagartza, ez ete zan iñoiz Deba izan? Ñik dakidanez Gargartza 1882 urte arte Deba izan zan eta urte aretan Elgoibar'ekiko konponketa bitarte arekin batu.

Eta?

Ba berreun urte dira nire abizenekoak inguru oneitatik Ondarroara joan zira-la. Menditarrak. Baiña nire errian esaten dan lez, kale -baserritarrak edo antzerako lez joan be. Ango itxas lantegi, astilleruetako egur ezagule edo ortarako gaitu lez. Eta 1839 urteko Andra Mari deituretako jai baten, Andra Mari martjkoz, txalupa baten, kostarrezko arrantzara urten ziran lau lagunak, etxera biurtzean, erriaren aurre-aurrean, benetan ariskutsy zan aitz arteko gure kairako sarreran itto ziran.

Ba dirudi ondarrutar izateko itxasoari bizi eskintza egin bearra egoten zala.

Debarrak lendik itxastar izaten oituak ez ba ziran lez!

Istorian zear ezagutu izan ez ba litzake lez debatar eta lastutarren itxas-egiturarik!

Ñi, Anes'en aita gogoratuaz, sarri pentsatu izan dot, arek, bere urandiko ibilleretan, 50 bidar Terranoba, edo Ternu lurretara joan zan arek, ango makallau errietan iñoiz ikusiko ebala Jouanes Suigarai "txipiaren" il arriango San Joango iltokian 1964'n urtean lur emon eutsen euskal arrantzale aren gorpua-
ren gorde lekua, eta bear ba da, Arrinda Pysbe'ko patroï a irakurle ona zalako, iñoiz irakurriko ebala 1598' inguruan ur areitatik ibili zala Joannes Zurikarai, au itxas maisu ospetsua.

Suigarai deitu, nai Zurikarai, azken baten danak erri batekoak. Danak odol bateko. Danak euskal zar. Danak erri euskeradun.

Arrinda'k, bere itzaldiko tarte baten "Aita gurea" gogoratuaz, euskeraren erabilkera bereizteko aipatu dau euskaldunok "zeruan bezela lurrean ere" esaten dogula eta erdaldunak, ori berori, así en la tierra como en el cielo" errepi-
katu.

Esatea lez gure egitura ala dalako, zerua beti aurretik. Ñik esango neuke itxasoa egitura ala dalako, zerua beti aurretik. Ñik esango neuke itxasoa sartuko ba genduke be, zerua beti aurretik erabiliko gendukela, "zeruan bezela lurrean eta itxasoan ere" esan bearko gendukelako.

"Zelan zeruan ala lurrean" guk txikitán ikasi gendun lez.

Gure izketaren edo izketako lege jatorra. Berezkoa.

batek baiño geiagok esango leukie, batez be euskera Igarleen denboretara daroenak, Urtzi baten gogamena euskeraren legeetan irarria dala.

Gogamen ori erabili ebala dirudi Bizkai'ko Enkarterrietako seme zan Anton Trueba zanak, "Anton el de los Cantares"ek, alako a idatzi ebanean: Otoitz egiten ez dakiana - joan bedi itxasora - eta ikusiko dau zein erraz ikasten dan - iñoik erakutsi baga.

Onetan, bereala, euskal sena datorkit burura. Arrinda'k bere jardunean ain setatsu aitatu, erabili, goratu eta era berean aldeztuten alegindu dan euskal sena.

(tzaz itz, berbak berba, latiñetik artu doguzala?)

Latiñetik etorri arren euskaldunok maite dogu pagoa. Latiñezko faguz. Eta beste asko. Zegaitik ez, batez ere emengo ur, emengo lur, eta emengo zimaur eta emengo giroz ikusten ba dogu? Gauza or dago.

Arrinda'k gain gaiñez, jo ta pasa baten, askoren azterketa-gaitzat itxita, euskeran ainbat berba sortu zituen Ñeolitiko edo Arri-landuaren aroa, Metal aroa, brontze aroa eta abar, bakoitzak ekarri edo sortu arazi dauskuzan itzakin gogoratu dauskuz. Eta gureak dira, ezin ukatu.

Orretan Camille Julian'en esaera gogoragarritzat aipatu dausku: Igarotako aro bakoitzak kendu eziñeko oitura bat itxi dauskula euskaldunoi.

Oitura da deituren jatortasuna ere.

Erromatarren gure arteko egoera nabari, eraginkor eta ezarkor izan zan gu-
retzat. Arrinda'k etenbako jardun baten gogoratu dauskuz Cepulla (kipula), Porrum (porrua); piperra, latiñez piper; bada, piku, gaztaiña, olioia (oleum) eta abar ugari.

Eta sukaldeko itzak.

Eta jantziak: prakak (braca) eta abar.

Pozik aitatuko neukez, baiña ez zaituet nekatu nai.

Eta bizilekuetan: Gaztelu, torre edo dorre, tellatu. Oneik euren, erromatarren egiturak ziran. Gureak txabola, borda ta abar.

Kultura agerpenak, bideak eta abar, gauza barriak artzeko edo ikasteko izan ziran.

Baiña geurera eratu doguz. Arrinda;k diñona: ez gara basatiak izan, aurre-rakoiak baiño. Eta gure jantziz etxerakotu doguz. gaur euskal senak darbilguz.

Latiñaren joera nai ta ezkoa zan guretzat. Baiña Arrinda'k gogoratu dausku: Latiniñetik artutako itzen ibartez zintzo eutsi diola euskaldunak orduko mintzairari. Eta latiniñetik artutako itzak ain garbi irauten ba dute gaurdaño, euskaldun berba ziranak ere bardin iraungo zuten. Gaurko izkera orduko mintzaira da eta gaurko itzak orduko bertabat, Euskerak eutsi dio bereari eta kanpotik artutakoari. Ikusiko degu gaurko egunez guk beste orrenbeste egiten degun!

Ori da, batez be, gaur dogun zemaia.

Lengo batzuk artu doguzala?

Gaur be ez gara gaurko batzuk artzera ukatzen. Ñai ta ez artu bear doguz. Baiña beti ere euskal kutsurik galdu barik. Euskal legean eta euskal senak sartuta, ez erdal sena eta egitura gureari artu eragiteko asmo edo arriskuz.

Arrinda'k kondaira idazle bi izentatu ditu. Estrabon eta Cesar. Eta areik esaten ebena gogoratu: "Pirinee inguruko erriak mintzaira berezi bat zutela, berbeta berezi bat, euren jatorra, inguruko errien m!ntzairatik aparteko. Eta mintzaira ori, euskera zan. Eta ez erromatarren garaian bakarrik, bai areik alden-duta gero ere".

Mintzairagaz batera, oituren erakutsi eta berberaz. Eta irudiak. Arrinda'k gogoratu dauana: Erromatarren illarriak bi milla urte inguruko euskerazko itzak dituela.

Baiña itz euskaldunak izanarren, langilleak latinaren erara idatzi dituela, ori dala-ta, soiñu aldaketak egiten ditula iziak bere tokitik aldatuz,

Gaurko pekatua edo gaurko arriskua beintzat.

Jainko-txiki eta deabru euskaldunekin gertatzen dan: Euskal gar asko euki bear, euskera dirala igarri eta esateko.

Ara batzuk:

Arixo Deo = Aritxo Jainkoa.

Marti Arixonon = Marti Aritxo onari.

Asto illuna Deo = Asto illuna Jainkoari.

Baikorrixo Deo = Beigorritxo Jainkoari.

Aberi Deo = Abel (gorri) Jainkoari.'

Eta Arrindak gogoratu dauskun zerrenda luzeak, ez al dauskuz gogoratzen gaurko egunetan, latiniñaren seme bategaz toki askotan gertatzen diran komediak?

Azken baten ondoren ziur bat: Euskalerriko kondairak millak urte ditula bere aurretik. Baita bere mintzairak ere.

Eta beste au, guretzat mingarri eta argalkeri baten ezaugarri dana: Erderak euskeraren sena galdu zuan, erdera uts biurturik, eta orain euskerari berak erantziko dio erdal kutsua.

Amaitzera nua.

Aurrez, Arrinda'ren esanak sendotzeko, adibide bi:

Gaur, idatzi beste era batera egiten da. Ia idazkera bardiña darabilgu euskera eta gaztelaniaz.

Baiña gaur be, esateko, Luzaide'ko lñauterietan AXETATUPIÑ, idazten dan bezela idatziat... euskal sudur luzea bear da orren euskal esanaia ulertzeko. Eta Axeri ta Tupiña alkartutako berba bat baiño ez da.

Edo ta Galarrosak. Ez al da joale arrotsak?

Eta urrunera joan barik, emendik sei millatara dago Ondarroa. Ango barra-ko muturrean aitz zati bat dago. gure zarrak barrako muturra deitzen ekien. Geroagokoak Puntako Aitza edo Atxa. Ba dakizue zelan agertzen dan oraingo itxas-mapa batzuetan?

Punta de Koatx. Eutsi orreri. Aitz ori billatu ete eban ingiñeruren bat ete da Koatx ori?

Lenengotik esan dot, edo erakusten emon nai izan dot, ni itzaldiaren ma-ziatzaille edo kritikari barik, etxeko lez jardungo nitzala itzaldiaren gogoratzaille edo beste tarte batzuen berresale lez.

Or amaitzen da nire lana.

Txaloak berari, baiña bai eskari bat be danori: Gogoz eta astiro irakurri bere itzaldia. Merezi dau. Eta batez be berak ainbestetan eskatzen dauan ondorena billatu: euskal sena, euskereari bizi eta jator iraun erazteko bearrezkoena.

Euskera jatorra erabilteak, euskerari biziten lagunduko dautso. Euskera er-deratuak, erdaldun biurtuko gaitu. Ori da gaurko zemaia.

ZUBIKARAI TAR AUGUSTIÑ

EUSKERA JATOR ETA BIZI -BIZIA?

Behe-etxea = Planta baja

(Bilbao'ko Santa Marina gaixotetxean).

Ño fumar = Ez erretzen

(Bilbao'ko Erakustazokan).

Prensa errubera = Rueda de prensa

(Entzuna).

Gaur amaituko da etapa Urrezko Ama Birjiñan.

(Ez dira konturatu Araba'n ORO tokiaren izena danik).

Exclusibo prezioak.

(EKO saltoki katearen iragarkietan).

II-txartel ugaritan, ildakoaren ogibidea dendaria izan dala adierazteko, erderazko "del comercio" era onetan euskeratzen dakie: dendatik.

(Ñoiz-nai irakurri leikez egunkarietan antzerako urteerak).

Apirillaren 28'an, A.G. jaunaren il-txarteletan:

"El Diario Vasco"n: Egille. (Bizibidez).

"Deia"n: "Konstruktore".

(Gure zarrak ba ekien etxegiña esaten).

"Zure Consum supermerkatuan, interes eta atenzioaren zurrunbiloan sentituko zara..,

(E-Consum iragarkietan).



EUZKERAREN EHAZTASUNAK ETA ZAILTASUNAK

Beste ainbeste ta ainbeste arazoetan bezela, euzkera izkuntzan ere bada goz e aztasunak eta zailtasunak; beraz, euzkerari buruz ezta guzia zafa geyenetan uste dan bezela, ta egokia izango zaigu ortaz be auzia bera dan légez ikustea.

Aspaldidanik orixe izan da beti gure izkuntza onek izan duen aomena, zala oso zala dala, ta ez lagun a untaen artean bakarik, jakitunak asko orixe uste izan dute, etxetik at eta etxean bertan ere, eta nola!. España'ko Erdalzaindi'aren'iztegi nagusian onela esaten da: Euskera, ain zala dalako, ulertzeko eziña dana da. Esate ori gaur guretzat benetan bakana da ta pa ega ia izan bear. Eta lagun a untaen artean iritzia euzkera kiskun-kaskun itzegiten dala izan da beti.

Guizti ortan geyegikerietan ibiltzea izan da, ta egokia izango zaigu, guretzat beñepein, arazoa bera dan bezela ikustea ta adieraztea; ta asieran diñogunez ba-dauzka euzkerak zalak diran azpegi batzuk, baña bai ta e ezak diranak ere. Goazen, o engatik, batzuk eta besteak begiratzen; e aztasunetaz asiko gera lantxo ontan.

Gure iduriko euzkerak duen lenengo e aztasuna bere egitura da, ots, bere eliztia. Bai, elizti ori argi, bidezko ta guztiz ulerga ia da; bere arauak ere orela agertzen dira ta, bat edo bat izanezik, eztitu alderatzekoak; orela oso araudun eta neu iduna da. Gogo-lantzean oso au eratuta dagozen izkuntzetan, aitzitik, alderatzeko taz beterik dagozela ikusten da ta orixe dugu oyentzat beren zailtasun aundia; argi dago oyek gizonek egiñak dirala ta, o engatik edo, alderatzekoak sortu bear. Euzkera, alderantziz, oso berezkoa dala esan diteke, nork eta nun sortua dala iñork jakin gabe, ta ori jakitea guztiok jakin nai-izango genuke, etxeokoak eta mintzaira-jakintzan ari diranak ere; gaurkotz eziña dirudi ori lortzea, baña edozein eran emen, guregan, daukagu gure euzkera, o'ren arauduna agertzen eta bertan dagoen e aztasuna erakusten.

Arauketa ortan aditzarena azaltzen da nabari-nabari, ta aditz-jokoan daukagun ainbeste eraetan barna orixe da garbi ikusten dana, guztiz araudunak dirala.

Ona emen baste e aztasuna: euzkerak eztarabil gauzaetarako kunde-berezitasunik, oyetan kunderik eztagoelako, beraz bearik ez ortaz berezitasunik egitea. Zentzundunengan bai, ordea, ta ongi egiten da ori bakoitzari bere ize-

na ematean; noski eziña da zentzundun guztiai beren izen berezia ematea, ta orduan ba-ditu bi atzizki, a a naiz emea izendatzeko; e.b.: otsoa eta otsoeme, katua eta katueme, usoa eta usoeme, ta aba . Beraz, gauzaetarako ori egitea bea a ezalako, mugitza bat baka ik dago baka arentzat eta beste bat aska arentzat; e.b.: a ia ta a iak, mendia ta mendiak, soloa ta soloak, eta aba . Eta bi mugitza oyek zentzundunentzat ere darabilzkgigu: otsoa a ta otsoemea, otsoafak eta otsoemeak.

E aztasun berbera izen-jokoan ere agertzen da ta mugarazleak berberak dira zentzungabeko entzat eta zentzundunentzat be; onela: gizon au, ori ta ura; ah au, ori ta ura, baka arentzat; eta gizon auk, oyek eta ayek; a i auk, oyek eta ayek, aska arentzat; iñorengan arkunde ta emakunde-berezitasunik egin gabe.

Beste e aztasuna: izenak aditzetan biurtzeko, ta alderantziz, aditzak izenetan ere, bi atzizki erabiltzean; e.b.: gizon (izena) + -du = gizondu (aditza); ikusi (aditza) + -te = ikuste (izena).

Itz-alkartze ta itz eratortzerako, e aztasun oso aundia du euzkerak. Lenengoa toki-izenetan agertzen da e uz: landa + buru = landaburu; egu + aldi = eguraldi; agin + alde = agiñalde; ola + bide = olabide, ta aba . Biga ena onela: apaiz + -go = apaizgo; idatzi + -le = idazle; a i + -ga i = a iga i; ta aba . IIsusten danez, eratortze au atzizkien bitartez egiten da, ta ba-dagoz euzkeraz be eun atzizki baño geyago.

Goazen orain zailtasunak ikustera: Lenengoa ta apika aundiena ere, soñu batzuen (lauren bat) abotsiztiari dagokiona da, Z ta S eta TZ ta TS izkien bidez adierazten ditugun soñuai dagokiena. Bat-banaka artu ezker, eztago zailtasunik ongi berezita dagozelako; zailtasuna bikonde bi oyetan agertzen diran bi soñuak alka i buruz bereiztean dago aipatzen dugun zailtasuna.

Bai, Z ta S izkien bi soñuak alka ekiko oso ondoan dagoz, soñu-maladian barna; ta alka i buruz ain urbil agertzen diralako, toki askotan biga en soñuaz oguzten dira naiz izki bat naiz besteak adierazten dituztenak. Ñaste ori, gañera, inda ez erabili bea dugun erderak ere laguntzen du; ona ornen nola ta zergatik: ego-aldeko erderak bi izki oyen bidez age erazten dituzten soñuak alka etik oso u utian ematen dira ta, ori dala-ta, eziña da ortan nasterik izatea, ta euzkeraz eztaikienak gure Z entzuten duenean, bere soñua, biguna dalako, S'az egiña bezela artzen du; o ela ta ofengatik gaur itzak asko Z'tzaz egiñak agertu ordez, S'tzaz egiñak bezela agertzen dira, batez ere abizenetan aunitz. O a, bada, gurea dan zailtasun ori erderaren eragiteagatik zalagoa egin zaiguna; ori dala-ta, geron ustez, lenengo ikastoletan asi-ta alegiñak egin beaf-izango genituzke soñu bi oyek ongi ematen ikasteko ta bide batez bakoitza besteaz ez nastutzeko.

Z ta S'az gertatzen dana, oyetatik sortzen diran TZ ta TS diranean orobat gertatzen da, berak alka i buruz nastea. Ta auxe be gogoratzekoa dugu, ots, itz bakoitzerako Z'z oguzi ta idatzi ezker zentzun berezia ematen da, ta S'z egiten bada beste zentzuna; e.b.: azi ta asi, zu ta su, auzi ta ausi, zori ta sori, ta abaf; atzo ta atso, otz ta ots, utz ta uts, atzeman eta atseman, eta aba .

Beste zailtasuna, ika'zko deitzen dan aditz jokoan agertzen da, bertan nori itzegiten zayon, ab ala emea izanik, begiratu bea dalako, era bat ala beste bat erabiltzeko. Jokera oso berezia da ori, beste izkuntzetan agertzen ez dana, ta o engatik ain zuzen sortzen da zailtasuna.


Ikastoletan euzkera, irakasteko ta ikasteko bide bezela ez erabiltzeagatik sortzen zaigu beste zailtasuna, gaur oso nabari agertzen dana; e i bakoitzean itz bera erabiltzeko sortu dan era berezia; zio o engatik izkuntza tinkotu gabe daukagu ta erabiltze oek sortu-eragin dizkigu amaika bereizkuntzak, eta eh bakoitzean, ia geyenetan, ofela izkuntzaren batasunerako, bakoitza eragozpena izatean; bereizkuntza oyen artean laburpenak ere azaltzen dira bereziki.

Izkelgien artean be, ba-dagoz ezberdintasun batzuk, nolabait zailtasuna ere izateko, baña egitan ezberdintasun oyek ez dira aundiak; eta e az ikasi ditezke; o engatik zailtasun oek eztu ga antzi aundirik; ala ere emen aipatzen dugu, ikasten ez duenarentzat bederen zailtasuna bezela agertzen dalako.

Guzti o engatik argi agertzen da euzkera ikastoletan eta irakaskintza guzian, irakasteko ta ikasteko bide bezela erabiltzea, nolako bea a dugun. Geron gardiz, ortan dago gure E i'arentzat ebazkizun aundiena, ain zuzen gure izkuntza ta gure gogoari ain ertsiki dagokielako. Euzkal-biziak euzkal-gogoa izan eta erabiltzea ditu ezinbestekoak, izan al-izateko, ta eziña bezela agertzen da euzkal-gogoa euzkeraz eutsita ezpadago. Alakotz, euzkera, euzkal-gogoa ta euzkal-bizia kate baten ereztunak bezela agertzen zaizkigu, alka ekin gure ebazkizun aundien ori betetzean. Gure E ia benetan Euzkal-Eh izan eta bizi-izateko, o ikusi bea dugu erabiltzeko bidea zein dugun, eztago ta ezin egon diteke besterik.

Ortatik ere euzkaldun guzientzako eginbide bera zein eta nolakoa dan garbi oartu dezakegu baitezpadako ondorioa lez; Euzkera ondo ta sakon ikastea ta gero eten gabe ta gauza guztietarako erabiltzea ere, batik bat oldozteko. Ta guzientzako elburu berezi ta bea ena ortaraño eltzea dugu; egitan orixe baitala baldintza ertsia gure E ia azke bizi izatean au eruntz Euzkal-E ia beti izan ditek.

U ESTARAZU'TAR AÑDOÑI



EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK (1992.5.29)

Erabakiak agertzen dituden orrien 3. ayekan irakurri nituanekiñ arriturik eta izaturik gelditu nintzan. Euskaltzaindiá'n euskaldunok euskeraz nola egiten dugun dakianik ez al da?

"Bukaeran la duten maileguzko (hobe: nazioarteko) kultur hitzak":

(Ederki, zearo bat natorr; aski litzake i ondorengo a ori bereizte-atzizkia dala esatea, "artikuloa" alegia.)

Bukaeran "tura" duten... kultur, arkitektur, literatur... egin bear dirala! Baiña euskeraz ari al gera ala alemanez? (Kultur, Architektur, Literatur, baiña oyetaz kanpo beste aukerak ere erabiltzen ditude: Bildung, Baukunst, Schriftsprache (lenguaje literario), Schriftsteller (autor literario), Schriftum (literatura sobre un asunto), Schriztentum (literatura, conjunto de obras literarias de una nación) "Bestelakook horm irudiak, eskol orduak, gramatik arauak, fonetik legea." Euskaldunok sekula santan eztugu orrelakorik egiten. Ona beti-beti beren a kentzeke esaten ditugun arrotz-itx mordoska bat:

benta (ostatua), borda, arraspa, lima, zerra, berba, azoka, bata, bruxa, bandera, duda, bonbilla, arma, eskopeta, pistola, karabina, errota (errueda), broma, txantxa, gela, sala, errenta, botika, galtza, gona (it.gona), karta (it. carta)papera), aixa, dantza, landa (Land, GB, D, ÑL, A, DK, Ñ, S, IS), meta (lat.cono), merienda, tortilla, pala, padera, marmita, presa (gazt. prisa), pezeta, libera, kitarra (it. chitarra), pena, pana (euna), errada (sulla), manera, erremolaxa, metxa, kaxa, makina, mariposa (aurra nintzanean ingoma Usurbill'en, orain mariposa), motxila, orma (gazt horma), [KO] loka, kana, soka, toka Oolasa), meza, mesilla, sepultura, eliza, grasa, zapata, zapatilla, ezpata, kuma (seaska), joskura, juntura, grima, estaka (baldoa), tapa, pasta, plaza, botilla, lañeza, sarna, egoista, organista, zintza.

Ñere larogeita bat garren urtean naiz, baiña beiñ ere eztut **eskol-maixu** esaten entzun.

NOR NAHI / NOR-NAHI / NORNAHI

zer nahi, zein nahi, non nahi, nora nahi, nola nahi, ...

Esakera oyek guztiak gaztelani utsa dira, euskerak sekulan onartu bearr elitukenak. Gogoratu:

quienquiera—nor nahi; cualquiera — zein nahi; dondequiera, doquier — non nahi; comoquiera —nola nahi; cuandoquiera—noiz nahi....

Euskera jatorrez egokiagorik badugu:

edonor; edozer; edozeiñ; edonon; edonola, edozelan; edonoiz....

Eta beste izkuntzetan esaera luzez adierazi bearke litezken asko: edonori; edonork; edonoren; edozertaz; edozerezko; edozeiñi; edozeiñen; edonongo; edonora; edonondik; edonoizko; edonoiztik; edonolako; edozertarako; edozerk (asarretzen du); edozergatik (asarretzen da); Rudolf de Rijk'en "Beknopte guipuzkoaans-nederlandse woordenlijst" liburuan onako auek dagode:

nun-nai—waar u maar wilt; noiznai--wanneer men maar wil; elk ogenblik; nolanai—hoe u maar wilt, willekeurig; noranai—waar heen dan ook, waarheen u maar wilt; nornai—wie dan ook, de eerste de beste.

Sachs-Villate aleman-prantzes iztegian onako auek:

irgend etwas (edozer)—quelque chose, (unverbunden) n'importe quoi; irgend jemanden--n'importe qui (edonor); irgend ein (Buch)--n'importe quel (livre) (edozein (liburu)); auf irgend eine Art—d'une façon quelconque, de n'importe quelle façon; (edonola); irgend einer quelqu'un, une personne quelconque, n'importe qui, n'importe lequel; (edonor); irgend wann—un jour, n'importe quand, á n'importe quel moment; (edonoiz); irgend wo--n'importe où, quelque part, dans un endroit quelconque (edonon).

Argi dago edo- aurreizkiaren bidez beste izkuntzetan baiño askoz errezago eta egokiago sortzen ditugula.

ÑOR/ÑORTZUK, ZER/ZERTZUK, ZEIÑ/ZEIÑTZUK

"Euskal literatur tradizioa" nere ustez oso balio kaxkarrekoa da. Izan ere' ia osorik itzulpenez egiña da: latiñetik, prantzesetik eta gaztelaratik egindako itzulpenak. Eta itzulpenak gutxi edo asko'itzulpen usaya botatzen dute. Itzulpen-usaya batzutan, eta askotan itzulpen-urriña.

Didurinez' batzordeak nor / nortzuk bezelakoak besterik eztitu aipatzen edo onartzen, baiña beste zerbait ere gogoratu bear dugu. Esate baterakó' onako auek:

¿Quién ha venido? ¿Ñor etorri da?

¿Quién ha traído esto? ¿Au nork ekarri du?

¿Quiénes han venido? ¿Ñortzu etorri dira?

¿Quiénes han traído esto? ¿Au nortzuk ekarri dute?

¿A quién has visto? ¿Ñor ikusi duk?

¿A quienes has visto? ¿Ñortzu ikusi dituk?

¿Quién te ha visto? ¿Ñork ikusi au?

¿Quienes te han visto? ¿Ñortzuk ikusi aude?

Gaztelaniz ia iñork eztitu "quienes" oyeke esaten: beti "quién" bakarrik esan oi dute. Eta gaztelanitik itzultzerakoan "quién" ordeze beti "nor" ezta arritzekoa, ta barkatzekoa ere ez. "Euskal literatur tradizioan" nortzu orregatik ezta agertzen.

Prantzesarekiñ ere berdintsu gertatzen da:

Qui as tu vu? (¿Ñor ikusi duk?). Qui t'a vu? (¿Ñork ikusi au?)

Qui est venu? (¿Ñor etorri da?). Qui a acheté ceci? (¿Au nork erosi du?). Qui sont ceux qui ont porté ceci? (¿Au nortzuk ekarri dute?). Qui sont ceux qui tu as vu? (¿Ñortzu ikusi dituk?)

Tu as vu un homme. (Gizon bat ikusi duk.) Tu as vu quelques hommes. (Gizon batzu ikusi dituk.) Un homme t'a vu. (gizon batek ikusi au)

Quelques hommes t'ont vu. (Gizon-batzuk ikusi aude)

Ñortzu, zeintzu eta zertzuz ere bear-bearrekoak dituguna'argi ta garbi dago-la uste dut.

ZATARAIÑ DAR AMBROSI

DUAN ETA DUEN

Bein Mitxelena zanari onako au esan nion: Iparralde'ko "erran duen egia" bezelakoak, Gipuzkoa'ko Goyeri'n eta Arratia-aldean, eta bereziki Azpeiti'n egiten dan bezela "i" eta "u" ondorengo "a" letra "e" biurtzea besterik ez tira: mendia > mendie? > burua > burue aita > aite, eguna > egune... Mixelena'ren erantzuna: Iparraldea'n orrelakorik ezta gertatzen; an gertatzen dana beste au da: du + en = duen; zu + en = zuen eta abarr.

Lhande-Lafitte iztegian onako auek ediren ditut:

aiharr, aiherr; aiherr; ainhara, añhera; aisatasun, aisetasun; anaia, anaie; aphi-rill a, aphi-rile; arraultza, arraultze; aitzaki, aitzeki; beira, beire; bigarren, bigerren; laugarren, laugerren; seigarren, seigerren; zazpigarren, zazpigerren; bidarr, biderr; eihara, eihera; ikatz, iketz; ik(h)arr, ik(h)err; iraste, ireiste; ir aiz, ireiz; istarra, isterr; ixa, ix e; ixardekatu, ixerdekatü; iztarr, izterr, ixterr; mugarri, mugerri; oihan, oihen; oiharr, oiherr; Piarres, Pierres; seillaru, seilleru; izai, ize; iztai, iztei; tinka, tinke; uharr, uherr, ukhan, ukhen; zildarr, zilderr; ziparr, ziperr; zital, zitel; zizailu, zizeilu. Aztelanziko jicara, khikera, kikera.

Orrela garbi dago hasi dan, hasi den; burtu dan, burutu den" eta beste orrela-ko asko ere nola sortu diran. (diren).

Ego aldean, Gipuzkoa'n beintzat bai' onela esaten ditugu: onek ekarri duan liburua; oyek ekarri duen liburua. Zuberoa'n **due** ordez **düe>die** esaten da. **Duan** esan bearrean **duen** esaten dan euskalkietan **duen'en** ordez **duten** esatera jo da. ¿Ñondik sortu da "t" ori? Onentzako erantzun argia aspaldiko esaera-bilduma batean dago: "Refranes y Sentencias" Urkixo'k RIEV' en agertu zuan liburuan.

3. Aberatsok jaya **daude**, txiro gaxook beti neke; auzook bere igui **daude** beti dabillena eske. (Ikusiko dugunez' **daude** ori oraingo **dabe** da).

54. Jabe bat **daude** asko baratzeak eta emazteak, ze geiago laukee gaixo.

85. Jaunak asko **daude**, geyago bear **daude**.

414. Gaxtoak **daude** huzen geyago urdebarruak bano.

316. Andra guztiok ertzeti erabiliko **au**de beti. (Orain Bizkai-aldean **abe** esaten da, Gipuzkoa;n berri **au**e).

Letra bakarti-artean **d** galtzea maiz gertatzen da. Gizpuzkoa'n **au**de ordez **au**e bezela' **dude** ordez **due** esatera jo dugu, Zuberoa'n berriz **düde** esatetj;k **düe** esatera eta ondoren **die** esatera.

Ñorbaitek **d** ori nere ametsa dala, edo gutxienez ere txit aspaldiko gauza dala badio' **d** ori euskalki guztietan oraindik bizi dala esan bearko dut. Oraindik bizi da, baiña aditz batean bakarrik: **egon** aditzean: Banago, ba ago, badago; bagaude (bagagode, bagaode, bagaude), bazaude, badaude (badagode). Orain **bazaude** bakar bati esaten asi giñan ezkeror' batzuri **bazaudete** esatera jo dugu.

Iparraldean **duan** ordez bakarrari buruz **duen** esaten asi ziran ezkeror' aspaldiko **duden** aren **d** makaldua gogortu egin bearr edun dude, eta orrela **dute** sortu zan. Bizkayeraz ere **d** ori aspaldi galdu zan; ikus aipatu dudan liburuko esaera sorta bat:

202. Lastozko buztana **dauenak** atzera begira. (Emen ere **u** ondorengo **a** letra **e** biurtu da: **duan>dauen**).

419. Perrau **neuen** gogoia, axeak bestera naroa. (Orain **neban** ere esaten da).
421. Beukaz Peru'k bere beiak ta nik neure zazpi zuriak. (Emen ere **d** bat galdu da: **bedukaz**, eduki bitza).
453. Diru gitxi **dauenak** bezak oñak eskuan.
463. Eztai etxerik **eztauenak** aurrik. (Eztai = eztagi, eztau egiten).
513. Eznea, guria ta odola errean atera **neban**, ta ezer irabazi ez nezan ta ene beixua gal nezan.
503. Ezta zarra **dauena** zaldarra.
501. Ze egik gatxik ta ze **euk** bildurrik. (Euk = eduk).
440. Beluko ezkontzea deunga, goxetikoa ez oba; aldia guzak **daude**, aldiari jarrai gakiozan.

Azkenik bakarti-arteko **u** ori **b** biurtu zan:

72. Ezin **dabenak** lazuna, jo begi abuan asuan.

Iparraldean ere entzuten eztan "d" orren ordezt "t" gogorra sartzea uste genezaken bezin zaarra ez tala ikusteko "Yoanes de Haraneder, Donibaneko Yaun aphezak" euskeraz itzulitako "Philotea" liburuko VI ayekako iruzpalau lerro birridatzié ko ditut: (Lenengo irartzet-urtea 1749, Haranederr'ek 80 urte bete zituan urtean).

"Har ezazue beraz, o Gure Herritar maitemaiteak, har ezazue Liburu "hau eta irakhur ezazue. Zebonek frogatuko duzue zeñ bide zelhaia, xu-"xena eta segura irakhasten darotzen..."

Orain **duzute**, **duztu**, **darotzuten** idatziko litzake.

Bakarrari "zu" esaten asi ziranean' batzuentzako **zu** ordezt **zuek** esatera jo zan. **Izan** aditzak **ni**, **i**, ta **a** (edo **ura**) eskatzen ditu, eta **edun** aditzak berriz **nik**, **ik** eta **ak** (edo **arek**) bakarrarentzat, eta **gu**, **zu** aek **izan** aditzarekiñ, **guk**, **zuek**, **ayek edun** aditzarekiñ. Orain sarturik dugun **zuek** ori **izan** eta **edun** bi aditzekin berdin erabiltzen dugu: **zuek etorri zerate**, ta **zuek ekarri dezue** (edo **duzute**). Euskeraren berezitasunik aundienetako bat ankaz gora bota dugu. Gogoratu erderazko esakerak: **tú** has venido, **tú** has traído; **tú** es venu, **tu** as porté; **du** bist gekommen, **du** hast gebracht. Euskeraz **i** etorri aiz, **ik** ekarri duk. Orrela **zuek** sartzeak **zara** (zera, zira), ordezt **zarade**, **zarae**, **zarie (B)**, **zerate (G)**, **zirate**, **zirezte**, **zaizte** (Iparraldean) sortarazi ditu.

Latiñez eta gaztelaniz, italeraz eta alemanez Jainkoari **ika** itz egiten diode; guk berriz prantzesez bezela **vous**, **zu**, politeistak bagiña bezela:

Notre Père qui êtes aux cieux, que votre nom soit sanctifié. Que votre règne arrive; que votre volonté soit faite sur la terre comme au ciel. Donnez-nous aujourd'hui le pain nécessaire á notre subsistance Remettez-nous nos dettes, comme nous remettons les leurs á ceux qui nous doivent. Et ne nous induisez point en tentation, mais délivrez-nous du mal.

Gure Aita, zerutan zaudena: Santifikatua izan bedi zue izena: Betorkigu zure erreinua: egin bedi zure borondatea, zeruan bezela lurrean ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia: Eta barka izkiguzu gure zorrak, guk ere geren zordunei barkatzen dizkiegun bezela. Eta ez gaitzazula utzi tentazioan erortzen. baizikan libra gaitzazu gaitzetik.

Laister gu bakarrik izango gara Jainkoari **zu** esaten diegunak ona "La Sainte Bible traduite en frangais ous la direction de l'École Biblique de Jérusalem" liburuan nola dagon:

Notre Père qui es dans les cieux, / que ton Nom soit sanctifié, / que ton Règne arrive, / que ta Volonté soit faite / sur la terre comme au ciel. / Donne-

nous aujourd'hui notre pain quotidien. / Remets-nous nos dettes / comme nous-mêmes avons remis á nos débiteurs. / Et ne nous soumetts pas á la tentation, / mais délivre-nous du Mauvais.

Italeraz: Padre nostro che (sei) nei cieli, / sia santificato il nome tuo, / venga il regno tuo, / sia faifa la volontà tua / come in cielo anche su(lla) terra. / Il pane nostro necessario / dá a nois oggi, / e rimetti a noi i debiti nostri / come anche noi rimettemmo / ai nostri debitori, e non ci indurre in tentazione, / ma liberaci dal maligno.

Doitxeraz: Vater unser, der Du bist im Himmel, / geheiligt werde Dein Name; / zu uns komme Dein Reich; / Dein Wille geschehe, / wie im Himmel also auch auf Erden! / Unser tágliches Brot gib uns heute; / und vergib uns unsre Schuld, / wie auch wir vergeben unsern Schuldigern; / und Führe uns nicht in Versuchung. / Sondern erlöse uns von dem Übel.

Baiña arrigarriena ingelesek egiten dudena da: aur ttikieri ere **you** esaten die-de, ta Jainkoari berriz i: **thou**. Ona Douay'ko Biblian nola dagon: Our Father which art in heaven, Hallowed be thy name. / Thy king-dom come. Thy will be done in earth, as (it is) in heaven. / Give us this day our daily bread. / And forgive us our debts, as we forgive our debtors. / And lead us not into temptation, but deliver us from evil: / For thine is the kingdom, and the glory, for ever. Amen.

Gaztelaniz **vos** esatea aaztu zudenean' apaizeri eta errespetoko pertsoneri **usted** esaten asi ziran. Guk ere orrela mintzatzen ikasi genuan: apaizeri **berori** esaten diegu, Jainkoari baiño errespetu aundiagoz. Gaztelanik Jainkoari **tú** ta edozeiñ agintariri **Excelentísimo e Ilustrísimo Señor**. Venezuela'ko ditadore izandako Gómez'en seme bat gure etxeko goragoko bizitza baten bizi zan. Egun batean beregana igotzeko deitu zidan; ni bere etxean sartzerakoan bere bi seme irteten, eta onako au esan zien: "Vuelvan ustedes para la una, no se retrasen para comer". Eta ondoren neri: Le llamará la atención que a mis hijos les diga "ustedes"; es que en Venezuela hemos perdido el "vosotros" para hacer lo(s) plural(es), y tenemos que decir "ustedes". Gu ere orrelatsu gabiltza: "batzu"entzat zan zu orain bakarrarentzat esaten dugu, ta batzuentzat **zuek** asmatu dugu. Orrela jarraituz noizpait **ni** ordez **gu** esaten asten bagera'guk esaten asi bearko dugu. Ni ta i, gu ta **zu**: orra euskera jatorra. Azkue'k iztegian dionez' Lekeitio'ko mutillek "ezer eztakizu" jatorraren ordez "iek eztakiek ezer" esaten omen zuden. Betikoa: auzoko izkuntzetan egiten dira txorakeriak gureganatzeko' euskerarekiñ astakeriak egiten ditugu.

Beste zerbait aipatzeko: UZEI'k argitaratu duan "Ekonomia hiztegia" finciar = finantzatu. Zer da "finciar"? Ona Real Academia Española'k zer dion: **finciar**. (Del fr. **financier**.) Aportar el dinero necesario para una empresa // 2. Sufragar los gastos de una actividad, obra, etc. Ona orain Picoche'ren "Dict, étymologique de frangais" liburuak diona: Famille du substantif **fin** I. **Finir** XI s.(pop) d'abord sous la forme **fenir: fenire; (...)**. 2. **Finance** XIII s.: dér(ivé) de l;anc. fr. **finer** var. de **finir**, spécilaisé dans le sens de "terminer une affaire en payant": **Financier, Financier** XVI s.; **Financement** XIX s.; **Autofinancement** XX s. Beraz itzaren jatorria **kittatu** itzaren esannai berbera zuana da. Baiña orain **kittatu** baiño zeatzago genuke **di** esatea. "Finciar una empresa" **Baltzu bat diruztatu**.

UZEI'k oraindaño egin duana "Ñagi-euskera ad usum erdaldunum" besterik ezta.

MUNGIALDEKO ESAKERAK

- "Zorri aberastue, iñori ohostue".
 - Ama eta ni egun baten berbetan gengoza Meñakako baserrian esan eustan, "Guk egiten dogun moduan bear, edo lan inor ezin da aberastu, orduan nik itaundu neutson: ama, orduan zelan dagoz aberatsak gure artean?"
 - "Ez dau iñongo jokalaririk (apostularirik) egin dauanik fraka barririk".
 - Ñire osabeak idi probetan afizio andia dauka eta sarritan gastau dauz diru mordo piloak desafioetan eta orrelako gauzetan. Egun baten bere etxera joan zan, patrikan ogerleko bat bera be ez eukala, amari dirua eskatzeko prest. Amak ori ikusikeran aipatutako esakerea esan eutson.
 - "Zu espabiletan zaranerako, jaungoikoak gaua egunez egingo dau".
 - Meñakan entzun neutson bein neure aititari, neure anai txikerrak, itzelezko aukera galdu ostean geure arteko futbol partidu batean.
 - "Orrek barakilek baino odol gutxiago dauka".
 - Jatabeko soloan arto-jorran gagozala nire aititak esan eutsan nire amari: Gure mutilak barakilek baino odol gutxiago dauko. Egun ortan nagikerian ibili baitnintzan.
 - "Mungie lapur guztien abie".
 - Mungian entzun neban neure amomak esanda. Aintzina baserritarrak etorten ziran Mungialdera euren txaalak saltzekotan, ori zala eta Mungia feria egunetan lapurrez beterik egoten zan, baserritar koitadoei diru-zorroak kantzeko.
 - "Ñon erromeri, an Santamar".
 - Uda baten dana aprobatuta neukala eta, Mungialdeko jai guztietara joaten nintzan eta bein ori zala ta, nire amak bota eustan esakera au maaian patxadaz jarrita nengoala.
 - Orrek aurrian daukon Santuari baino ez dautso egiten argirik".
 - Ñire Meñakako osaba bat zugaz berbetan badago zeozertaz beti egongo da zure alde. Andik ordu batera beste bat asten bajako berba egiten aren alde be agertuko da kontrakoa esan arren. Bein nire amak ori olanik zala ikusirik esan eutson: Zuk Jose "aurrian dekozun Santueri baino ez deutzazu argirik egiten". Ñire osabeak zeresan ez ekiala erantzun eutsan: "Rosa ez joat gure diskusiñorik inogaz bere ez".

BERBAK

- Sasi-poltsoa edo sasi-boltsoa.
 - Aintzinako denboretan dirua orma zuloetan eta, gordetzen zan. Dirua gorde oi zan boltseak edo zorroak "sasi-boltsea" edo "sasi-poltsoa" eukan izena.
- Zurrune
 - Karroak atzeko partian palu bat eroaten dau bedarrak kargatzen diranerako jausi ez daitezen. Y grekoa itxura izaten dau:
 - Aititari entzundako.
- Urkulue.

• Aintzinako laba-suetan artoan erretzen zanean erabili oi eben tresna au. Asta luzea zeukan eta labe suaren barruan egoan artoari bueltea emoteko erabiltzen zan.

• Txikerra nintzala aitita eta biok erreten genduzan arloak gero errotan eroan eta arto uruna egiteko, eta orduan neuk entzundako izena da ori.

- Patana

• Mungialdean patena

• Meñakan patana

• Bedar mota bat dogu. Bere usaina atsegina izaten da, orri zabalak daukaz asunaren modukoak baina punta biribilakaz. Aintzine liburu barruetan ipinten eben liburua zabaltzerakoan usai gozo eta atsegina egon eiten. Erderaz —> Yerba buena edo menta bezala ezagutzen dabe.

ASIER LEGARRETA

MUNGIALDEKO UME-KANTAK ETA KOPLA ZARRAK

1

Aita-semeak tabernan dagoz,
ama ta alaba jokoan.
Aren etxian ez da iñoiz faltako,
atorra zarra kakoan.

2

Ala gizonak eta errementariyek,
prakatxu zarrak eta begiyek gorriyek.

3

Santiyago paseute, Santana gabien,
mutil bi egon ziren bentana batien.
Barrure sartu ziren, zigarroa erretan,
ta amoma topa eben taloak erretan.

4

Txikitxu polit ori,
norena zara zu?
Zeurie izango naz,
zeuk gura banozu.

5

Txikitxu polit "zerzetan",
buruen dozu kopeta.
Zeure soineko ta erropi orrek
iru dozena kortxeta.

6

Tan parranpantan gu re aitte Bilbora
doa.
Tanparranpantan abarka mantatan.
Txinkirrinkitxin Bilbora doa.
Txinkirrinkitxin zer eiten?,
Txinkirrinkitxin makallotxu bat,
Josebatxuri ekarten.

7

Dingilin dago Mariñe,
beti orrela bagiñe.
Beti onela izateko,
boltsie deuku ariñe.

8

Ñire andria ona ei da,
auzoak alan diñauste.
Baiña erositako presiyoan,
pozik salduko neuke.
Ñire andriak kamisa zarra.
garbia balu ezer ez.
Zazpi astian aldian dauko,
erantzitako alperrez.
Ñire andria goiz yagiten da,
naizta egun danian,
buruko miña egiten yakon,
biar egin bear danian.

9

Txikitxu polit ori,
begitxu baltzokaz.
Ondo engañetan nozu,
berba labanokaz.

10

Kanpo de Bolantiñen,
aretz arro baten,
zazpi ume aurten.
Kukue egin eta,
txabillotxiak jan.
Kukuen fortuna,
orixe izan zan.

11

Gure neska txikerra,
asitte baleko.
Aitteri tabernatik,
ardaua ekarteko.
Amari errekaduek,
isilik eitteko.
Gure Amaiatxu,
asitte baleko.

12

Txikirrikixin akerra dantzan,
katue bibolin joten,
azeriye dau suari puzke,
erbiye urune eralgitten.
Txikirrikixin soiñuen dantzan,
egin genduen, Bermioko portuen,
Mundakarren auzuen.
Txikirrikixin soiñuegaz,
dantzan eitteko,
zapatatxu zuriek,
egin uderako.

13

Tirikitrauki trauki traukiyetan,
bere ez dago zulakorik Indiyetan.
Indiyek irebazten, errezak ez dire,
zure begi ederrok gatxagoak dire.

14

Bilbo baiño onago dagoen erri baten,
neska txiki bat dago, etxe andi baten.
Txikerra izatiaz deuko bentajie,
kantzeu barik miñagaz eiteko gonie.

15

Maitetxu biotsekoa,
trebola Maiatsekoa.
Ñiretzako jaio ez baziñen,
zerbidu eizu Jaungoikoa.

16

Aite guriek amari,
gona gorriek ekarri.
Gona gorriyen orriyek,
zazpi jostunek josiyek.

17

Mattalen Busturiko,
amari negarrez.
Amantal gorri barik,
eskonduko danez.
Mattalen Busturiko,
izen balitz ona,
ez zan etorriko,
Busturitik ona.

18

Aittitte Manzanero,
pipe erretzailie.
Pipiak erre deutso,
zurraren puntie.

19

Tretatxu Larrauriko, Landako semie,
Bizkaiko lapur danen gobernadorie.
Tretatxu Goikosolik pipie artzien,
infernuko txakurrak Tretaren atzien.
Tretatxuk esan ei dau Begoña ganien,
ez dabela koyuko Bizkaiko lurrjen.

20

Ñire majtetxu or dago,
gaue ta egune negarrez dago.

Berba bi

Mungjan, beste erri euskaldun askotan bezala, aintziñako kopla zaarrak, ume-kantak, esakerak eta pasadjoak dagoz.
Gertatu dena, zera da, urteak pasatu aala galduten joan direala.
Kasu baterako, berrogei urte inguruko andratatik beera, gutxi gora beera, euren eumeei erderaz abestuten dautsiez ume-kantak, ez dakiezalako euskeraz.
Kopla zaarrakaz eta esakerakaz bere, bardin pasetan da. Gaur egungo euskeriak ez deuko aintzinako euskeriak edukiten ebazan esamolde eta giro jatorrak, aiek bai zirala barre eragiteko erak.
Ori dala eta, nik Mungia eta Mungia aldeko ume-kalta eta koplaz zaar batzuk batu dodaz, geure oiturakaaztu edo galdu ez daitezana.
Ogeita-iru ume-kanta eta koplaz zaar ipiñj dodaz nastauta, batzuk ez dagozalako argi ume-kantak edo koplaz zaarrak ote direzan.

Beren negarrak gosoagoak dire
askoren barrie baiño.

21

Alabatxoa ene lastana,
ez egin lorik basoan.
Azeritxoa etorriko yatzu,
ardia zarelakoan.

22

Txiki txikitxue ta polit politzue,
gure umetxue dala, polit politzue.
Polit politzue ta txiki txikitxue,
gure umetxue dala kaskar kasartxue.
Kaskar kasartxue ta polit politzue,
gure umetxue dala bior biortxue.
Bior biortxue ta kaskar kaskartxue,
gure umetxue dala iker okertxue.

23

Gure umia lo ta lo,
zuk orain eta nik gero.
Biok batera lo egin eskero,
etxea nok yagon ez dago.
Gure Ñekanen atzean,
mutil zantarrak atian.
Ez dabe eroango gure umia,
andi andi eiñ artian.

ITXASOA

1. OLATUAK

Gorputz-atalik txikienari kizia deritxagu, ta kizi bik alkartzean elea dagie. Hidrogeno-kizi bi Oxigeno-kizi bategaz alkartu ezkerro, ur-ela bat sortu oi da; elak elakaz alkarturik, ostera, gorputza egiten da. Ura, ba, gorputza dogu kiziz eta elaz egijña. Kizi-elak ez dagoz egundo be beti dantzari baiño; ura, orixegatik, naiz kulunka naiz olatu, atertu bako dantzan dabilkigu. Ur-kulunka bakotxak igi bi ditu batera, bata bere orpo birakoa ta bestea aurrera jo-bearrarena, ots, ur ibilliak daroanarena. Uinak iñoizka bata bestearen gain jarten dira, ta orduan be bakotxak dau dagokion igi berezia.

Zeaztasun onein ostean, betor olatu-zebaketa laburra.

AIZE-OLATUAK

Esan dogunez, aizeak ikutu ezik, geldi samar daukagu ur azala; naiz-ta bere barne-dantza izan, sarri orekan edo dendun iraunkorrean dagola dirudi itxasoak, baiña aizeak bere igurtzi leunez kentzen dautso lautasan ori. Dardar igiak sortzen dauz aizeak, indarra zabaldu ta eroanez ur-elatik ur elara, urren-gorik urrengora. Aizeak ur azala jotean izur eta kizkurak egin daroaz zidar kolorezko laban-zabaldian, eta itxasoa orrela izurtuta askozaz be ikusgarriago yaku.

OLATU AUSKORRAK

Uin-goraberan, ba-dau zer-ikusia uraren sakontasunak; uin aundiak, esate-rako, ur sakonik eztan lekuan berez-berez indargetu, gitxitu ta ausi egiten dira; aldiak bardin iraunik be, leia indarra beratuz ta luzeera laburtuz doakie, ta pizkaka pizkaka, izpazter ta ur-kolkoetara eltzean batez be, gaillurra ausi egin oi yake; ezin dautsoe ondo meian euren ertz-islari eutsi ta berez lez apurtu egiten yatzuz aurrekaldean. Iñoiz ur sakona dabelarik be austen dira lur-ertzerako orduko, baiña ori ur azpian aurkitzen diran are-pillo, arkaiz eta gaiñeratiko ergozpenakaitik dozu.

Ez dozu iñoiz ikusi? Ondartzako ao ertzean onako gertakari bakana jazo oi da: geiegizko saka bat, azpiko urari itxas ondora bultz daragiona; emendik sortzen yatzu gero ur laster edo korronta, ura bera baiño astunago diran olzati, arri-mokor, saskara pillo ta abar, moltsoka itxas barrura narraz daroazana. Lur egaleko uinak batzutan bare-bare datoz ondartzako are, maskur, bedar, aloka ta gaiñerakoak leun-leun miazkatzera; beste batzuetan eztabilz ain baketsu ta uinak, ondar-ezpana jotean, aizekin antzera gora doaz bits jario, ta, jasterakoan, atzean biribildu diran olatu barriakaz topez dagie. Zenbait aldiz, itxasoa asarre danean batez be, erresaka edo zurrut bizia izan oi da, ur-atzezatez orreitan. Orduan arriskutsua dozu itxas egala.

Arkaitz zulo, labar eta amildurak atsegin yakoz itxasoari, bere jolasleku ero-soak bañitu. Baiña bere burua, leoia kaiolan lez, orma zakarren muga barru

ikusirik, ikaragarri jarten da sarri askotan, orroe ta marruma erdiragarriak atereaz. Gure Kantauri'k, bere ezin-egon larrian, alboetako aitz zakarrak ondo garbi ta biribil izten daukuz; aremetak toki batetik bestera aldatu ta arririk gogorrenak be, ekiñaren ekiñez, jo ta austuten mutilla dogu. Arritxin, troska ta makorrazak izpazterretan talka egitean, apartsu agiri yaku ur-jauzika, iñoiz berrogei metroraiño goira igonik. Olakoetan, sumiñak artua dabilkizu-ta, etzaitez beragana geiegi urreratu.

BARNE-OLATUAK

Ur-azalean, ertz makurrik eta aize-igurtzirik ba'da, uñak be izango dira gitxi-asko. Itxas azpian be, bardintsu sortzen dira olatuak, antzeko ez diran ur bi alkarregandik bananduten diranean. Ez dabe zabalera aundirik, eta, izgora-izberako uñen antzera, 12'tik 24'ra lez iraun oi dabe, euren ariña segundoko metro l'tjk 2'ra izanik. Ur gaiñean ezagun izan ez arren, bana-kapar edo tar-tean 50'raiño ko goierak artzen dabez.

EZTANDA-OLATUAK

Jazokun arrigarri asko ditugu ur azpian: su-mendien lertzen ta zapartak, beiñolako sakostak, zapaluneak, ondapenak eta abar. Ortik datoz, ondorenez, indar eztanda uñak. Uraren sakontasunarena baiño geiago da olatu onein zirkiñaren luzeera, izgoraberen azkartasunez igitzen dira ta iraun ordu laurenetik ordu bete ta biraiño diraue. Itxas barruan goibe aundirik izan ezta be, lurragaz tril egitean, ogei metroraiño jagi oi dira. Kaialdeak, iñoiz, ondo suntsitu dabez; baita lur kolkoetako ondartzak zear-aldatu be.

OLATU BIZIAK

Itxasoak egunero daukazan goraberak, itxasaldiak, kulunka igiak dira, aldi ez-bardiñeko uñak alkarren gain jadean sortuak, antza. Onetan eguzkiak eta illargiak darabille jgi-ardatza. Itxas zabal osoan zear dabiltz olatuok, leku itxiko ur-kulunka eraketari jarraituz, au da, euren orpo untze biran itzulinguruka ta aurrera bearrezko leia bizian indarka. Ur-zatiak ordun arrautz-obo antzeko luzeetan zirkin dagie. Itxasaldiko olatuak, gitxi gorabera, 6 bakoizka lez barriztuten da, ta uin oneik batzuetan amar metroraiño ta iñoiz amaseiraiño jagiten dira; beste toki batzuetan, ostera, indar ixillen batek eskutik zuzenduta lez, leia biurri izugarrian ibilli oi da. Ñeguz Islandja'n ateraten diran olatu batzuk Europa'ko lur-ertzetaraiño eltzen yakuz, eundaka ta eundaka kilometro bide egiñik; asjeran orduko ogetamarretik irurogei kilometrorako abiadea dakarre, azkenera larogeitik eun da ogeirakoa artuaz. Ikaragarria-benetan, itxasoaren indarra) Onegaz baliatu al ba'giña, indar-iturri agortu eziña litzakigu itxasoa.

Emendik dakusgunez, amaika arrisku izan dabe -ta gaur be bai- ur-zabaldi zear arrantzuan naiz pleit-arazoan ebiltzan ontziak. Antxiña batez be, orioa erabilli oi eben ekaitz aldiko olatu zarratueri indarra gitxitu ta kentzeko; arrantzaleak orioz beteten eben agoa, arraiñak eta azpiko korallak ikusi nai ebezanean, kulunken eragiña ezititzeko ur gaiñera ok-egiñik. Idazle askok diñoskueñez, oraintsuagoko aldietan be arantzale ta bale-zaleak, ekaiztean ur-irakiña ta

uiñak bare- azteko, arrain gibel koipetsuak eta bale gantza zatiak zabaldu izan dabez euren ontzien saiets biran.

Orioak, izan be, indar aundia dau ur-eragiña baketzeko. Lobel guztiak astun dirala, batzuk, andieran bardin izanik be, beste batzuk baiño ariñagoak dituzu; orioa, esaterako, ura baiño ariñagoa da. Olatuen koloka zirkiña, aizeak azal pendizean emokeran, geituaz doa, gorantzazko zirkiña batetik eta aurrea-bultzarena bestetik. Ontzi batentzako lenengoa dozu kaltegarrien, azpitik gorako saka orrek ba goregi jaso ta tirabira eragiteko arriskuan jarten dau. Orio estalki edo ugarak, barriz, zelaitu egin daroaz aizeak itsasteko bear ditun azal-une makurrak.

Orretarako, orio astun lodiak dira onenak; tresna ta makiñak koipezteko erabili oi dan orio loa, urdai-azpikoa, likurtak, bale-gantzak eta beste berein lumera mota be bai. Ez dozu askorik bear; arrantzale ontzi batek ordu batzuetan bere burua jagon dagian, litro bat orio naikoa dau. Gaur plastikozko ziskutxu batzuk gertau leikez ortarako, ta ontzi alboetan dingilizka ipiñi, ta bear diranean, orratz bategaz bakotxari zulo batzuk egin, orioa apurka apurka urtenaz joan dakioen.

2. ITXASALDIK

Gizaseme ez-jakiña, beti be, zurtu ta erditik egiña geratu izan da itxasoak ditun goraberak eta aldiak ikustean. Jakintzari be beretik etxako ain errez izan, azken-itza oindiño be emon ba'dau beintzat, ondoren ziurretara eltzea. Zer ete dira itxasaldiak? Uraren aldizkako toki-aldatzeak aurki, illargi-eguzkien erakar-indarrak eraginda. Ur aldatze au, gitxi asko, itxaso guztietan daukagu, toki daretan ez baiña bizitasun bardiñaz; Mediterraneo aldean, esaterako, ozt-ozta igarten da gorabera ori, ta Fundy izpazterrean itxasaldi dendunen diferentzi erdia, udabarrian beintzat, 15 metrokoa dozu.

Jazokun au etzan ezaguna aintxiña, ezta erri aurreratuen artean be. Geien oneik, Egipto, Grezi ta Erroma, Mediterraneo aldean bizi ziran eta ez ekien beste itxasoetako goraberen barririk. Alesander Aundiaren gudalburu zan Ñearku ta lagunak euren iker-ibillaldian Indo ibaiaren ertzeraño eldu ziranean, arrituta gelditu ziran itxasoko urak gora ta beera ebiltzala ikusirik. Juli Kaiser bera be bardin, Inglatera'ko lur-ertzetara eldu ta andik ordu batzuetara bere ontziak ondar legorrean ikusiaz. Txinarrak eta arabiarrek naikoa zeatz ezagutzen eben gertakari au; oneik eguzkiaren beroari ezarten eutsoen, areik barriz lurraren arnasa zala iñoen. Aristotele'k, Kadiz'ko kaiko itxasaldietaz, jardunik, ur-ezponda a labar eta arkaitz zutez kaiolaturik lez egoalako zala uste eban. Posidoni'k eta Plini'k itxasoaren goraberak ilargiari egokiozala autortu eben; eta, geroago, Galileo'k, Kleper'ek eta Ñewton'ek ezkutuaren estalkia jaso ta egia osorik agertazo eben; eta gaur, Laplace, Torricelli, Volta ta beste fisika zale bikain batzueri eskerrak, naikoa zeatz dakigu noiz asi ta noiz amaitzen dira itxasaldiak.

IZADIKO ERAKAR-INDARRA

Munduan ba-da indar bat gorputzak alkarganatzen dituna, erakar-indarra. Berau azaltzen jakitunik asko alegindu dira gizaldiak zear, Galileo Galilei

(1564-1642), Kepler (1571-1630), Ñewton (1642-1727) ta Einstein (1879-1955) geienik; baiña, gaur be, erakar indar onen eragiña ludiko ezkuturik aundienetarikoa dogu. Ustekizun eta teori asko maminduak izan arren, batek be ez ditu jakitunak oso-osorik beteten.

Ona, noiznai dakusguzan jazoera batzuk: Edozein gauza, azke itxi ezkeroz, beera doa bere pixuz, lurraren erdirantza. Beera indar orri erakarpema deritxagu, eta, ain zuzen, gauza astunago; lurruna ariña dozu, arria astuna, ta beruna astunagoa. Lurraren erditik asagotu ezkerero, barriz, makaldu egin oi da erakar-indarra, eta gauza bat, goitik beera jaustean, aren arintzea, bizkortasuna aldiaren neurritz geitu egiten da.

Bizkor ibiltuari arintza deritxagu. Aizerik ez dagon utsunean gauza guztiak arintza bardiñez jausten dira; aizea dagon tokian, bestelatsu. Leio batetik bota, esaterako, arri bat eta oillo-luma bat, eta arria ariñago doa beerantza lumea baiño. Zergaitik? Aizeak lumeari arriari baiño geiago eusten dautsolako; aizea kendu ta eizu utsunea, ta biak, arria ta lumea, aldi berean jausiko yatzuz. Aintxiñakoak ez eben au errez ulertu al izan. Baiña Galileo'k, batez be, bere garaian egiñiko azterketa ta oar-ikasien bitartez, ordurarte izadiaren ezkutu ixilak ziran gauaz arik asko argitaratuak izan yakuzan, an eta emen gai oni buruzko ukas-zaletasun itzala sortuaz.

Kepler'ek gero, zeruko gorputzen goraberak eta igikunak zearo ikasi ta ondo aztatutakoan, iru lege ospetsu oneik gatzatu zitun: 1) Izarbelak, arrautz-obo edo elipsezko jirabirak marrazten dabez, eta bira orreitan eguzkiak dauka erdi-une bat. 2) Izarbelak eta eguzkia alkartzen ditun arrediko lerroak, aldi bardiñetan zabal-barru bardiñak irristatzen ditu. 3) Izarbelak, itzul-inguruak egiteko darabillezan bigarren aldi-einak, euren eguzkiarekiko bidarlo erdien kubo laiñekoak dira.

Eta Ñewton'ek, aurretikoen ziur-gai, lege ta zeaztasunok begi aurrean zitu-la, izadiko osoko erakar-indarrari dagokion legea iragarri euskun, illargiaren gorabera ta biretatik aterata batez be. Lege orri eskerrak, zeru-izarkiai buruzko ainbat ezkutu estalgetu ta azaldu dabez jakitunak. Ortze indar-izti edo mekanikaren oiñarri bikaiña, egiazki. Ñewton, diñoenez, 1665'garren urteruntz Cambridge'n bizi zalarik, arrituta geratu ei zan bat-batez. Zer zala-ta? Berez-berezko jazokun bat, sagar umotu bat adarretik jausten ikustean. Zelan zeitekean ori? Pentsa ta pentsa asi zan, gertari aren barne illuna ezin argituta. Buru gain eukan ilargia be lege bardinpean egoan: lurrerantza jausi bear naitaez. Jausten ete zan, egitez? Zenbateraiño, gero?

Edozein gorputzek, dana dalako indarrak saka ba'dagio, artez eta lerro zuzenean ibilli bear. Illargia, ostera, makurka dabil lurraren biran; indar bi ditu, be-raz, eta bata lurrerantza bultz-daragio. Unetxo baten indar orrek uts egin eta ainbarik geratuko ba'litz, illargia beingoa, bere itzul-inguruko untzetik urtenda, zear-lerrerantza zuzenduko litzakigu. Ezta olakorik jazoten; illargia, bada, olako indar ixil batek dauka inguru-ardatz gaiñean lotuta lez, eta ezkutuzko erakarpema orrek gure bizitoki onerantza darakar, lurraren dei-indarrari erantzunik lez.

ILLARGIAREN ERAKARPENA

Ñewton'ek ortik atera eban lege au: Gorputzak astunago ta erakarpema geiago, urriñago ta gitxiago. Lurrak, orixegaitik, bere azal-inguruan eta ur sa-

mar daukazan gauzak erakarri egiten ditu, beragana daroaz, lur-mukulua gorputz orreik baiño askoz aundiago da-ta. Gorputzok be lurrari buruz euren erakarpina dabe, sarritan guk arein eragiña somatu ezta be. Lurrak illargia darakar, eta illargiak lurra; baiña neurri txikiagoan, 80 bider gitxiago, illargi-orea lurrarena baiño larogei bider txikiago dogu-ta. Erakarpen ori, orraitaiño, illargiarena noski, oso ikusgarri egiten yaku, itxasaldietan batez be.

Igi asko dabez itxasoko urak, eta onein artean ba-dira joera zuteko ur-aldatze batzuk, 12 ordu ta 25 miñutuka gorena ta beerena gertatzen diranak. Gertakari au ezaguna da itxas-aldean bizi edo izan gareanontzak, eta au ezta besterik itxasoak ditun goraberak, aldiak baiño, izgora ta izbeera, ur gora ta ur be-
ra, itxas bete ta itxas apal; labur: itxasaldiak, eguzki-illargien erakarpenetik sortuak geienbat. Zoaz itxas-aldera, Kantauri'ko edozein tokitara, ta begiratu itxaso; or ur-ertzeko labarra, orma zabala, une onetan goraiño busti dau urak, baiña gero beera doa, beti leku berean ez dago busti-unea; urak libar batean, bee-bera jatxitzean, bere oizko igikuna ezereztera joiala zirudina, baiña beingo-asi da barriro be geituten, eta 6 ordu ta 12 miñutuan gora ta gora doa, gorengo ordeka jaritxi arte; oni itxas betea deritxogu, ta bertatik, pizkaka pizkaka jasten asten da ostera be, beste 6 ordu ta 12 miñutuan, beerengo ordeka jaritxi arte; itxas-apala deritxa oni.

Gertakari onen ezkutua, naiko ondo adierazo ta azaldu geinke Ñewton'en erakar-indar legez. Egin daigun, esaterako, lur au alde guztietan bardin zabal-
duriko ur-estalkiz inguratuta daukagula. Illargiak, ezpairik bage, estalki orren urrenengo gaiñean beste zatietan baiño eragin biziagoa eukiko dau, ta erakarpen indartsuago orren bitartez ura goraka doa. Borobil erdiaren bestekaldean ezta ainbesteko erakarpenik; eta, gisa orretan, olatu ikaragarri bi sortzen dira lurrean, alkarren aurkakoak noski, eta olatuok illargiak daroaz ipurtandarrrez, lurra bira-biraka dabillen bitartean; olatuok ibilladi osoa dagie, 24 ordu ta 50 miñututan, ludiaren gaiña zear. Aldi orren barruan igikun bi izan oi dira, ur-gorakoa ta ur-beerakoa. Itxasaldiak, beraz, 24 ordu ta 50 miñututan lurra iga-
roten daben uin bi dituzu.

Errez aitu daiteke, gaiñera, ur-goibe jakin batek ezin daikela munduko bazter guztietan gora bardiña euki, illargiak goitik beera zutago joten dauan lekuan ura be biziago erakarriko dau-ta. Illargiaren urrintasunik aundi-ena lur-gerriari buruz 28.º dira; ortik, ba, ur-goibeak tropikuetan izango dira bizienak; goiko ta beeko buruetaruntz doazan neurrian gitxitu egingo da arein eragiña be, buruburuetan barriz utsa izango da, ta burtzil inguruko ardatz-igira joko dabe bere-
nez.

EGUZKIAREN ERAKARPENA

Ba-da oraindik beste erakarpen erro bat, eguzkia nunbait. Gitxi-asko izarki danak dabe, euren neurrian, tira-indarra; urriñago ta aulago, jakiña. Eguzkiak ba-dau bere ekarri legea. Ur-goibeak sortzen dituna illargia bakarrik ba'litzakigu, areik zabalera bardiña eukiko leukie beti. Baiña, orrela ezta. Or, begira, ondartzatza bat, edo ur beteak artzen dauan orma lau bat: illargi betearen osteko egunetan, egunik egun, gitxituaz doa, ta, beerengo mailleari ikutu ondorean, goraka asten da barriro. Ur-goibeen zabalera eguzkiaren erakarpenak makur-
azten dau, illargiaren indartsuena geitu edo gitxiturik: eguzkia illargiaren morroi

dala esan geinke. Lurraren alderdi berean illargiagaz batera ba dabil, ots, illargi barrian, edo lurraren bestekaldean, illargi bete danean, bere erakaréindarra illargiarenagaz alkartu egin daroa, itxasaldirik gogorrenak, ur biziak, sortzeko; bizi ta indartsuenak, uda-mugetakoak izaten dira. Baiña izarki biak kuadraturan ba'dagoz, au da, illargiak eguzkiaz zoko zuzena egin ta lurak onen goi-kaskoa daukanean, ots, ilgoran ta ilberan, eguzkiak gogor egiñik makaldu egin oi dau illargiaren erakarpena, ta itxasaldien eragiña be aulagoa izaten yaku: ur illak.

Illargiaren eragiña, eguzkiarena baiño, irutan indartsuagoa da, itxasaldien zer-ikusietan. Illargiaren orea, egia, eguzkiarena baiño askozaz gitxiagoa dozu, baiña illargia naikoa urrago da gugandik, eta ori dala-ta indar irukoitzez darakarz itxas-urak eta beste gauzarik asko. Ondo samar atera geinke emendj̄k: toki baktxean izgora bi egiten emoten dan aldia, axe bera dala illargiak lur-birran itzul erdia egiten emon oi dauana be: 12 ordu ta 25 miñutu; eta izgora ta izbera baktxeko epea, 6 ordu ta 12 miñutu.

Eta itxasaldi biak, gorakoa ta beerakoa, illargia meridianutik zear igaroaz batera gertatu bear litzakez, baiña ezta olan: illargi beteetan, illargia meridianutik dabilenean, 36 ordu atzeratzen dira itxasoan goraberak. Sortasunari yagoko, antza, gertakari au, urak bere atsedan lekua iztean jarri oi dauan mukertasunari: illargi-eguzkien eraginpea daukaguz urak, ilargi-eguzkien goraberak sortzerakoan. Erakar-indar biak alkarri dautsela dagoz, eta alkar jote orrek osotzen dau itxasaldien atzeratzea.

ITXASALDIEN ZABALERA TA NOIZA

Uraren gorabero leku guztietan eztabe zabalera bardiña, ezta ez dira beti unada bat-berean jazo be egiten. Eguratsak baédau onetan zer-ikusia, baita aizeak eta giro-aldaketak be. Baiña zabalera orri geienik eragiten dautsona lurraren eta illargiaren arteko bidarlo aldakorra dozu. Illargia beeren aurkitzen danean, goren dagoanean baiño 20% bider geiago ain baten izango da aren zabalera. Diferentzi ori darabilenak, alan be, ez dira illargiaren goraberak eta urrin-urreak, ba-ditu beste eragille batzuk be; illargia ekuadore edo lur-gerri gain aurkitzean, ipar naiz ego, gerri ortatik urriñen aurkitzen danean baiño 10% gitxi gorabera aundiago izango da itxasaldiaren zabalera; orobat, eguzkia etzanen dagoanean baiño ekuadore gaiñez dabilenean pizkat zabalera aundiagoa dozu.

Ba-dira oindiño beste eragille batzuk be. Ur-goibean batez be asko sartzen dira itsas-azpi ezbaridiñak, lur-ertz malkartsuak, meargune ta erreka zintzurak, arkaitz arteetako aize biurriak. Orrela, egoaldeko ugarteetan, au da, tropiku artean, urak zabaldi itzalak daukiez ezker-eskuma zabaltzeko, ta itxasaldiak bat edo bi oin besterik ez dira jagiten; Europa'ko bazter batzuetan, ostera, amasei ta amazortzi metroraiño be igoten dira. Itxas zabalean 75 zentimetru da gitxi gorabera ur-ordekaren alde erdia; Fundy izpazterrean, udabarriruntz batez be, 15 metrora eltzen dira. Lurrak eusten dautso itxasoari bere berein eragozpenez, ur-bidutzi orren abiada, goibe ta zabalerai arresi gogorak ipiñiaz; orrela ezpaltiz, baten baiño geiagotan, triskantza ikaragarriak egingo leukez itxas-egaletako urietan batez be. Ur-mendi orri be Jaungoikoak jarri eutsozan lege ezkutuak, eta gau ta egun, asarre naiz bare, metro batzuk gorago metro batzuk beerago, lege orrein muga barruan dabilkigu milloika urteetan.

Gizonak sarri onura atera nai izan dautse itxasoko uren goraberai: olatuen indarra ezi ta uren dendun aldaketa ori neurrira ekarririk, indar ipiñi. Era asko-tako indar-etxeak jaso izan dabez an eta emen, baiña ondoren aundi barik beti be; itxasaldiak iru metroraiño jagiten ez diran tokietan zail be zail da indar orri onua ateratea, eta mundu guztian be 15 eskualde ei dira bakarrik izgorak 6 metroraiño eltzen diranak. Laterri Batuak asi ziran Fundy'ko zingirako ibaiondoan indarrola eskerga bat jasoten, baiña porrot egiñik antza, bertan bera itxi bear izan eben lenengotan ain gogotsu asitako lana.

Eta zelan antz-emon itxasaldien ordua? Bardin lez urez beteriko eramuan ez litzakigu gaitz alde-alde jotea, baiña portu ezagun baten zein ordutan itxasaldi orreik aurrez igartea ez gauza ain erreza. Itxas barruan oztopo ta koskarik asko, ta lur-ertzak be eztira danak era batekoak; ezin, beraz, lege ziuurrik ezarri. Urte baten edo bitan, bear bada, orduak zaindu ta kontuan eroan ezketiño, ortik atera geinke naikoa zeatz gagozan tokiko itxas aldien ordu berezia. Gaur ba-daukaguz ortarako ur-goibe neurkiñak; Portugalete'ko nasan bat, urte batzuk dirala ipiñita. Tresna oneik euren gisa idatzita, marrazturik izten dabez uraren aldaketak.

LURRA INDARRAK GALTZEN

Lurrak bere itzulinguru eten bakoan naiko indar galtzen dau, itxas-ondoan gitxiago azalean baiño; obeto: mekanika indarra, bero indar biurtzen yako. Galpen ori ordezkatzeko itxasaldian daukaguz, igurtzien aurka, euren eragin iraunkorrean. Lurraren bira-ariña gitxitu ala, illargiarena arindu egin oi da, eta biok sistema batébakarra ba'legie, batak ardatz itzulika galtzen dauna besteak irabaziko leuke; illargia, baiña, ardatz-bira tinkoagoa ta lurretik urriñago dabilkigu, ta illak luzeagotuz doaz. Eguzki-jarioak be lurra urrunago botaten dabe, baiña illargiarenak, gorago aitatu dogun urrin-urretasuna dala-ta, askozaz be geiago.

Gizaldika zenbatu ezker, egia esan, eztira orren garrantzi aundikoak lur-illargien igikuneri buruzko itxasaldiak. Epe luze samarra emonik, alan be, gora ez txikiko aldaketak sortzeko laiñean moltzotu leitekez. Lurrak beiñola gaur baiño azkarragoko bira-zirkiña ei eban bere ardatz-gain, illargia be urrago ei egoan lurretik, eta ondorenez illabeteak gaurkoak baiño laburragoak ei ziran ots, egunak batez beste 5 ordukoak, lurretik illargira 14.500 kilometru or-or, illabeterik laburrena ostera 24 bat ordukoa.

Illargi ta lur, noiz etorri ete ziran gaur daben egoerara? Harold Jeffeys'ek diñoskunez, 4.000.000.000 bat urte. Izgora ta izberak eguna luzatu egiten dauskue, ta, urteak joan urteak etorri, gero ta geiago, illabete irauteraiño luzaé tu leikie. Illargi itxasaldiak orduan, eguzki-itxasaldier bekoki emonaz, auldu ez, baiña apurka apurka indar-azi egingo dabe lurraren burtzil-birako abiadea. Illargia bera gugandik urrago jarriko yaku ostera be, ta iñoizkoren baten, itxasaldien indarrez, Jokatu ta bira-untzetik urtetera eldu leiteke, gaur Saturno'k in-gurumari ditun lakoxe erestun biurturik. Orrela diñoie izar-jakitunak.

3. ITZARIÑAK

Olatu ta iz-goraberaz gaiñera, itxasoak ba-ditu beste igikun berezi iraunkor batzuk: itzariñak, (iz-ur- ariñak, ur lasterrak, tiraiñak, xibal ta neurritsu bide da-

gie, ur geldiak egiñiko orma-esi ikaragarriak ezker eskuma ba'leukiezan. Geienik beintzat ez dira sakonak, azal samarrekoak baiño; eta itxas zear dabilenak beingoan ezagutu oi dauz, bizkar gain daroezan gauzetatik, margotik, otz-berotik, gaziégezatik, noruntz doazan eta zelako abiadea daroen.

Zer egiñak diran. Tiraiña onein sor-bideak asko ta biurri dituzu. Aizeak, esan dogunez, olatua jagi-azten dau, azaleko ur-elatxoak tokiz aldaturik. Itxasgizonak, beraz, ur gaiñera begiak zorrotuz igarri daroez aizeen aldakuntzak; aizeak, bada, ur lasterra sortuaz, urrun samarreko biran igitzen dau lenengo, aren eragiñe gero, itzul-utzulika, urrago datorkie. Itxas uinhen luzeera erun goi-bea baiño ogeitik ogetamarrera andiagoa dozu, ta ego aldeko itxas-uretan gerta oi danez, 15 metro gora igon ezker, arein luzeera 400 metrutik gora izan bear. Bere ziztu, abiada orduko 50 kilometroraiñokoa da. Ortik, ba, izugarria dogu itxasoaren indarra, aiaturiko uinak metro laukituko 30 tonelada bes-teko indarketa egin daikee-ta.

Aizearen bultz-indarra ezta, alan be, ur ibilli bizion sortaille bakar nagusia. Ba-da beste eragille bortitz nagusi bat, guztiz altsua dudarik bage. Mississipi ta Maraño ibaien saka-indarra itzalezkoa dogu, baiña areik biak baiño milla bider ur geiago igitzen dabe tiraiñok, Atlantiko'k dabezan uretik lautik bat gixienez, eta au abiada aundiz, orduko legua bikoan. Ekalde aizeak, uraren pixuak, otz-bero ezberdiñak eta itxas-gatzak, alkar moldatu ta eragiñik, sortzen dabez ur lasterrok. Tropikuak euren berotasuna dabe, ta an bitarteko urak goiburuetakoak baiño askoz beroago egiten dira. Eta gauzak -ura be bardin- berotzen diranean, azi ta arrotu egin oi yakuz; andiera bardiña euki arren, batzuk errezago berotzen dira beste batzuk baiño. Ura berotzeko beste edozer berotzeko baiño beroki geiago bear da, baiña bein berotu ezker, bero-giroz ta andieraz bardiñak izanik be, beste edozein gorputzek baiño bero-indar geiago euki oi dau. Alan be, arrokizun danak, ura tropikuetan lez, toki itxian ba'dago, leku itxiko ormai saka dagitse, beroaren neurritz atan be, beroa saka-indar biurtuaz. Orrela, beroaren eragiña beste tresnetan -ontzi ta bultzietan batez be- ikusita, ulert-errezago egiten yaku itxasoak ditun ur-tira orrein ezkutua.

Itxas-gorri edo ekuadore biran, bai goitik bai beetik, ipar ta ego, maila andiko bero-indarrak dabiltz ara ta ona. Bertako urak, ondorioz, sendotasun gitxiago dabe, arro ta aziagoak dira, toki geiago bear dabe, ta itxasoan zear asazkatuko ez ba'litzaz, goragoraka egingo leukie nabarmenkiro, lobelkien andierak berez dauan ordeka ta gain laua naasi ta urdurikatuz. Urak, berez dago-kien lau zabal ori barriri be eurekandu nairik, tropikuak itxi ta ur-azal zear, goiburuetaruntz, poloetarako bidea artzen dabe. Or, ur berotuen tiraiñak. Edu bardiñean, goiburuetako ur otzak, ipar ta ego sendo ta astunagoak, tropiku tartean gelditu dan uts-uneak erakarrita, beera doaz zurrunbilloka, zulo ta sakon areik bete bearrez.

Au, onela azaldurik, aitu-erreza dogu. baiña ba-dira ondiño beste zer batzuk gertakari oni oso-osorik beteten izten ez dautsoenak: itxasoko gatzak, aizeak, lur-egalen sakak eta lurraren ardaitz gaiñeko itzulia. Itxasoa gatzaga dogu, ta tropikoku uren gatzik geiena zabaldiko (latitud) 50 maillara aurkitzen dan ezketiño, beroaren eragiña zelanbait moteldu ta sendoturik, ekuadorerik poloetarako itzariñak auldu ta atzera biurtazo leikez, edo, itxas azpiko sakonez bide egitera beartuz, azpiko eremuetan sar-azo beintzat. Kresalak, ur gatzak ba-dau ba zer ikusia.

Bide orretan baita etsai yakoz aizeak, ekaldeko aizeak bereziki. Ipar aldeko boil-erdian, enbatak jo oi dabe, ta ego alde, galgoetik; itxas gerrirantza biak. Eta aldatu egin daroe zelanbait ekuadoretik poloetara itzariñak daroen ibillia. Uren goraberak, saka ezbarðiñak, lur ertzetako zokounak eta azpiko sakon-sakostak naikoa nahasi oi dabe, darabilen joera, daroen abiada naiz bero-giroa aldatu-azoz. Azkenez, lurak bere burtzil gain dagian itzulia be ezta ur-tiraiñen okertzaile makala.

ITZARIÑEN ZEBAKETA

Tankera edo lege dira ur lasterrak: uts-aldikoak eta bultz-aldikoak, au da, itxas zabaletik lur ertzeruntz datozenak, eta izpazterretik itxas barrurantz doazanak. Ajeze batzuk, era ta jarrai berean, itxasotik liorreruntz saka dagioe urari, lur aldeko adar, kolko ta pontzuetan moltzoturik, eta utsera lez datozala dirudi. Beste aize batzuk, Ijorretik puntz egiñik, itxas zabalerantz sakatzen dabe ura, azpiko ur bero-otzaz eskualde arei olako giro berezia ezarriaz. Iñoiz bidean alkar aurkitu ta tril egin oi dabe ur laster biak, eroien bidetik bata bestea saiesturik. Bultz-tiraiñak azal samarrez dabiltz, 40'tik 250'ra geienik be sakontzen dira-ta.

Ur-xirripok euren gora ta garrantzia bait-dabe, zeatz muga emon eta aibait aitu-errezen azaltzeko, iru zatitan sailkatuko doguz, lur inguruko iru ltxaso (Okean) zabalai dagokienez; Atlantiku, Pazifiku ta Indiku doguz oneik. Itxas-gerriak goitik eta beetik dauz olakoak, beraz banaketa ontan tropikuetatik iparraldera ta egoalderako bidean daukien zer ikusia be ezin geinke aantzi-zulo laga. Lenengo, ba, ipar ta ego, Atlantiku'ko ur xirripak ikasiko doguz; Pazifiku itxasoak dabezanak bigarren, eta Indi'ko itxasoarenak azkenik.

ATLANTIKU'KO ITZARIÑAK

Itxas gerri edo ekuadore inguruan, ezker-eskuma, Atlantiku'n, Pazifiku'n eta Indi'ko ltxasoan ur ariñak dira; iparraldekoak erloi orratzen antzera ezkerretik eskumara jotzen dabe, egoaldekoak bestera, eskumatik ezkerrera. Atlantiku'n, beraz, iparreko ta egoeko tiraiña daukaguz.

Ipar-Atlantiku'ko ekuadore xirripa, Aprika'n, Ginea'ko kolkoan, Gabon laterri inguruan sortu ta ertzez-ertz zerbait gorantza igonik, Liberi parean erdibitu ta adar bata Atlantiku barrurantz sartzen dala, bestea Mauritani ertzean lez bat-batean sarkalderuntz andarikatu ta Atlantiku zear, Kabo Verde ugartearen barrena, orduko 1,4 kilometroko ziztuz, Amerika'runtz doa. Sarkaldeko Indietara, ots, Amerika Erdira eldukeran, beso bitan zatitzen da ostera be; eurotako bat Venezuela, Guajana ta Brasil'go lur-egalak pizkat ikutuz, beerantz doa, itxas gerri azpiko egoaldeko uretan murgildurik; bestea Karibe ta Antilla itxasoan zear, ezker eskumako ur-muturrak eta ugarteak erdi-miazkaturik, Mexiko'ko ur-kolkoan txirristatzen da; eta emen inguruko menditzar estu artean, labe batean lez, eguzki-ziztaz, ots, tropiku eragiñez oso-osorik galdatuta, Kuba ta Florida'ko meargunetatik zear, Atlantiku'ra doa barriro, Gulf Stream edo Kolko Itzariña egiñik.

Kolko itzarin au —Atlantiku erdian kolko itxuraz dagoalako deritxa onela— guztietatik luzeena danik ezin geinke ukatu, itxas gerriaren goikaldetik Amerika'tik Europa'ra ta Europa'tik Amerika'ra osterea birritan dagi-ta. Florida ur-ertzetik gora artu, orduko 5,5'tik 7,4 kilometroko ziztuz, bertako aizeen joaren kontra, New York eta Halifax gaiñeraiño eltzerakoan, Delawar deritxon unean ipar-sortaldera okertzen asten da, Baffin itxasotik beera, Groenlandia ezker ta

Labrador lurmuturra eskoi irradan igaroaz, izotz-mendi eskergaz ta arkaitz-mor kor aundiz gaiñezka Terranova'raino eltzen dan ur otz xirripa gaintxoan itxirik. Andik Atlantiku zear Europa'rako bidean, Azores'era orduko erro bitan zatitzen da; bata, eskumakoa, Portugal'i ikutzeke, Kanarias'tik beera, Zanguru tropikua baiño zerbait beerago, len aitatu dogun Ginea kolkotik Aprika ertzen gora datorrenagaz alkartzen da; bestea, oso zabal, iparrerantz doa Irlanda ta Eskandinavia'tik zear, Espaiña'ri Prantzi'ri ta Ingalterra'ri be saieska lez besanga medar batzk bidaliz; gero iduri danez, iparreko izotz-itxasoan ezkututzen yaku.

Ara ta ona dabilkigun ibai bero auxe da, ain zuzen be, Euorpa'ri bear dauan berokia damotsona. Ezta iñoiz legortzen, ezta gaiñezik egin be; beti dabil, sugetzar bat iduri, ildo berezi batez, ez otzitu ez berotu, gitxi-gorabera beti beromaila bardiñean iraunik. Eta beronen eragiña guztiz onurakorra dogu, batez be guk europarrok; Irlanda ta Labrador, esaterako, luzeera bardiñean dagoz, baiña Irlanda'k giro ederra dauan bitartean Labrador'eko lurrak izotzez estalita daukazuz; Ingalterra'k giro biguna dau, zugatz, ortuari ta olakoak ugari artuaz; Siberia'n ostera, lerro berean dagoala, giro otz ezin-eroana egiten dautzu. Groenlandia ta Eskandinavia aurrez aurre dagoz, bata besteagandik ur samar, zabalerako lerro bardiñean; a otz-erri dozu, au Kolko'ko ur beroak girotzen daulako, eroso samarra bizi izateko.

Salerosketa ta giza artu-emonetarako be garrantzi andia dau ibai bero onek. Europa'ko sarkalde portuak, Lisboa'tik Bergen'era, zabaldi-lerro batean lez aurkitzen dira Boston, New-York eta Filadelfia'koakaz; amerikar portu ta kaiok iñoiz itxiak izan dira izotzagaitik; Bergen'en, barriz, lokiz iparrago egonik be, ura ezta egundo ormatzen, nai-ta lur kolko luzeetan zear barrendu. Baltik itxasoak, alderantziz, Kolko'ko ur lasterren beroaz eztau ar-emonik, eta ango portuak aldikada baterako beintzat izotzak artu ta lei-karraldu oi dira. Orrez gaiñera, aizeak eta itxas ur beroak sarkaldea geiago berotzen dabe, sortaldera dagozan lurraldeak baiño.

Atlantiku'k ba-dauz bere ego aldera be ur xirripa galantak. Itzas gerritik berunzkoak suge kiribildua dirudi, Aker tropikuan olako barruti estu samarra dabilarik. Lenengo Aprika'ranta zuzendu ta gero, Rio de Janeiro baiño beera-txuagotik gora, barriro alkartzen da ekuadore azpian; onen adar bat Brasil'go lur-bazterrak zear doa, Plata ibaian, Magallanes atakatik gora zear-aizez eta ur otz zirimoltsuz beterik datorren xirripagaz bat egiñik. Beste ur xirripa bat, ziztu bizikoa au Pazifiku'tik zear Hornos lur muturra igaro ta, orduari ortzak lez ibillirik, Atlantiku bealdeko erdian batzen yako. Beste bat oindiño, Benguela itzariña edo Aprika eguerdi aldekoa, Buena Esperanza lur muturrean lez asi ta, orduko kilometru batean antza, Aprika'ko izpazterrean gora, Aker tropiku baiño lentxoago, goitik beera doan Atlantiku'ko bero xirripagaz alkartzen da.

PAZIFI KU' KO ITZARIÑAK

Ainbat ur laster daukaguz Pazifiku'n be, ango urak otzarintzen dabezanak. Lenengo, itxas-gerriz goitik eta beetik xirripa bi doaz, tarta bardiñean lez; goitiko ezta zabala, ez sakona be, ta Duncan ugarteetan asi ta, orduko 1,4 kilometrotan, sarkalderuntz artu ta, Marshall ta Karolina ugarteak igaroaz, Makassar meargunetik Java aldean gordeten da; beekoa, barriz, Guayaquil inguruan asi

ta York ugarteaz ezkererantz makurtuaz ta laster adar askotan zatituaz, ezker-eskuma izaro ta ugarte artetik edatzen da.

Baéda beste bat be, Hawaii ugarteaz lez jaio ta ezkererantza beti ainbat ugarte igaro ondoreaz, Txina'ko sortalde Itxasora eltzen dana; emen goruntz artzen dau, ta Japon inguruan Kuro-Siwo edo ibai baltza deritxe; gero Bering itxas azpian ipar sortaldera biurtzen dala, Alaska, Kanada ta Ipar-Amerika'ko lur-bazterrak beroturik, barriro be Hawaii aldera dator, amerikar sartalde mugak beste adarño batekin Panama'ko kolkoraiño gozatuaz.

Ur-xirripa batzuk, Pazifiku ego aldera bereziki, izaro artean aldakuntza andiak dabe. Peru'ko Humboldt'en itzariña, adibidez, otza da ta eskumatik ezkerera dabilena; egotik iparrera doa, Txile ta Peru'ko izpazterrak berotu ta azkenez goitik beera datorkion itxas-gerriko ur beroaz topoz egiñik; urotz onen gaiñez datozen aizeak lurrean berotzen dira euren ezotasun berezia galdu barik, eta emetik dator Peru'n ta Txile'ko itxasaldean aurkitzen ditugu eremu lior ezoak. Adar bat, baita, Australi aldera zuzentzen da, Tasmani itxosoa zirimol bero bat osoturik, Zelanda osoa inguratuta Australia azpitik Indi'ko Itxasora joaz.

INDI'KO ITZARIÑAK

Itxas-gerriko azpiko ur beroak, Pazifiku'koa berariz, India, Aprika ta Australia bitartean aurkitzen dan Indi'ko Itxasoa be jaristen dau; naikoa kiribiltu, orduko 3,2 kilometroko ziztuaz, Madagaskar goi alderaiño eldu ostean, beso bitan lez zatitzen da, -edo obeto irutan-, bata Aprika'runtz doa, bestea itxas erditik zear Australia'runtz, eta irugarrena -Malabar itzariña-, Komorin eta Zeilan'dik gora, Bengala'ko kolkoraiño. Bertako aizeak dirala-ta, ez bardintasun naikoa dabe Indi itxasoko ur bero ta otzak euren xirripa ta tiraiñetan.

SARGAZOEN ITXASO

Bermudas ugartetik eguzki begira aurrez aurre, Sarkaldeko Indiak eta Aprika'ko ur-ertza baiño goratxoago, ipar itxas-gerriko urak itzul-barruti zabal bat egiten daben tokian, millaka legua ditun eremua aurkitzen da: Sargazo-itxasoa; sargatza, gorbeltza edo oroldi antzeko ur-bedarra ugari dalako emon oi dautsoe izen ori.

Ur-bedar, oroldi ta aloka oneik, asi-asieran lur ertzetako arkaitz eta arri artean sortu ta aziak dira nunbait, eta gero, urak bere ibilliean ara eroanak, naiz-ta orain bertan erne, ugaritu ta azi. Bedarrok mota bitakoak dira: igeri dabilzanak, eta pulunpari; areik, toki batetik bestera, igerika, aldatu egiten dirala esan daikegu; oneik, ur gaiñean dabiliz gora ta bera, kresal-kulunkaen besoe-tan. Eta konta-egin ala dituzu, 6.500.000 km.2'ko zabalgoa artzen dabe ta, Kolko ur-xirripak ertzen ertz ikutzen dautse. Aloka oneik, izan, eztira Atlantiku'koak bakarrik; Mediterraneo'n be ba-daukaguz, sail eta moltzo ugarietan.

Sargazo-itxasoa aintxiñatik zan ezaguna; Kolon'ek 1492'garren urtean burutu eban joan-etorrian aitatzen dausku, bere ontzia aloka sail ikaragarritz estalia zirudian itxasotik igaro zala diñosku-ta. Elezarrak, gaiñera, Atlantiku'n ondazten ziran ontzien obia zala i;oen.

EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN ***

872'GARREN URTEKO BIGARREN LARRUKIA

Lau dira, Kukulla'ko larruki-bilduman agertzen zaizkigun urte ortako larrukiak. Aurreneko iruak, egun berekoak, Uztaillaren 4'ekoak, eta iruak eleizgizon ber-berek idatzieraziak: "Ego igitur Paulus abba, simul cum sociis meis loahne presbiter et Nūnu clerico": "Ñik ainzuzen, Paulus abatak, lagun ditudan loahne bereterra eta Nūnu elizgizonarekin batera".

IOAHÑÑE ori, larruki ontan eskuak sartu zituzten lumalarietako baten utsaldi bat dugu; beste bi larrukietan egoki idatzirik agertzen bait zaigu bereter aren izen ori: lohannes.

Bein baiño geiagotan aurkituko dituzu idazti zarretan orren antzeko utsaldiak.

Zergaitik baten ordeztu iru larruki idatzierazi zituzten egun berean iru gizon aiek? Iruetan gaia ez berdiña zutelako:

Aurrenekoan, ERRAN izeneko erritxoan Martin Doneari eliz bat nola eraiki zioten esaten digute. Bigarreanean, LOSA deritzan aranean beste eliz bat Martin Doneari nola egin zioten, -SAN MARTIN DE LOZA deritza oraindik elizaren inguruan sortu zan erriskak-, eta irugarreanean, DONDISLE aranean beste eliz bat, au ere Martin Donearentzat nola altxatu zuten.

Laugarren larrukia, naiz urte berekoa, zearo ezberdiña da. Bere bidez, Errodrigo izen-zuan jaun batek bere burua eta bere ondasunak eskeintzen dizkio Flaino'ko Martin Deunaren lekaidetxeari.

Oartuko ziñan noski zenbat aldiz agertu zaigun lau dokumentu oietan Martin Deunaren izena. Eta, ori, IX mendean! Eta Euskalerrriaren sarkalde-sarkaldean gaiñera! Autrigoien lurrean! IX mendean! Konpostela'rako erromesketak indar artu baiño askoz leenago!

Ez da beraz, esan oi dan bezala, Martin Doneaganako eusko-eraspena, Konpostela'rako erromes frantziarrek ekarria.

Len ere esana dut nola izan zan nere ustez sortua euskaldunek Martin Deunari izan zioten zaletasuna:

Martin Donea, IV mendean, Turena'ko Tours urian bizitu zan; lekaide aurrena eta gotzai gero; eta inguru luzean aurkitzen ziran lurralde guztien mixiolari bet.

Garai artan, euskalduna zan Akitania. Baita, oraindik neurri ederrean Akitanian iparrean aurkitzen dan Dordoña ibaiaren aran zabala ere. Gezurti gelditzeko bildurrik gabe esan daiteke, Tours'eko Donemartin lurralde aietako euskaldunen artean mixiolari ibilia izan zitzaigula.

Lau dokumentu oietatik, azterturik utzi genduan aurrenekoa "EUSKERA-ZAIÑTZA" onen azkeneko bi zenbakietan. Aztertu'itzagun orain bigarrenak d-amaizkigun xeetasunak.

Ona, bertan agiri zaizkigun toki-izenak:

SEREA	LARRATE	ESCAFLIETA	FOÑTAÑAS
FLAÑO	GOBIA	VARGA	LUMBAÑA
LAUSA	TOVIELLAS	LASTRAS	CORMEÑZAÑA
ÑAPOÑE	MAÑATA	RUSIOÑ	IMAÑA
ATRIACA	VILLA LUMÑOS	PETRA LATA	MENA
SEREA	QUEÑQUEZES	VAL CAVATA	DOÑDISLE
VILLA MATE	BARO	SUB PEÑÑA	

Ema'logun begi, astiro ta patxadaz, izen oietako bakoitzari, edestia-zear gure Euskalerrria nola murrizten joan zaigun jakiteko.

Izen oiek danak Autrigoién lurrean zeuden, Losa, eta Mena izeneko arane-tan, gaur-oraindik Araba dan Gobiaran'eko bat edo bi izan ezik. Lurralde oiek euskaldunak ziran orduan.

Eta baita lurralde oietako erri-izenak ere, ikusi dituzun GOBIA eta LARRATE oiek adieraztera ematen diguten bezala. Eta badira lurralde aietan larruki onek aipatzen ez dituan baiñan argi-argi euskaldunak diran toki-izen geiago ere: Basabe, Olax, Argayaz, Oteo...

Larrukiak dakarzkianak ordea, zero datoz itxuraz aldaturik.

SEREA.- ..."iuxta Serea aqua": "Serea errekarén alboan". Losa Araneko erreka bat da. Ez da Madoz'en iztegian agertzen. Askoz gutxiago gaur-egun-goetakoa. Alare, bada gaur Losa'n Riosería izeneko erri txiki bat, eta erri au bai, au agertzen da Madoz'en iztegi zarrean.

Bá, XX mendeko SERIA au eta IX mendeko SEREA zar ura, biak izen bat bera dira.

Gaur, larrukiak Serea izen-eman zion ibai ari, JEREA esaten zaio, eta ia orain arte XEREA esan izan zaio.

Araba'n bada, Gazteiz'tik bertan, Zerío, -"zeri-o"- izeneko errixka bat. Ta, euskeraz, "E" izkia bokal edo abotsizkien aurrean "I" oso errez biurtzen dala-ko...; eta Riosería'ren SERIA ori eta larruki zarreko SEREA ura itz bat berdiña diralako...; eta, Araba'ko Zerío XIII'go dokumentu batean Cerío, ots, Serío, agertzen dalako..., eta Jeria ibaiari ere len beti Xeria esan zaiolako, izen-enbor bat bera dute nere ustez beintzat, -CERIO, CERIO, JERIA, XERIA, SERIA, SE-REA-, itz oiek danak. Eta enbor ori, "sere", "seri", "zeri" edo "zere" da. Nere ustez, "ZERE".

Ez al zaizu iruditzen, irakurle, auzi ontan ongi nabillela?

"A" ta "O" atzizkiak zer adierazten duten badakigu. "ZERE" k zer esan nai duan jakiten dago kokxa.

Gaiñera, enbor lez "zere edo "zeri" edo "zeri" daramaten izen geiago badugu Euskalerrrian:

Zeribay, Bizkai'n, Güeñes'en auzo baten izena da. Ez al diozu "ZERI-IBAI" orri RIO-SERI'rekingo aidetasunik ikusten?

Zeriola eta Zerisola, eta baita Zeresola ere, gure arteko gizakumeen abizenak dira. Abizen oietako "ola" zer dan badakigu. Zer ote da "zere".

Ñere jakiterik-eza apalki aitortu bearrean aurkitzen nauzute. Ez bait dakit zer izan daitekean. Eta "helecho" esan nai duan "garo"ik datorrela esatea, geiegi esatea dala derizkiot. "Garó" orren "g" galdu, eta "aro", "era" biurtu ondorean, "era" ori ere "eri" biurtzea, kate luzeegia iduritzen zait etimologilez ontzat artua izateko.

Bearbada, "zere" ori, izketa bizitik galdurik, toponimian bakarrik gorde zai-gun itz zar bat izatea baleike. Itz asko galdu bait ditu millaka urteak-zear gure izkuntzak. Eta okerragoa dana, asko bait dira oraintxe bertan ere galtzen di-tuanak, gure aiton-amonak iltzen dijoazkigun neurri berean.

FLAÑIO.- "...basellicas fundata sunt in Foce de Flanio". Dakusazunez, ez ziran gure lumalari zar aiek oso latinlari yayoak.

Bestalde, arras aldaturik dator noski-ta, ezin esango dizut Flanio ori zer zan. Erriska bat? Erreka-bazterren bat? Flanio'ko "foze" edo "arrupeko erreka" aipa-tzen bait digu larrukiak. Aspaldidanik Burgoas'koa dan Losa aranean zegoala bai, ori ere esaten digu: "In loco que dicitur Lausa": "Loza esaten zaion lekuan".

Madoz'ek ez du bere iztegian Flanio'rik jaso. Izen ori aspaldi galdua dalaren adigarri!

Are geiago, etimologi-lana zaillagoa gerta dakigun, izen ori ongi idatzirik da-goan ere ez dakigu. Urte ortako beste documentu batek, Flanio ez baiña FLAÑIO esaten bait dio: "ad atrio Sancti Martini de Flaino". "Martin Deuna'ren atarira".

Antziñate artako dokumentuetan sarri agertzen diran "atari" oiek zer esan nai duten, beste idazlan batean aztertuko dugu.

"F"z asten diran itzak oso gutxi ditugu. Euskalerrian. Askoz gutxiago "FLAZ" asten diranak. Dirudianez, euskera ez bait da beiñere "F" soiñuaren adiskide izan. Iparraldetarrek ere prantzeratik artuak dituzte beren izketara sar-tu dituzten "F"ak.

Alatagutziz, bada Araba'ko mendietan FAIDO izeneko errixka bat. Baiña, dirudianez, erri orrek ere "F" ori ez du jatorrizkoa. XI mendean, 1.025'garren urtean, PALDU esaten bait dio Kukulla'ko burni-barrean larrukiak.

"Paldu" ez baiña "Paidu" idatzi nai izan zuan seguruaski lumalari zar arek, baiñan oartzeke goruntz joan zitzaion luma-ta, "i" idatzi bearrean "l" idatzi zigun.

Erri ortatik ez urruti, bada Trebiño'n aurkitzen dan beste errixka bat ere: FUIDIO. Ta erri onen izena ere, "F"z ez baiña "P"z dago dago idatzirik 1.025;eko burni-barren larruki artan. Bi mende geroago berriz, EUDIO esaten zaio beste larruki batean, eta, azkenik, FIUDIO XVIII'go dokumentu batean. Orain ordea, FUIDIO.

Oartzen al zera irakurle aldaketa oiek danak nola zaillagotzen duten etimo-logi-lana?

Ñi beintzat ez nauzu gauzan, aztertzen ari geran larruki ontako FLAÑIO orren etimologia zer izan daitekean esateko.

Aitor dezadan ala ere, "F"z asitako abizen batzuk aurkitu dezazkezula A. eta A. García Carraffa eta J. Kerexeta'ren iztegiatan. "Flora" bezala, atzerritik sartu-takoak geienak. Edota "Fagoaga"ren antzera jatorrizko "P" "F" biiurtu dutenak.

Bearbada, "F"z asitako abizenetan ezagutuena, eta euskotarra gaiñera ja-torritz, -Otxagabi'koa ainzuzen-, Ñaparroa'n aski ugari zabaldurik dagoan Fla-marike dugu, L. Mendizabal'en ustez, Amerika'ren aldakuntza.

Ta... AÑO, atzizki bezala ez baiña, aurrizki bezala agertzen danean zer?

Era ortako itzak ako bait ditugu Euskalerrian.

AÑO bera, abizena da. Anotz, Ñaparroa'n Ezkarbarten areneko erria. Eta Ñaparroa'n bertan 01lo aranekoa berriz beste Anotz bat. Ezaguna da Anoeta, Tolosa'ren ondoko erri eta Donosti'ko auzko bezala. Anoatea berriz, abizena da. Anotzibar, Ñaparroa'ko Odieta aranean, sorginkeriarri dagozkionetan izen aundiko erri bat.

Eta "AÑO" eta "AÑU" itz bera dirala gogoan artzen ba'dugu askoz geiago aurkituko dituzu aurrizki ontaz asten diran izenak, eta askoz eta askoz geiago oraindik, "AÑU" eta "AÑO" ere beste bi aiekin fonetika utsez bereizitako itz bat bera dirala oartzen ba'zera: Jatorriz naparra eta Bizkai'n ondo ezaguna dan AÑOBROS abizena adibidez, beste geiagoren billa asi bearrik gabe.

Izen oietan denetan zer ote da AÑO?

Kerexeta'ren ustez AÑA'ren aldakuntza. "Ana" berriz "larre" ornen da; gazteleraz "pasto".

Gure iztegiek ez dute itz ori zentzu orrekin agertzen, baiñan ori egia izatekotan "AÑA"z eta "AÑA"z asten dan izen-pillo osoa ere len aipatutako aien aide izango genituzke.

AÑO'rekin kontuz ibilli bear dala esaten zuanean beintzat bai. Arrazoi zuan Mitxelena'k.

Ez ordea, nere ustez, Abadiano'ko FAUSTEAZ'z esan nai izan digun ortan. Ñere uste apalez Faustea orrek, ez bait du "Fanum-Ostea"rekin zer ikusirik.

"Faustea" ori, azkeneko "a" luzatuz gero, Faustea' biurtzen zaigu, eta Arteaga, ots, "arte-tokia" dan bezala, Fausteaga da, era berdiñean, gure Faustea' ura ere: "Fauste edo Fausta'ren tokia": "Fausto edo Fausta baten bizi-tokia" alegia, Peruaga Peru'en bizitokia dan bezala.

Itzen azkeneko "a" luzatuz bere aurreko "g"ren ezabatze edo elisis ori maiz egiten dan gauza da: "Larreá'ko iturria" esaten zaio Araitz aranean dagoan "Larreaga'ko iturriari", eta "a" oraindik geiago luzatuz, "Unaa'ko putzua" esaten zaio Araitz'en dagoan Aralar'ko "Unaga'ko putzuari". "Ñi naiz Artea'ko abadea" esan zidan bere burua aurkeztean "A" ori ia-ia bikoiztatuz,- gero Berriatu'ko abade izan zan apaiz jaunak.

Barkatu eidazu irakurle, baiñan idazlan au luzatzen ari dan ezkeru, nai nuke, berez ain legorra duan gaia goxatzeko, goxagarri zerbait zuri kontatu, naiz esatera nijoakizun au, zerbait goxatzeko ez baiña edozer gautza garrazteko egian egokiagoa gertatu:

Naparroa'ko Anotzibar aipatu dizutet, antziñako sorgiñ-erri bezala. Ez noski ziorik gabe. 1575'garren urtean, Esain'dar Pedro, Ziaurritz'ko ta Anotzibar'eko abadeak, inkisiziora salatu bait zituan bere eliztar batzuk sorgiñak zirala esanez.

Gogorra izan zan Inkisizioaren azken-iritzia: Anotzibar'en eta erri orren inguruan ugari zirala sorgiñak; Deabrukerizko jakintzizkutua erabilliz, beren buruak ikusteziñak biurtzen zituztela; orrela, iñork ikusteke, aidez sartzen zirala etxetara; beste batzuetan zakurren edo beste pizti batzuen itxura artzen zutela; uzta-soroetan gaitz aundiak egiten zituztela; Elizara sartuta gurutzeak eta santuen irudiak txistuka iraintzen zituztela...".

Baiñan ohea izago dugu itza fiskalaren eskuetan uztea. Ikus zer erabaki zuan:

"Que en Anocibar y su comarca había muchas personas que con sus hechicerías y artes diabólicas se meten invisiblemente por el aire en las casas y que se convierten en perros y otros animales, y destruyen y pierden todos los sembrados; y entran en los templos y escupen a los crucifijos y bustos de los santos, y hacen todos los días y noches daños muy notables, cosa abominable y reprobada".

Sei anotibartar izan ziran zigortuak: Marijuana, eta emakumezko onen bi illobatxo: zazpi urteko Martiniko, eta amar urteko Migeliko; "Xandua" esaten zitzaion Mariatxo izeneko andereño bat; eta bi gizonezko: Migel Zubiri, eta Grazia zeritzan beste bat.

Danek jasan bear izan zuten "potro" esaten zitzaion tramankuluan oiñazeketa gogor izugarria. Bi gizonezkoak, Zubiri eta Grazia, espetxean il ziran gero, oiñazeketa aren ondorioz ezpairik gabe. Marijuana gaixoa berriz, Iruña'ko arre-siaren gaiñean "Takonera" esaten zaion tokian bizirik sutan errea izan zan, bere lagunen izenik salatu nai izan ez zualako.

ATRIACA.- "...deinde comodo peregit ad Atriaca": "Gero, Atriaca'ra insten dan eran".

Madoz'ek ez dakar Atrika'rik. Eta Madoz'ek ez ekartze orrek biotako bat esan nai du: edo erri orrek izenez aldatu duala, edo, beste erri txiki asko bezala, aspaldi ezabatua dala. Aspaldi benetan ezabatua; bere denboran oraindik oroitzen ziran erri ezabatuak aipatzen bai ditu Madoz'ek. Alare, gogoan euki bear dan gauza da, oso ederki landu zuala Madoz'ek gure Euskalerria; ez ordea ain ongi ta zeatz Españi'ko probintziak.

Alberto eta Arturo García Caraffa'k badituzte liburu bi: bata, ("Urkiza" itzaraiño) 88 tomokoa, "Enciclopedia Heráldica y Genealógica Hispano-Americana"; bestea, "6 tomokoa, baiña au osoa: "El Solar Vasco-Navarro". Eman diet liburu oiei ikustalditxo bat, baiñan aztertzen ari geran itzaren aipurik ez dakarte.

"Atriaka"! Bañan izen ori euskalduna al da benetan? galde egin dezaidaket agian norbaitek.

Zegoan tokian zegoalako naitanaiez izan bear zuan euskalduna. Euskalduna du beintzat "KA" atzizkia.

Gaiñera..., ondo idatzirik ote dago izen ori? Ez ote zituan larruki au erabilli zuten aietakoren batek, "T" eta "R" tokiz aldatuta, ARTIACA idatzi bearrean "-Atriaka" idatzi?

Orrela ba'litz, "KA" eta "GA" gauza bera diralako, izen ori ARTIAGA, izango genuke: ARTEAGA, autrigoiak ala karistioak ez geranon izkeran.

Atriaka beraz, Artiaga izango litzake. Zergaitik ez? lurralde ura lur euskalduna zan ezkerro.

Gaurkoz emen bertan eman bearko diogu amaia gure azteketa-lan oni. Idazten ari nauzuten "Elizaren Edestia"ren seigarren liburua irarkolarako al dedan azkarren gertutzen ari naizelako, egunotan beste ezeratarako astirik gabe aurkitzen bait naiz.

"Euskerazaintza" onen datozen zenbakaietan jorratuko ditugu, aztertzeke gelditu zaizkigun erri-izenak.

LATIEGI'TAR BIXEÑTE

KATXABA-ITZAK ETA EUSKEREA

"Katxaba-itzak", bear ba'da, euskeraz iñoz esan ez dan berbea da, baiña erderazko "muletilla" esateko egokia dala uste dot.

Izkuntza guztietan izaten dira itz batzuk isil-uneak beteteko. Zelako izil-uneak? Ba, norbera pentsatzen dagon artean edo berba egokia burutik agora ez datorren artean esaten doguzan itzak, berbak. Berba oneik ez dabe ezer esaten, barrua egertzeko alperrekoak dira, baiña erabilli egin bear izaten doguz utsune bat beteteko edo oiturea orrelan dalako.

Iñoz berba bat barik izki bat izaten da, bakarti edo bokal bat. Or ikusiko dozuz trebe-trebeak ez diran izlariak "eeee..." esaten. Orrei Frantzia-aldean "España'ko bei baten antzera egiten dau berba" esaten dautse. Euskeran beste jokera bat dago, antzekoa, eta au Txomin Agirre'k bere "Kresala"n agertzen dau: azkenean ots bakarti bat bear-izan barik agertzea da: "Guk-uuu... ez dogu...". Baiña gauza guzti oneik katxaba itzakaz zer-ikusia izan arren, utsunea betetea, ez dira izatez, katxaba itzak.

Katxaba itzak itz osoak dira eta toki egokian euren adierazpena dauke, baiña katxaba-itza lez erabilten diranean, ez dira bear eta ez dabe ezer adierazten.

Euskereak ez dau izan katxaba itzik eta gaur be erabilten doguzanak erderaz erabilten doguz. Añenakaz eta itz debekatuakaz jazoten dana bera jazoten da emen. Beste egun baten adierazoko dogu itz debekatuaren erazoa.

Euskerak katxaba-itzik ez dauakn lez, arlo onetan be itz debekatuakaz artu dogun jokabidea bera artzen dogu: Enderazkoak artu. Orrelan gure euskerari erdel-itxura gogaikarria emoten dautsagu.

ZARRAK ETA ORAINTSUKOAK.

Katxaba-itza batzuk antxiñakoak dira eta geu be gazteak izan ez arren, gure aititari edo amamari entzunak. Orduan, gitxienez euskeraren barruan, erriko euskeran eun eta berrogei ta amar urte ba-daroez.

Beste batzuk, ostera, oraintsu sartuak dira eta gaur bertan be sartzen diardue. Ikusi dagiguzan banaka.

Esaterako, gure amamak sarritan esaten eban olako zerbait: "Gure mutilla ez da zurra, baiña, sikanen be, ardaue edango ez ba'leu!". **Sikanen be** ori argi dago erderatik artutako "en si quiera" dala, ori baieztu bearrik ez dago. Orren orde **gitxienez** esan ba'leue askoz euskaldunago litzakean. Gaiñera erderaz ez da sekula esaten "en si quiera", zergaitik sartu zan ba esaera ori euskerara, zelan edo nondik? Ez dakigu, baiña or dago.

Orren antzeko beste bat "**biinke**" da. Au be zarrai antxiña entzuna. Esaterako: -Zure zartzaroan lan egiten dozu? -Biinke, len be naikoa egiñak gara ba! Ori, argi dago, erderazko "bien que" da. Eta ori esateko ba-dira euskeran itz egokiak, esaterako "bai orixe!", baiña "biinke" esaten eben eta itz ori esan barik ezin ibilli, katxaba barik batzuk ibilli ezin diran lez. Bearrezko itza zan.

Ez dakit noz sartua dan baiña ementxe agertu geinke "aunke sea" be. Esaterako: "Etorri zaitetz ordurako, aunque sea egazkiñean". Orren ordez errez esan zeitekean, "besterik ezean", eta askok esaten eban, baiña estutasunean eta errezagot edo sarrigo entzuna zalako "aunkesea" esaten eben batzuk.

Antxiñako euskerea katxaba-itzak ba ebazan eta ez gitxi, edo ez gitxitan erabilliak, baiña aspaldiko urteetan geiagot agertu jakuz eta sarrigo erabilten dira..

Esaterako "es que" edo "asi es que". Esaterako: "Atzo ez nintzan etorri. Ezke zalan etorriko nintzan ba..": Zergaitik esan ez "izan be zelan etorriko nintzan ba...?". Euskereak ba- dau olako lekurako bere itza, bear ba'da bat baiño geiagot, baiña oiturea sartzen danean... Izan be izkuntzak oiturak dauz oiñarri. Kontuz errira oitura txarrak sartzeaz! Baiña zori txarrez sartu egiten jakuz.

Oraintsu sartua dogu, bear ba'da oraintxe sartzen diarduana, "vale". Gaur zar eta gazteai eta edonon entzuten dautsegu "vale" ori. Sarrigan entzuten dan berbea.

Berba au, azken baten batera gatzela agertzeko berbea da, ingelesez esaten, da "okei"ren antzekoa. Antxiñako Erroma'n bizi izan zan Zizeron'ek be ere eskutizat "vale" esanaz amaitzen ebazan, baiña aren "vale" itzak beste adierazpen bat eukan: "Osasuna izan egizu", baiña gaurko "vale" onek ez dot uste aregaz zer-ikusirik dauanik, gaurkoak geiagot esan nai dauala dirudi beste adierazpen au: "balio dau" edo "ondo dago". Esaterako: -Biar zortziretan alkartuko gara, "vale"? -Vale. Eta zergaitik esan -Ondo deritxazu? -Bai, ondo. Zori txarrez erderatik bestea entzun dogu ta guk artu.

Irratitik alkar-izketa bat entzuten dogunean, aspertu arte entzuten dogu bein eta barriro, erantzunen asieran "Bueno" itza. Eta alkar-izkera Iparraldean izan ezkerot "bon" entzungo dogu. Bein baiño ez ba'litz, parkatzekoa, baiña ain sarrigan! aspergarria.

Ori, argj-argi da katxaba-itza, zelan asi ez dakianaren itza, edo pentsatzeko astia artu nai dauanarena. Baiña zergaitik ez "bueno" esan barik "ederto" edo "ondo ba"? Beste ziorik ez dago, erdeldunak "bueno" esaten dabelako eta gure euskerea euren morroi izatera biurtu dogulako.

Baiña ba-dira oraindiño beste katxaba-itz edo katxaba-berba batzuk oraintxe sartzen diarduena eta gure belarriak orretara egin barik dagozelako, min aundiagoa egiten dauskuenak. Ikusi dagiguzan batzuk.

Erdeldunak aspaldion, zer esan burura etorten ez jakenean, berba egokia miñeratzen ez jakenean, "est0000..." esan eta orretan gelditzen dira. Ba euskaldunak asi gara "esto-ori esaten: -Noiz etorri da andoni? Ez dakik ziur baiña, est000, lau bat egun izango dira. Erderatik gauza onak artuko ba genduz, giputzak esaten daben lez, gaitz-erdi, baiña eurak dabezan gauza txarrak, txarto esanak, artzea, benetan gauza samiña da.

Arrigarriena aspaldiko amar bat urtetan entzuten dogun au da: "porque" esatea. Au Bermeo'n entzun dogu eta Ondarroan be asi dala uste dot. Esaterako: Gaur ez dogu lanik egin porke langilleak uts egin dabe".

"Zergaitik" ori euskeraz agertzeko bide eder eta egoki bi dago: "Gaur ez dogu lanik egin, langilleak uts egin dabe-ta" edo "gaur ez dogu lanik egin lan-

gilleak uts egin dabelako". Beste era bat izan da, errian onartua baiña ez gramatikalarien aldetik: "ze". Gaur ez dogu lanik egin ze langilleak uts egin dabe". Iparraldean antxiñatik "ze" orren ordeaz "zeren" eta "zerren" esaten izan dabez: ez dogu onartu jokabide ori, baiña gitixago onartzekoa da "porke". Eta, zori txarrez, ba-dator.

ZERGAIK ERABILTEN DIRAN

Esan dogu, erderaz asko dirala olako katxaba-itzak. Erdeldunak, izan be, maixu dira ezer esan barik berba egiten. Jokabide orreri Gazteleraren Errege-Akademiak "Kantinflaskeria" esan dautso. Kantinflas antzezlariak ori egiten ebalako eta orrelan barre-gurea sortu. Geratu beite au emen agertua, oraintsu il dan Mario Moreno "Cantinflas"en oroimenerako. Baiña ori ez da euskaldunen jokabidea, euskeraz oso gatxa da ezer esan barik berba egitea. Baiña, antza, naikotu gara beti gure berbetan barrua agertu-gureaz eta orain erderatik artzen doguz ezer esaten ez daben berbak.

Berba orreik, gaiñera laburrak, sarritan erderan entzunak dira eta gure izketa-aren joanean estualdian gagozenez ondo jatorkuz iges egiteko edo entzuleari itxaro-erazteko. Geure euskerearen kalterako!

EUSKEREAREN KALTERAKO

Itz orreik, esan dogu, laburrak, errezak eta sarritan erabilliak dirala eta orre-egaitik, aijn sarritan entzuten diralako, euskereari kalte aundia egiten dautsoe. Ainbeste "bueno", "vale" ta olakoak entzunez, erdel-kutsua artzen dogu eta belarrietan min egiten dasku.

Alperren jokabidea da. Berba orreik esaten dira, euren lekuan esan daiketan euskerazko itz jatorrak ez billatzearren, euskerearen onerako alegin apur bat ez egitearren.

EZEREZKERIAK?

Idazki au irakurten dauan batek baiño geiagok esan daike: Ezerezkeriak eta gauza garrantzibakoak dira orreik. Gure euskerearen arazoak sakonagoak eta larriagoak dira...

Ez uste izan! Sarritan erabilten diran berba oneik sekulako indarra dabe eta izkereari itxurea emoten dautsoe, oraingo onetan itxura baragarria.

Aspaldion euskerara ainbeste itz sartzen dira, jakintza bera bere aldatzen doalako, baiña sarritan erabilten ez diran itzak izaten dira geienetan, oneik ostera esaldi bakoitzean agertzen diran itzak dira, alegin apur bat egin ezkerorez alboratu leitekezan itzak.

Ba-dakit nik gure aldizkari onetanau esateak urtebiderik ez dauala emongo, irakurle gitxi diralako gureak, baiña nik salakuntza egiten dot eta ondorenak ez dira nire esku. Gaiñera, beste toki batzutan be ekin eta ekin egingo dot salakuntza au egiten. Zerbait lortzen ba'da eta euskereari bideak zabaltzen eta argitzen ba'dautsaguz... poza ta bakea!

OLAZAR'TAR MARTIÑ'EK

AGUR TXOMIN AITARI

Danok ondo baiño obeto dakigu egunen baten il bear izango doguna. Biar zein urte batzuk barru. Ori eta guzti be, ez dogu orregaz konturatu egin gura. Eta eltzen jakunean, bai norberari zein senide ala adiskideei orduan geureganatzen dogu eriotzaren benetako esangurea.

Ori jazo jatan niri, lakakortaxarena tar Txomin Aitaren eriotzaren barri emon eustenean. Sentipen illun eta mingotsa, baiña nai-ta naiez onartu bearrekoa dana.

Zer esan neken Txomin Aitari buruz? Egia esatekotan, Txomin Aita zanagaz birritan baiño ez nintzan izan. Baiña, naikoa izan jatazan aukera bi orreik bere kristautasun zintzoa eta euskerearenganako maitasuna igarri eta argi ikusi al izateko.

Gorabera asko izan zituan bere bizitzan. Batez be, Españaiko guda anker ortan. Iltekotan ibilli zan eta. Orren ostean, atzerrira joan jakun Txomin Aita eta berrogeta bost urte igaro ebazan Mones Cazon izeneko erritxoan, Argentinan. Urte guzti areitan, Euskalerritik ain urrin egon arren, ez eban iñoz bere euskal sena sakona galdu. Alderantziz, baiño.

Argentinako erri aretan bizi zala, eten barik eta kementsu ekin eutsan geure jakintza eta biziera zabaltzeari. Bai euskera arloan eta bai bertan bizi ziran euskaldunen alde.

Euskera eroian bere biotzean gure Txomin Aitak. Beti. Lan bikaiñak egin zituan euskerearen mesedean. Eta adibide legez or doguz, alde batetik "Martin Fierro" lana "Matxin Burdin" euskeratuta. Eta bestetik, Erlezaintzari buruz egiñiko lan erraldoi ori. Mones Cazon erria ospetsu egin ebana. Eta beste lan asko egin ebazan geure mintzaera ederrez.

Bestetik, Argentinan euskaldun asko bizi ziran. Eta gure Txomin Aitak eurei laguntzearren, Euskal Etxeak sortzen lagundu eban eta gaur egun Euskal Etxe batzuk aurkitzen doguz errialde ortik zear.

Ikusten dogun lez, urrin ibilli bai; baiña bere Euskalerrri maitea aitzu barik. Ori, ezelan be.

Beste aldetik be, bere kristautasun aundia aitatu bear. Mones Cazon izeneko erri-txo artan egindako a ez da gauza gitxi. Bertako bizilagunen alde gauza asko eta onak egin zitun gure berastegitarrak. Ez da arritzekoa, beraz, bertakoak Txomin Aita biotzean eroatea. Maitasun utsa zan-eta.

Eta, azkenez, egun batean, itzuli jakun bere jaioterria dan Berastegira. Ez pentsatu, baiña, atsedean billa etorri zanik. Ezelan be.

Bere izakerari zintzo izanez, euskerearen alde jarraitu eban lanean. Bai euskal liburuak argitalduten, bai erderatik euskerara lan ugari itzultzen edo-ta diru asko emoten euskerearen onerako.

Gogoratzen dot nik, igazko Gabonillan bere Berastegiko etxera joan nintzanean zelango abegi edo arrera bikaiña egin eustan. Zelako aderez esaten eustan euskerearen alde lan egiteko. Askok maitatzen eban euskerea. Eta ori dala-ta, kezka aundiz ikusten eban gaur egun gure izkuntzak daroan bidea.

Azkenez, joan dan Epailleko 25an, gaixoaldi batek jota, beste mundura joan jakun euskaldun eta kristau zintzo eta neka-eziñ au.

Bere eriotzagaz, bera lako gizon jakintsu asko bear dauzan gure euskereak galera aundi bat izan dau, zalantza barik.

Bitartean, bera ezagutzeko zoria izan genduanok, jarraipena emon egin bear dauzagu bere elburuari: Euskera, ERRI-EUSKERA, aberastu eta zabaltzea Euskal-Erriari zear.

Orixe izango litzake, izan be, gure Txomin Aitari egin giñeion oparirik onena.

Ainbat eta ainbat urtetan lanean, jo-ta=ke ibilli ostean eldu jako atsedean-ordua. Ondo merezia, benetan.

Goian bego, betiko zorionean. Eta Egun Aundirarte.

MALAX-ETXEBARRIA TAR YON

TXOMIN JAKA KORTAJARENA

1906 urtea aberatsa izan zan, urte argia, euskal literaturan ezagutuko ziran maisuen sortzetan.

Urte aretakoak doguz, Iñazio Berakoetxea, "Aita Eustasi", bilbotarra.

Plazido Mujika, urnietatarra, euskal iztegi mamitsu eta ugarien gertutzaille eta idazlea.

Juan Thalamas Labandibar, beobitarra, Pikabea eta Fagoaga ospetsuekin batean "Gernika" aldizkariaren sortzaillea.

Balendin Enbeita Goiria, muxikarra, Kepa "Urretxindorra" zanaren seme bertsolari txapelduna.

Joakin Zaitegi, arrasatearra, olerkari saritua eta bere sormeneko "Euzko Gogo" bitartez olerkarien kandela biztuta zaintzea lortu ebana.

Erramon Murua, ordiziarra, euskal idazle zuur eta itzultzaille trebea.

Gallastegi tar Kauldi, Bilbao'ko San Anton'go eleiz buru argi, biozkor eta adoretsua. Elorriotarra,

Iñaki Barriola donostiarra, osagille argi eta euskal antzerkien idazle bikaiña.

Eta Martiaren 27'an bere sorterri izan zan Berastegi'n azken agurra egin dautsagan Txomin Jaka-Kortajarena.

Larogei ta zazpi urte jaio zirala, batzuk beteta, besteak aurten urteak beteteko. Euretatik bat edo beste bizi da. Baiña geienak agur egin euskuen.

Azkenak, "don Txomin'ek" egunotan.

Txomin Jaka-Kortajarena abade izan zan. Ñabarrete'n egoan guda sortzean. Gero "Araba" gudataldeko mutillen zaindari. Eta gero... askoren bidea, erbestea eta urandiak igaro ta Ameriketara. An batetik bestera ibili, Argentinan geratu eta ango Monez Cazon erri beartsu bat aukeratu bere lanetarako. Lan eta lan bertan, bizirik ez eukan erritxo aretan, erria fedean sendotu eta giza bidean aukera barriak erakusten. Gaur, Txomin'eri esker eta berak erakutsita, erri a erle zaintzatik bizi da eta bertakoak ezin dabe aztu euskai abadeak eurei egin eutsen era guztietarako mesedea.

Txomin'en gazte aroko euskal olerkiak ezagunak dira. Bat aipatzeko "Amandrearen ollo aldra" bizi bizia.

Ameriketa'n ez eban bastertu euskerarik. An euskeratu eban eta argentinarak biotzez eskertu eutsen, eurentzat 1872 urtean Jose Hernandez'ek argitaratu eban Martin Fierro'ren epepeia gogoangarria, "Matxin Burdin" euskal deitureagaz.

An argitaratu eban baita Euskera Erdera iztegi bat.

Txomin'en ardura zan beti euskerarentzat ez dagola itzulpenerako eziñekorik eta origaitik euskeratu zitun lan sakon batzuk. Esateko RH ezezkorra euskaldunetan'eta abar, eta Erleei buruzko liburu mardul bi idatzi.

Igazko urtea osasunez makal asi eban, biotzeko abailla geiegian abiazi yakolako; alaz eta adorez idatzi eustan: "Or dezute Saralegiren Ñaparroako guda edestia, benetan illeak erlazten dituan edestia, Orain Arabakoa zuzenduxe dut irarkoletatik eta ori bukatuta zuenari ekingo diot, Españako espetxe guztietako

edestia, eta orrela ikusieren dute gure ondorengo gazteak guk nola iokatu genduen eurek arabide ori artzeko. Orrela anai gudaren lau erkietako edesti bikaiña, eskuetan izango dute ondorengoak".

Beste liburu bat, ederra bera, "Bizitzan Bi Goiasmo" berak euskeraz idatzia, erderaz jarri eta eurei bialtzeko eskatu eutsen Argentinako bere eleiztar izan ziranak. Zertarako? Ain zuzen Txomin berberak asitako zarren gaxotegien etxeondoa amaitu nai ebelako ortik atarateko itxaropena eukan diruagaz. Eta bere kartan iñostan: "nire azken lana ori izango da Jaunak onartu duan txartela bialtzen ba dit".

Eta ain zuzen bat bateko gaixoak jo eta il danean, azken zazpi orrialde bakarrik falta zirala erderatzeko eta nok egin izentatu eta bake-baketan il zan.

Orrelakoxeak izan dira euskal idazle eta abadeak. Guk ezin ukatu eurei gure begiramen, esker on eta irakatsi jatorrik.

A. ZUBIKARAI
("Deia" egunkarian)

AGUR ETA ZORIONAK, ON TXOMIÑ!

Bai irakurle, nere agur-itzak On Txomi; i eskeiñi naiean asi naizenean, beste itz au bururatu zait barren-barrendik, zorionak! Izan ere, aren nor-zeréno-la izanak gogoratuaz, nik nola ez zorionak eman ain alako gizon apaizari? Bi goi-asmo artu bere bizitzarako, eta beren guzi-guzizkoan bete itz oiek; eta alaxe azkeneraiñoko guzian.

Beti ere zailla noski onelako asmoak betetzea, baiña gaur dan egunean, gaurko aldakorra eta ariña eta minbera ikusirik, nola ez zorionak eman gure On Txomiñ jaunari?

Berastegi'ko zaldun nobleek (armarria mintzo) irrifar egiñar onartuko zuten "beti-betiko" atsedenean beren erriko (Jau-Erriko) seme apaiza, ameslaria ta ongillea, erle-ezti zale baiña gertakari mintzatzetan oratua. Bijoakio nere agurrik beroena eta zorionik doatsuena.

Ttiki-ttikitatik, goizeko intzetan lorea bezelatsu, antza, ernatu ta azia izaki gure On Txomiñ, mendi-aldeko ederraren ederretan, aren bizi-senaren bizkorra "moro-katuaren" biurriak ikusiaz eta amorraien ixatx ieskorra eta txorien kabiak eta kumeak nabaituaz etab.

Ez nintzan bat-ere arritu mutilkoxorretako xamurra ikusi nionean, Andoain'go apaiz-muintegira joan zaneke artan. Begiak eme, biotza xamur eta goi-deiari egiñiko irrifarra biotz-ondoan, txoria kaiolan zeramala aruntz joan zala esaten digunean. Ñola ez zion-ba arrera gozo bat egingo Erretore Jaunak (Ustoa Jaunak) alako bixorra ikusi zuanean? Ttikitatik zekarren olerkari-doaia, gutxik bezelako; ttikitatik zetorkion iñorenganako maite-sena; eta iñori goi-bizia leunkiro emateko, erlezaintzarako esku ezta.

Ala noski apaiz-gaztetan, Araba aldean, eta guda beltzeko estu-aldietan eta, alaberean, guda-ondorengo Ameriketako apaiz-egintza ugarietan.

Aren ango ekintza ugarietan, ttiki bat berexiko. Surbi izena eman zion bere txakurrari, eizako txakurrari; Berastegi'tik eramana, iñongo txakurrik bizkorrena noski, benetan erena eta eiztariaren esanera umilla ta neka-eziña. Alako noski bere Surbi.

Baiña il-bearra etorri ari ere; eta il zanean, apaiz-etxeko baratzen lur-eman omen zion. Eta bere txakurrari agur egitekoan, kristauari ur bedeinkatua bezela, antza, bizpairu negar-malko isuri omen zizkion.

Unkigarria alako bukaera; berexi-berexia izan bait-zuan bere txakurra, ango jendeak, ala Gotzaiak ere, arriturik egon oi ziranak txakurraren ibilkera saiatuari ezin aspertuari begira.

Baiña apaizaren osorako (Jaunak esana) gurutzea bear, eguneroko gurutzea, maitasun biurtzen dana. Zenbat malko samiñ isurj ote zituan bere azkenaldi auetan Berastegi'ko bere gela umillean! Fede-miñak eta fede-ukaketak eta iritzi naasketak nabaituaz! Bere euskera maitearen eziñak eta ez-irudiak eta andikarako aserreak eta azpi-jokoak eta galerak.

Eskerrak gai auetan ere benetako fededuna zala eta odei illunetan ere, argi-une urdiñen bate aurkitzen zuala. Baiña, bai zaldun noblea (armarria mintzo) bere iritzietan eta bai apaiz fededuna bere eguneroko gurutzea artzekoan! Bijoakio nere agurra eta nere Zorion guzizkoa!

ERRIAREN ESALDI JATORRAK

- Eskale batek beti "Au lana, au lana" esaten zualako, ORTIK ETA ARA, izangoitik ori jarri genion.

(Lagun baten billa zebiltzala, azaltzen ez, eta batek ala esan zuan:

- Ez uan ba tabernen batean sartuko...

- Ama nola dago?

- 89 urte BETE ditu ta oraindik egunero baratzean bi ORDUZ lana egiten du, ta GERRIZ EGIÑ ERE.

- Alegiñak egiten dituzte, baiña ALAZ TA ERE, gauzak naiko oker ba-daude.

- Ez zekien ni ÑIÑTZAÑIK.

- Ez zekjen nere anaia ZAÑIK (ZEÑIK).

- Ortik JOAÑ DA ERE, ez dago BIDE-GALTZE AUÑDIRIK.

Treanean gizon zar bat; lekua eskeñitakoan:

- Eskerrikasko!, baiña BIDE-MOTXEAN ÑOA ta ez du merezi.

Aize aundirik ez dagoanari esker ez DAGO O IZIK.

- MOLDAKAITZA ZERA GERO...!

- EZ BAT ETA EZ BESTE JOKA ASI ZAÑ.

- Ñora zoaz?

- IÑORA EZ!

- Patxi etorri al zan?

- Oraindik ETORRI GABEA IZAÑGO DA...

- Orrekin EZ DAGO GIRO!

OÑATIBIA TAR MAÑU'K JASOAK.